# Goienkaria

2008ko abenduaren 19a > Egubakoitza > IX. urtea > 358. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net




"Eslovenieraren garapen modernorako ezinbestekoa izan zen independentzia"

**Bojan Brezigar** Esloveniako ministroa > 09

**G2a** Baserriko 500 bat tresna ikusgai Arrasaten > 43

**ARRASATE** Ferixalekuko igogailuko lanak otsaila aurretik hasiko dituzte > 18

**BERGARA** San Migeleko errepikagailua egokitu egin dute eta TDTa ikus daiteke > 26

**ESKORIATZA** Inbertsioak egiteko ideia bila, herritarrei galdetuko die Udalak > 34

**EKONOMIA** > KONTSUMOA

# Gabonetan %12 gutxiago gastatuko dugu

**JATEKOA** Batez beste 850 euro gastatuko du bakoitzak; gehien jan-edanetan

**OPARIAK** Gutxiago eta beranduago izan arren, jendea badabil opariak erosten > 02-03



**ZUBILLAGAN** Hor egokitu dute zerbitzua. Hamabost profesionalek jardungo dute han. ARANTZAZU EZKIBEL

## Hasi da lanean Debagoienerako anbulantzia medikalizatua

Aurrerantzean anbulantzia medikalizatua izango dugu Debagoienean. Albiste pozgarria da, izan ere, orain arte Elgoibartik etorri behar izaten zuen anbulantziak. Hala, 30 minututik bost minutura jaitsiko da itxaron denbora. Gipuzkoan halako laugarrena izango da. > 05

## Gaur, barikua, 6. kontzertua

Elgetako Espaloia, 22:30
5 euro, Gaztekutxa, 3 euro

> The Motherfuckers
> Barua Banda
> Tuesday Evenings
> Revelphone

DANBAKA

**ARETXABALETA** > LANAK

## Plaza berria estreinatzear Aretxabaletan

Ia bederatzi hil iraun dute lanek eta bihar inauguratuko dute erabat berrituta > 15

## Urtarrilera arte, irakurle!

Hurrengo zenbakia urtarrilaren 9an argitaratuko dugu. Urteko azken Asteleheneko Goienkaria, berriz, abenduaren 22an. Eta hilaren 26an, *Urtekaria* jasoko duzue etxean. Urte berri on!




**KIROLA** > SARIAK

## Debagoieneko Kirol sariak banatuko dituzte bihar

Elite mailako eta herri mailako kirolarien lana errekonozitzeko asmoz jaio dira DKS sariak. Sariemate ekitaldia Aretxabaletan izango da. > 41

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-42
**Kultura** > 44
**Sailkatuak** > 46-48
**Telebista-Irratia** > 51
**Denbora-pasa** > 52
**Berri-zakua** > 53
**Non-zer** > 54-55








**EKONOMIA** > GABONETAKO KONTSUMOA

# Gabonetan 850 euro gastatuko ditu herritar bakoitzak

**GASTU GUTXIAGO** EAEn Europako beste tokietan baino gehiago gastatzen da Gabonetan; hala ere, aurten iaz baino %12 gutxiago

**AZKEN UNEAN** Krisiaren eraginez jendeak azken momenturako utzi ditu janarien, oparien zein loteriaren erosketak

I. AGIRREAZALDEGI/T. MADINA > BERGARA

Gabonak gerturatzean sekulako kontsumismo dinamikan sartzen gara. Jarrera arduratsuak alboratu eta erosketak neurri gabe egiteari ekiten dio askok.

Gabonetan, biztanleko, 850 euro gastatuko ditugu gurean, iazko gastuekin alderatuta %12 gutxiago. Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoak egindako ikerketa baten araberako datuak dira. Azterketak dio aisialdian, ospakizunetan eta oparietan murriztuko ditugula gastuak; eta neurri txikiagoan jatekoetan. "Luxu txikiagoko Gabonak izango dira, baina ez askoz merkeagoak. Gutxiago erosiko dugula dirudien arren, prezioak, janarienak batik bat, iaz baino garestiagoak dira", diote elkargotik.

Elkargoko Jon Ariñok esan digunez, "Euskal Herrian gastua Espainiako toki gehienetan baino apur bat handiagoa da eta Espainia Europan goren mailan dago. Hala ere, kontsumoaren jaitsiera nabarmena da jendeak neurrian eta zuhurtziaz egin dituelako erosketak. Debagoieneko gastua EAEkoarekin pareka daiteke, erosteko ahalmena denean jaitsi baita".

**"Arkumea izaten da nagusi eta aurten ere hala izango da, baina beldur handia dago eta enkargu gutxi jaso da oraindik"**

**"Krisiari buruzko kontuak bazter guztietan entzuten dira, baina jendea animatuko da opariak erostera"**

### JATEKOAN, PAREKO GASTUA

Gurean ohikoa da edozer dela ere jatordu bereziekin ospatzea. Gabonetan ere gastu nagusiak jan-edanetan egiten dira. Azterketaren arabera 440 euro erabiliko dira batez beste. Arrainek eta itsaskiek hartzen dute aurrekontuaren zatirik handiena, 200 euro inguru; bisigua, almejak eta marisko freskoa asko garestitzen direlako. Haragian egiten dugun gastua, 100 euro, mantendu egiten da eta horri gehitu behar zaio pate eta hestebeteen gastua, 45 euro.

Jon Leturia Bergarako harakinak esan digunez, "jendeak batik bat erosten du solomilloa, txuleta, entrekota eta arkumea. Arkumea beti izaten da nagusi eta aurten ere hala izango da, baina beldur handia dago eta enkargu gutxi egin da oraindik, asteon hasi dira eskariak. Azken orduan uste dugu salduko dela".

Krisiaren eragina sumatu duten galdetuta zera esan digu: "Aparteko paga ez jasotzea bailara honetan asko igarriko da, bai jaten eta baita oparietan ere. Harategian, aste batzuk atzerago sumatu dugu nola jendeak beste era bateko produktuak erosi dituen. Gauza berezi eta garesti gutxiago eta pikatutako edo gisatzeko okela gehiago…".

Jatekoa edari onekin busti nahi izaten dugu eta edaritan 45 euro gastatzen dugu batez beste. Eta jatorduak osatzeko turroiak eta gozokiak, erosketa saskiaren 50 euro hartzen dituztenak.

### OPARIETAN MURRIZKETA

Opariek ere zeresan handia dute Gabonetako ospakizunetan, baina aurten murrizketa nabarmena izango da horietan. Batez beste 200 euro gastatuko ditugu.

Oñatiko Urrutia jantzi dendako Asier Gorostiagak esan digu eurak nahikoa konforme daudela, "baina giroa, herrian oro har, ez da oso ona. Olentzero egunerako egun batzuk falta dira, eta ikusi beharko da…".

Krisiaren eragina gehienbat azaroan sumatu dute. "Abenduan hotzak lagundu digu salmentetan, baina ez dago beste urteetako mugimendurik. Jendea azken unera arte itxoiten dabil eta hiriburuetan beherapenak hasi direnez, horiek aprobetxatzen dihardute. Beste batzuk Gabon osteko beherapen handiagoen zain daudela dirudi. Gu beherapenekin ez gara hasi, baina herrian beste dendetan hasiz gero, guk ere ipini beharko ditugu", esan digu.

Gabonetan ohiko opari diren perfumeak ere saltzen dituzte Urrutiakoek. "Azken urteetan jaitsita daude salmentak. Merkataritza etxe handiek kalte egin digute txikioi. Hala ere, Gabonetarako gehiago saltzen dira", dio Asier Gorostiagak.

Oñatin, erakusleiho lehiaketa antolatzea positibotzat jo du Gorostiagak. "Dendek lana hartu dute erakusleihoak atontzen eta jendeak hori baloratu du eta herrian gehiago kontsumitzeko asmoa suma daiteke, beharbada".

Arrasateko Ibai-Arte merkatarien elkarteko presidente Arantza Arantzabalen ustez, "Arrasateko hainbat enpresatan Gabonetako aparteko pagari uko egin izana nabarituko da hilabete honetan; beste urte batzuetan altzari bat edo telebista bat erostea pentsatzen zuen, beharbada,



Erakusleihoak Gabonetarako apropos gertatu dituzten arren, merkatarien esanetan erosketak

#### GABONETAN ERE, KONTSUMO ARDURATSUA

**> EROSKETAK PROGRAMATU**
Aldez aurreko aurrekontu bat finkatu gasta dezakegunaren arabera. Oparia egin behar diegun lagunen zerrenda egitea eta bakoitzarekin zenbat diru gastatu behar dugun jakitea ere lagungarri izan daiteke.

**> KONPARAKETA**
Artikulu beraren prezioa alda daiteke denda batetik bestera; konparatu eta onena aukeratu. Horretarako komenigarria da erosketak garaiz egitea eta eskaintzak aprobetxatzea.

**> JATEKOAK AURREZ**
Egun horietan hainbeste garestitzen ez diren elikagaiak aukeratu edo garestitzen direnak aurretik erosi eta kontserbatu. Pixkanaka erosita, gastua dibertsifikatu egingo dugu.

**> INTERNET BIDEZKO EROSKETAK**
Ohiko merkatuan topatzeko zailak direlako edo gauzak merkeago aurkitzeko Internetera joz gero, zerbitzari segurua erabili. Informazio zehatza eskatu prezioari, bidaltzeko moduari eta kostuari, eta bermeari eta itzulketari buruz. Produktua eskuratu arte ez ordaintzea edo prezioaren zati txiki bat ematea gomendatzen da.

**> BIDEZKO MERKATARITZA**
Onura soziala ekartzeaz gain, opari politak erosteko aukera ematen dute bidezko merkataritzako dendek .

**> ETIKETAK ETA AGIRIAK**
Iraungitze datari erreparatu etiketetan. Produktu iraunkorrak erosiz gero, ordainagiriak gorde, baita zigilatutako bermea ere.





azken momenturako utzi dituzte askok. XABIER URTZELAI

jendeak, eta orain, agian, ez dute horrelako gastu handirik egingo. Baina uste dugu jendeak jarraituko duela opariak erosten. Jendea alaitu egin behar da. Toki guztietan krisiari buruzko kontuak entzuten beldurtu egin da, baina animatuko direla uste dugu".

Merkatari txikiek erosketa zentro handiak izan dituzte ahotan eta Arrasateko Eroskira jo dugu Gabonetako erosketetan krisiaren eraginik sumatu duten galdetzera. Josu Ogiza Arrasateko Eroskiko gerentearen esanetan: "Apenas igarri dugu salmentak jaitsi direnik; Gabonetarako bereziki erosten diren jatekoetan ez, behintzat. Beharbada, marka zuriak gehiago saltzen dira orain lehen baino, kalitatea eta prezioa balantzan ipiniz gero produktu egokiak direlako. Beharbada, bezeroaren poltsikoan zulo handiagoa eragingo luketen produktu horiek dira erosten ez dituztenak: etxetresna elektriko handiak, hozkailuak...".

Jatekoan gehien, oparietan gutxiago eta loteria eta aisialdia leudeke gero. Batez beste 110 eurotan erosten dugu zoria gurean. Arrasateko Alegre loteria etxetik esan digutenez, "bueltan nahikoa jasotzen gabiltza, baina ez da beste urte batzuetan baino gutxiago saldu. Banatuta dauzkagu elkarteetan, tabernetan, lantegietan… eta txartelak bueltatzen dabiltza. Salmenta irregularra izan da, leku batzuetan asko saldu da eta beste batzuetan iaz baino gutxiago". Aisialdian eta ospakizunetan 100 euroko gastua egingo omen dugu azterketen arabera.

Gabonak Gabon eta poltsikoari erreparatu gabe gastatu eta hor konpon. Hala jokatzen dugula uste du Jon Ariñok: "Egun hauetan erosketak puzteko joera nabarmena da, baina oparotasun garaiekin alderatuta pixkanaka, euforia gutxiagorekin kontsumitzeko bidea hartzen eta hainbat gastu murrizten dihardugu. Gastuak kontrolatzen ditugu, opari erabilgarriagoak egiten dira, eskaintzak aprobetxatzen ditugu eta marka zuriko produktu gehiago erosten dugu. Hala ere, Gabonetan umeek zenbat gozatzen duten ikusita, eurei zuzendutako erosketetan ez da apenas murrizketarik izaten".

**URTARRILEKO ALDAPA**

Urtezahar gaueko kanpaiekin urtarrila eta Gabonen ostean hasten ei da aldapa gora.

Jon Leturia harakinaren esanetan, "urtarrileko aldapa gogorragoa izango da eta jatekoetan azken asteotan izan diren aldaketak orduan gero eta nabarmenagoak izango dira. Jendeak diruari gehiago begiratuko dio eta ezberdin jango du".

Urrutia dendako Asier Gorostiagak uste du, "urtarrilean beherapenak direla-eta ez da hainbeste sumatuko. Otsailetik aurrera kontua gogorra izango da".

Ibai-Arteko Arantza Arantzabal bat dator beste merkatariekin: "urtarrileko aldapa baliteke aldapatsuagoa izatea baina ekonomialariek ere ba ote dakite nolakoa izango den? Aurreikuspenak ez dira onak, baina positiboak izan behar dugu".

Egun hauetan askok egingo duena da krisia eta diru kontuak ahaztu eta Gabonekin gozatu.

LOTERIA

## Gaboneko loterian krisi zantzurik ez

Batez beste herritar bakoitzak loterian 110 euro gastatzen du. "Jendeak bere ahalmenaren araberako gastua egiten du, Gabonetako loteria berezia da eta krisirik ez da sumatzen. Bestelako zorte jokoetan jaitsi egin da pixka bat, baina Gabonetakoa familia, gizarte kontua da", esan digu Alegre loteria etxeko Elisak.

Zehatz zenbat saldu duten ez dakiten arren, iazko kopuruen bueltan ibiliko dira. "Ekainean hasten gara Gabonetako loteria saltzen, eta hasieran oso motel ibili ziren salmentak; azken unean eskatzen dabil jendea", dio Elisak.

Urtero jasotzen dituzte eskari bereziak eta aurten euren etxean 88an amaitzen den zenbaki bat asko saldu dela esan digu.

AGINALDOA

## Gabon otarreen eskaria behera

Enpresek langileei Gabon sari moduan saskia oparitzeko ohitura aspaldikoa da, baina aurten badirudi etxe gutxiagotara iritsiko direla. Horrelako otarreak gertatzen dituztenek esan dute krisiaren eraginez-edo salmentak asko jaitsi direla, %40ra toki batzuetan.

Gurean bada Gabon otarreak gertatzen dituen enpresarik. Aretxabaletako Erostegi enpresan esan digutenez, "eskarien beharakada ez da hainbesterakoa izan, ez esperotakoa behintzat. Gainera, tabernetatik eskari mordoa jaso dute bezeroen artean otarreak zozketatzeko. Bezeroek nahiago dute otarreen produktu onak sartzea gauza gehiago sartzea baino".

DESKONTUAK

## Oñatiko merkatariek erosketen %2 opari

Txanda Oñatiko merkatarien elkarteak 2009ra arteko opari txeke kanpaina ipini du abian. Kanpainaren bidez, Txanda Txartelaren kide diren 70 saltoki baino gehiagotan egindako erosketa bakoitzeko %2 jasoko dute bueltan Rural Kutxako txeke bidez. Txekeok hurrengo erosketetan erabili ahal izango dituzte bezeroek Txanda elkareko kide diren saltokietan. Txandakoek animatu nahi dituzte herritarrak txartela erabiltzera abantailak lortzeko eta txartelik ez dutenak eskatzera, doakoa baita.

Arrasateko Ibai-Artekoek ere egin dute deskontu kanpaina hiru astean barrena, eta herritarren erantzuna ona izan dela esan dute merkatariek.

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedunen txokoa**

**Abenduko irabazleak**

**Sariak irabazteko HARPIDETU!**
**Tel.: 943 08 10 50**

**ZU IZAN ZARA IRABAZLEA, ZORIONAK!**

**SARRERAK**

| BRUESA- FC. Barcelona | BRUESA- GRANADA |
| --- | --- |
| Esteban Barandiaran Fdez. de Jauregi (Arrasate) | Koro Zelaia Mendizabal (Oñati) |
| Floren Arana Barandiaran (Arrasate) | Angel Agirreazaldegi Gallastegi (Zarautz) |

**BONUAK**

Mertxe Kalparsoro Esteibar (Aramaio)
Idoia Lasa Elgezua (Elgeta)

ADATS ILEAPAINDEGIA

**JOKUAK**

Juan Arriolabengoa Lasaga (Aramaio)
Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)
Esther Gardoki Errasti (Aramaio)
Agustin Bolinaga Zubia (Oñati)
Pablo Berezibar Arevalo (Eskoriatza)
Maribi Visitacion Zabaleta (Bergara)
Miren Murua Olalde (Arrasate)
Marta Agirreurreta Barbero (Arrasate)

Ikastolen Elkartea

**BONUAK**

Uxue Zabaleta Arin (Bergara)
Mila Goikoetxea Arizmendi (Arrasate)

GIARTZU GIMNASIOA&ESTETIKA

**SARI NAGUSIKO IRABAZLEA:**
JOSE ANTONIO AMONDARAIN ARANA (Oñati)

**"LA PERLA" TALASOTERAPIARAKO BONOA (10 SARRERA).**

La Perla CENTRO TALASO SPORT



Urte barri, barri
zoriona ekarri ikastolari
egi bihurtuko diren
ametsak ditu ugari.

Bi mila eta bederatzian
igoko gara gailurrera
oihukatuz: elkarlanean
ikastolak aurrera!



ARANZADI ikastola
Arizmendi ikastola
TXANTXIKU IKASTOLA



Oñatiko udaletxe azpian egon zen anbulantzia medikalizatua; baita suhiltzaileen kamioia ere. ARANTZAZU EZKIBEL

**ZERBITZUAK** > ANBULANTZIA MEDIKALIZATUA

# Hasi da lanean ibarrerako anbulantzia medikalizatua

Eguaztenean aurkeztu zuten Oñatiko udaletxean ibarrari zerbitzua emango dion anbulantzia medikalizatua; Zubillagan egongo da

**ARANTZAZU EZKIBEL**> OÑATI

Dagoeneko hasi da lanean Debagoienari zerbitzua emango dion anbulantzia medikalizatua. Eguaztenean aurkeztu zuten Oñatiko udaletxean Zubillagatik lan egingo duen zerbitzua.

Osakidetzako osasun laguntzako zuzendari Michol Gonzalez, Lehendakaritzako eta Foru Administrazioko diputatu Edurne Egaña eta Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak egin zuten zerbitzuaren aurkezpena.

DATUA

**19.000**

**IRTEERA 2007AN**

EAEn hamar anbulantzia medikalizatu daude; iaz, 2007an, 18.987 larrialdi irteera egin zituzten. Gonzalezek esan zuen aurtengo urtean iaz baino %3 irteera gehiago egin direla dagoeneko.

ESANAK

**"Benetan pozgarria da ibarrerako osasun zerbitzua aurkeztea; are gehiago larrialdi zerbitzua bada"**

**Lourdes Idoiaga** > Oñatiko alkatea

Idoiagak azpimarratu zuen egun pozgarria dela debagoiendarrentzat; izan ere, orain arte Elgoibartik etorri behar izaten zuen anbulantziak. Hala, itxaron denbora 30 minututik bost minutura jaitsiko dela esan zuen Oñatiko alkateak.

**LAUGARREN ANBULANTZIA**

Diputazioak 33.000 euro gastatu ditu Zubillagako zerbitzuan. 90 metro koadroko azalera egokitu dute horretarako. Lau pertsonarentzako bi logela, 20 takila, bulegoa, sukaldea eta beste hainbat zerbitzu jarri dituzte. Guztira, 15 profesional ibiliko dira lanean Zubillagan: bost mediku, bost erizain eta bost gidari. Zubillagako anbulantziak 70.000 laguni emango die zerbitzua. Esan behar da orain arte Donostia, Tolosa eta Elgoibarren zeudela anbulantzia medikalizatuak; Oñatikoa Gipuzkoako laugarrena izango da.

**EGURALDIA** > UDAZKENEKO DATUAK

# Udazken euritsuaren ondoren, negua lehorragoa izango dela diote adituek

Eguaztenean hasi ziren tenporak hilaren 24ra arte; egun horietarako eguraldi epela eta lehorra egingo duela diote iragarpenek

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARRA

Euria, euria eta euria. Halaxe labur daiteke aurtengo udazkena. Domekan hasiko dugu negua, eta dagoeneko 842 litro bota ditu urrian (237), azaroan (377) eta abenduan (228). Dena den, aldaketa dator. Bihartik aurrera eguraldia epeldu egingo da. Adituek diote negua "sanoa" izango dela. "Eguaztenean hasi ziren tenporak eta hilaren 24ra arte iraungo dute. Egun horietarako giro epela eta lehorra espero dugu. Hortaz, esango nuke negua udazkena baino lehorragoa izango dela", azaldu digu Pello Zabalak.

UDAZKENEKO DATUAK

**> EURI BARIK.** Azarotik atzora arte bost egunetan bakarrik ez du euririk egin.

**> HILABETEKA.** Udazkeneko hiru hilabeteak oso euritsuak izan dira: urrian 237 litro bota zituen; azaroan 377, eta abenduan 228.

**> EURITSUENA.** Udazkeneko egunik euritsuena azaroaren 2a izan zen. Egun hartan 66,7 litro bota zituen.

**> URTEAN.** Udaberrian eta udazkenean egindako euriaren ondorioz, 2.000 litrotik gora bota ditu 2008. urtean.

**> ASTEA.** Udazkeneko asterik euritsuena azaroren 19tik 25era arteakoa izan da. Guztira, 152,8 litro bota zituen.

**UDAZKEN HEZEA**

Udazkenak eman dituen datuak ezagutzeko Bergarako San Juan auzoko Luis Mari Agirrerengana jo dugu, eta datu borobila eman digu: 842 litro bota ditu udazkenean. "Aurtengo udazkena ezohikoa izan da erabat. Iaz, garai berean 287 litro bota zituen. Beste datu esanguratsu bat: azarotik atzora arte, bos egunetan bakarrik ez du euririk egin", esan digu. Bestalde, hilabete bakoitzeko egunik euritsuenak zeintzuk izan diren esan digu: urriaren 21a (39,2 litro), azaroaren 2a (66,7 litro) eta abenduaren 3a (37,8 litro). Azken 25 urteotako datuei begiratuta, oraingo udazkenean hil bakoitzeko batez bestekoak gainditu egin dira: "Urrian batez beste 121 litro egin ditu 25 urteotan, eta aurten 237 litro. Azaroko batez bestekoa 179 litro da, eta abendukoa 160 litro".

Pello Zabalak esan digu udazkena oso hezea izan dela, baina urtea orokorrean ere bai: "Urtea hasi zenetik, 2.000 litrotik gora euri bota du".

DATUA

**%98**

**BETETZE MAILA**

Urkuluko urtegiaren betetze mailari dagokion datua da goikoa. Duela bi aste, %99,99 bete zen urtegia, egun haietan botatako elurra urtzearen ondorioz.




Koltxoi dendak
beds®
ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!
Behar duzun oparia daukagu!
Aurten Olentzero atseden artikuluz betea dator!
ARRASATE / Zarugalde 25/ Tel.: 943 77 18 35
BERGARA / Arrizuri 7/ Tel.: 943 76 25 91

Ander Rodriguez > EBko zinegotzia

# "Erakunde berriaren asmoa da euskal ezker zabalari ekarpen berriak egitea"



GOIENKARIA

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

**Joan den zapatuan aurkeztu zuten Bilbon Ezker Batuko ordezkari kritikoek Alternatiba Eraikitzen erakundea. Ander Rodriguez Arrasateko Ezker Batuko zinegotzi eta talde horretako kideak azaldu dizkigu erakunde berriaren nondik norakoak.**

**Ezker Batuko zuzendaritzarekiko alderdikide kritikoek erakunde berria sortu dute. Ze helbururekin?**

Orain dela hilabate batzuk hausnarketa hasi genuen eta konturatu ginen mota honetako eragile bat falta zela ezkerrean. Euskal Herriko egungo ezkerra ez da gai zapalkuntza eta esplotazioaren aurkako borrokak biltzen dituen proposamen politikoak garatzeko; edo, behintzat, euskal ezkerraren zuzendaritzak ez zuen ideia hori kontuan hartu garatzeko. Hortaz, premiazkoa ikusi dugu horrelako eragilea sortzea.

**Alternatiba Eraikitzen eman diozue izena erakundeari eta Oscar Matute da sustatzailea.**

Izenari ez diogu garrantzi handirik eman; lehenengo pausoa bakarrik da. Gero, apirilean, prozesu eratzailea hasiko da eta orduan beste izen bat emango zaio. Orain jaio egin da, baina hiltzeko asmoarekin.

Oscar Matute sustatzaileen artean dago; baina baita beste hainbat pertsona ere. Bai Ezker Batukoak eta baita ez direnak ere.

**Esaten duzue Euskal Herriko ezkerra berregituratu gura duzuela. Ezker Batua baino gehiago da hori?**

Guk ez dugu mugimendu hau Ezker Batuari begira egiten; argi dago Ezker Batutik jaio dela, baina gure ekarpena euskal ezker zabalari egiten diogu.

**Zapatuan hasi zenuten eztabaida politikoa Bilbon, 250 pertsonaren aurrean.**

Hala da, oso pozik atera ginen lehenengo hitzordu hartatik. 250 lagun inguru batu ginen; kuantitatiboki eta kualitatiboki emaitza ona izan zela uste dut. Hainbat alderditako militanteak zeuden Bilbon. Pozik atera ginen, baina argi daukagu benetako lana orain hasten dela.

**Javier Madrazok, Ezker Batuko koordinatzaile nagusiak, ontzat jo du ekimena.**

Nik beti errespetatu ditut Ezker Batuko kideek egiten dituzten gogoetak; baina guk ez daramagu erakunde hau aurrera inor pozteko.

**Datozen hauteskundeetara aurkezteko asmorik ez duzue agertu.**

Ez da gure helburua hauteskundeetara aurkeztea. Ez gara organizazio sendoa; lehenengo sendotu egin behar dugu, jende gehiago bildu behar dugu alderdiaren inguruan. Orduan ikusiko dugu aurkeztuko garen edo ez. Erakundea ez da helburua, bitarteko modua baizik.




Argazkian, prentsaurrekoko irudi bat. TXOMIN MADINA

PRESOAK > EKINTZAK

# Presoen aldeko ekimenak egingo dituzte Gabonetan

MIREIA BIKUÑA> ARRASATE

Ibarreko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak eta euskal preso eta iheslari politikoen senideek Gabonetarako antolatu dituzten ekintzen berri emateko prestaurrekoa egin zuten martitzenean Arrasaten. Era berean, gaixotasun larriak dituzte euskal presoak askatzeko eta biziarteko zigorra ezartzeko neurriak bertan behera uzteko eskaera egin zuten. Gainera, sakabanatze politika bukatzea eskatu zuten.

Bestalde, hilaren 28an eta urtarrilaren 3an Langraitzen eta Bilbon egingo dituzten manifestazioetan parte hartzeko deialdia egin zuten.

**> ARRASATE**
- > Abenduak 20: Gabon materialaren denda zabalduko dute Ferreriasen hilaren 31ra arte.
- > Abenduak 24: Manifestazioa Olentzero irten ondoren eta bertso jaialdia gaztetxean.
- > Abenduak 26: Kontzentrazioa.
- > Abenduak 31: Presoen aldeko brindisa.

**> ARETXABALETA**
- > Abenduak 24: Txistorra eta maindire salmenta eta baserririk baserri ibilaldia.
- > Abenduak 26: Herriko abesbatzarekin azken egubakoitzeko ekitaldia.
- > Abenduak 31: Presoen aldeko brindisa.

**> BERGARA**
- > Abenduak 24: Bazkaria, kantuan irten herriko kaleetan eta Olentzero.
- > Abenduak 26: Elkarretaratzea.
- > Abenduak 31: Presoen aldeko brindisa.

**> ARAMAIO**
- > Abenduak 24: Auto karabana auzorik auzo.
- > Abenduak 26: Kontzentrazioa.
- > Abenduak 31: Triki-poteoa.

**> OÑATI**
- > Abenduak 24: Olentzero.
- > Abenduak 26-27: Kontzentrazioa eta 24 orduko areto futbol txapelketa.
- > Abenduak 31: Manifestazioa.

LAGUNTZAK

# Euskarazko produktuak sustatzeko laguntzak

Tokiko telebistek lehen aldiz jaso dute Foru Aldundiaren laguntza

M.B. > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara Zuzendaritzak 2.884.520 euro banatu ditu euskarazko produktuak eta euskararen erabilera sustatzeko. Laguntzaren %39 hedabideetara bideratu dute. Horren harira, euskarazko hedabideek 1.121.520 euro jasoko dute. Besteak beste, euskara hutsean emititzen duten herri eta eskualde mailako telebistek laguntza jasoko dute lehen aldiz, tartean Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak.

**UDALEK ETA ELKARTEEK**

Euskarazo filmak, DVDak eta CDak bultzatzeko 450.000 euroko laguntza emango du Aldundiak. Bestalde, herri, eskualde eta lurralde mailako 38 aldizkariren artean 861.000 euro banatuko dituzte, eta Gipuzkoako 47 udalerritan euskara planak garatzeko 400.000 euro bideratu dituzte. Era berean, euskara elkarteek jasoko dute 397.000 euroko laguntza urteko programa eta ekintzekin aurrera egin ahal izateko.

LAGUNTZA

# Jaki bilketa egingo dute Saharara bidaltzeko

A.E. > BERGARA

Egun hauetan Saharako herriarentzat material bilketa egingo dute Debagoieneko herrietan. Nubi eta Iesbaa elkarteek deituta, herri saharrarraren aldeko V. Piztu Itxaropena elikagai bilketa egingo dute gaur eta bihar artean. Arrasateko eta Aretxabaletako zenbait dendatan egongo dira jakiak batzen. Bestalde, Bergarako Bibisherekoak abenduaren 17an hasi ziren kanpainarekin eta urtarrilaren 17ra arte jarraituko dute. Supermerkatu handietan eta herriko dendetan batuko dituzte jakiak. Hegaluzea eta sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, lekaleak eta konpresak batuko dituzte.

## "Iruzurraren legearen" aurkako elkarretaratzea egin zuen EHBEk

Euskal Herria Bere Eskola (EHBE) taldeak euskalduntzea bermatuko lukeen legea iruzurra dela salatzeko elkarretaratzeak egin ditu asteon ibarreko hainbat herritan. Jaurlaritzako hirukoak legealdirako agindu zuen legea "iruzurra" dela aldarrikatu zuten, eta euskalduntze prozesuari "kalte konponezina" egingo diola azpimarratu zuten. Horregatik guztiagatik, Euskal Herriko ikasle guztiak euskalduntzeko Hezkuntza Sistena Nazionala eraikitzea ezinbestekoa dela esan zuten.




BENITO CANTERO

> BIZI-KALITATEA

### Erkidegoko pobrezia maila txikiena du Debagoienak

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza sailak joan den astean emandako datuen arabera, Debagoiena da Gipuzkoako pobrezia maila baxuena duen eskualdea: EAEko muturreko pobreziaren %0,1 bakarrik dago Debagoienean, eta pobrezia maila larrienean bizi diren 88 lagun zenbatu dituzte ibarrean; Donostialdean, 14.688 lagun dira; Debabarrenean, 858; eta Tolosaldean eta Goierrin, 342 bakoitzean.

> SARIA

### Empresa-ideien Toribio Echevarria saria, Prosens-i

Mondragon Unibertsitateko langile Endika Gandariasek jaso zuen astelehenean enpresa-ideia teknologikoaren Toribio Echevarria saria, Eibarren, Prosens enpresaren izenean.

Makina-erreminta sektoreko berrikuntza sistemetan jarduten du Prosens-ek, eta Microm izeneko produktua da garrantzitsuena; hori garatzen MUk eta Idekok ere lan egin dute bost urtean.

> AURREIKUSPENAK

### 2009rako atzeraldirik ez du aurreikusten Euskadiko Kutxak

Euskadiko Kutxako arduradunek onartu dute "argi" dagoela egungo egoera orain hilabete batzuetakoa baino "txarragoa" dela, eta etorkizuna "ez dela batere ziurra edo itxaropentsua"; baina, hala ere, Euskadin, BPGa %0,6koa izango dela datorren abenduan, Europako batezbestekoa baino altuagoa; horren haritik, Euskadi ez dela atzeraldian sartuko esan zuten. Datu horiek eman zituzten martitzenean prentsaurrekoan.

> MONDRAGON

### Iaz, 4.230 milioiko salmentak egin zituen Mondragon Taldeak

Mondragon Taldeak jakinarazi du EAEko eta Nafarroako bere kooperatibek 2.244 milioi euroko esportazioak egin zituztela iaz, eta atzerriko 69 filialen fakturazioa gehituta, 4.230 milioiko salmentak izan zituztela. Eustaten eta Nafarroako Gobernuaren datuak erreferentzia gisa hartuta, EAEko Industria Taldeko kooperatiben esportazioak erkidegoko industria enpresek urte horretan esportatutakoaren %12,6 izan ziren.

**KRISIA** > UDALAK

# Ibarreko udalek dirua zuhur kudeatzen jarraitu beharko dute datorren urtean

## Eudel udalen elkarteak Krisiaren Aurkako Plana aurkeztu zuen, baina bailarako udalek lehendik ere bazituzten krisiaren aurkako jokabideak

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Datorren urtean ere, udalek zuhur jokatu beharko dute ekonomia krisiari aurre egiteko; batzuek orain arteko jokabideari jarraituz, eta beste batzuek, astelehenean Eudelek, Euskadiko Udalen Elkarteak, astelehenean aurkeztu zuen Krisiaren Aurkako Planaren bidetik. Neurrien artean, herri bakoitzeko berezitasunak kontuan hartuta, langabeei lana topatzeko aukerak hobetzeko enplegu mahaia sortzea aurreikusten da; era berean, udalei gastu korrontea –funtzionamendukoa– murriztea gomendatzen diete, hirigintza modu arinagoan kudeatzea, eta beste proposamen batzuk.

Oñatiko alkatea, Lourdes Idoiaga, Eudeleko exekutibako kidea da, eta, bere esanetan, "zergak eta Udal Finantzaziorako Foru Funtsa jaitsi egin dira, eta eragina oso nabarmena da; Oñatin, hirigintza %10 jaitsi da. Udalak ezingo dira finantzatu sarrera arruntekin. Neurrien artean, inbertsioetarako kredituak hartzea eta gastuak eta sarrerak aztertzea daude". Gaineratzen duenez, "argi dago nahi eta nahi ez neurriak hartu beharko dituztela udalek, bestela, 2010ean arazoak izango dituzte".

**IRITZIAK**

Badirudi ibarreko udalek lehendik ere bazituztela ohitura onak. Eskoriatzako alkateak, Pedro Lasagabasterrek, hau dio: "Ondo ikusten ditut proposamen horiek; hartu beharreko neurriak dira. Edozein modutan, aurretik ere bagenuen krisia, eta dagoeneko bagenbiltzan gastu korrontea murrizteko eta inbertsioak hobeto kudeatzeko ahaleginetan".

Iritzi kritikoagoak ere badaude, Elgetako alkate Oxel Erostarberena, adibidez: "Eudelek Diputaziora joan beharko luke, eta udalenganako finantzaketa beherakada onartezina salatu, krisiari aurre egiteko udalek dirua behar dugulako".

EUDELEN GOMENDIOAK

**> ENPLEGUA** Neurri nagusia Enplegu Mahaia sortzea da, udalerri bakoitzean tokiko enplegua bultzatzeko.

**> INBERTSIOA** Udalen inbertsio publikoa dinamizatu eta indartu nahi da.

**> OREKA** Gastu-partidak aztertzea eta lehentasunezko proiektuetara bideratzea.

**> HIRIGINTZA** Industria-lurrak eta etxe-lurrak arinduko dira, enpresa-jarduera erakartzeko eta jarduera publikoak etxebizitza eskari berrietara egokitzeko.

**> GARAPENA** Enplegurako baliabideak diseinatzea, ekintzaileei laguntzea... aurreikusten da.

**> GASTU SOZIALA** Egungo zerbitzuei eutsi eta berriak ematea.

**> KONTROLA** Udal zerbitzuak ematen dituztenen ikuskaritza.




**KRISIA** > MONDRAGON TALDEA

# Zorrotz jokatzeko esan die enpresei Mondragon Taldeak

## Krisiari aurre egiteko, jarduerak "birbideratzea edo ixtea", "pertsonala azkar egokitzea" eta epe motzeko erabakiak aholkatu ditu zuzendaritzak

**L.K.** > ARRASATE

Mondragon Taldeko zuzendaritzak hainbat gomendio egin dizkie taldeko 260 enpresei krisiari aurre egiteko: besteak beste, neurriak "lehenbailehen" hartzea, batez ere "txokezko neurriak"; enpresak edo jarduerak "egokitzea, birbideratzea edo ixtea", horren "kostu sozioekonomikoari aurre eginez"; epe motzerako erabakiak hobestea; lehiakortasuna eta errentagarritasuna hobetzeko, "pertsonal egokitzapen azkarra eta zorrotza, eskaera maila berriei erantzuteko", betiere "ikuspegi estrategikoa" batetik; eta lan egutegiko orduak gehitzea; estruktura kosteei dagokienez, kostuen analisia egitea gomendatzen dute, eta gaueko ordu edo jaiegunengatik ematen diren plusak, eta baita ezohiko ordainketak ere, izoztea.

Beste aldetik, esaten dute krisi egoerak "negozio aukera eta elkarlan fronte berriak eta merkatu berrietara zabaltzeko" aukera eman dezakeela.

Gomendio horiek eta gehiago egiten ditu Mondragon Taldeko zuzendaritzak txosten mardul baten. Hor, ohartarazten dute krisia latzagoa izango dela 2009an; "estruktura-krisia da eta hainbat urte iraungo du", esaten dute.

**ANALISIA**

Gomendio horiek txostenaren bukaeran jasotzen dira; aurretik, analisi xehea egiten da: ekonomia egoera 2008an, eta 2009rako aurreikuspenak; aurreikuspen makroekonomikoak; Mondragon Talderako ondorioak; eta kostu arlo nagusiak. Talderako aurreikuspenetan, besteak beste, eraikuntzan eta kontsumo-ondasunetan ia hazkunderik ez dela izango diote; industria-osagaietan –automobilgintza eta etxetresna elektrikoak–, kontsumo pribatua bakarrik %0,2 igoko dela diote; eta enpresa-zerbitzuetan, "oso egoera txarra" komertzioan, turismoan eta garraioan.

## gure artekoak

**FORD FIESTA** > Bergarako Garaje Berria kontzesionarioko Iñaki Altunak erakutsi digu Ford etxeak atera berri duen Fiesta berria. 1976an merkaturatu zuten lehenengo aldiz Fiesta autoa; bizi osorako autoa da.

**Iñaki Altuna** > Garaje Berria kontzesionarioa

# "Segmentu handiko autoekin aldera daiteke Ford Fiesta"

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Aurtengo udazkenean merkaturatutako autoa da Fiesta berria. Lehen aldiz 1976an merkaturatu zuen Ford etxeak Fiesta autoa. Ordutik, belaunaldiz belaunaldi merkatuan egon da Ford Fiesta.

Bergarako Garaje Berria kontzesionarioko Iñaki Altunak erakutsi digu Ford Fiesta. "Azken belaunaldiko autoa ezberdina da; esan daiteke auto atera berria segmentu handiko autoen sailean sar daitekeela", dio Altunak. Hala, Ford Focus autoarekin alderatu du Ford Fiesta autoa Altunak.

Diseinu aldetik da batez ere azpimarragarria Fiesta autoa: "Oso diseinu deigarria eta gaztea dauka auto berriak", azaldu du. Eta zera gaineratu du: "Diseinuaren akabera ere nabarmen hobetu da; adibidez, agintemahaia plastikozkoa izan beharrean gomazkoa da". Ateko goma ere bikoitza da; modu horretan, barnealdea guztiz isolatuta geratzen dela azaldu du Atunak.

**MOTOR AUKERA**

Gaur egun, Ford Fiesta lau akabera ezberdinetan dago salgai: Ambiente, Trend, Sport eta Titanium. Gainera, sei motor aukera daude: dieselezko bi eta gasolinazko lau.



Iñaki Altuna, *hot magenta* koloreko Ford Fiesta berriarekin. A.E.

**Ford Fiesta 1.25 60 ZP**

| | |
|---|---|
| Prezioa | 11.400 euro |
| Luzera | 3,95 metro |
| Zabalera | 1,97 metro |
| Maletategia | 295 litro[1] |
| Kontsumoa | 5,4 litro /100 km[2] |
| Abiadura | 152 km/h[3] |
| Otik 100era | 16,9 seg. |
| $CO_2$ isurketak | 128 g/km |

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

**EGONKORTASUN HANDIA**

Segurtasunari dagokionez, auto gogorra dela azaldu du Altunak; hau da, bizi osorako autoa. "Tamainaz lehengo autoa baino zerbait handiagoa da; horrek egonkortasuna ematen dio autoari", dio Altunak. "Gainera, heltze oso ona dauka, eta baita direkzioa eta motelgailuak ere", azaldu du Altunak.

Nori zuzenduta dagoen galdetuta, Altunak dio batez ere jende gazteari zuzendutako autoa dela. "Aginte botoi guztiek telefono itxura hartzen dute; hori oso egokia da jende gaztearentzat", dio.

## etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > 'iarantzabal@goiena.com'

# Kultura edukietan dago, euskarria lagungarri da

Aurreko barikuan Danbakako kontzertuan geundela mutrikuar bat etorri zitzaigun eta esan: "Aluzinatuta nago, badakit zer kostatzen den kontzertuak antolatzea eta ekimen honekin flipatuta nago, imajinatzen dut atzeko lana eta antolatzaileak zoriondu gura nituzke".

Hogei urteko lagunaren berbak gustura entzuten dira, kontrakoak entzuteak baino erosoago sentiarazten du bat, baina horri bueltaka egon naiz astean. Arrazoiaren parte bat badu, baina...

Formatu egokia du Danbakak, eta laguntzen du. Espektakulua da eta jendeari gustatzen zaio, zainduta daude argiak, soinua, grabazioa, hutsarteak... baina zer litzateke hori guztia gustuko taldeak entzutea ezinezkoa balitz? Bai, gustukoak, ez derrigor onak.

**"Berdin da zein hedabidetan jardun, edukia da bene-benetan inporta duena"**

Konturatu naiz liburuen formatua alferrik dela edukia ez bada gustukoa, alferrik dela erakusketa gela eder eta zuria barrua hutsik badago, antzeztokiak baliabide askokoak izan arren antzezlanak duela zeresan handiena, berdin dela paperean, irratian, telebistan edo Interneten jardun edukia da-eta balio duena, zelofanak lagundu laguntzen badu ere.

**> Filmotekak, museoak, liburutegiak... gero eta zalantza handiagoz begiratzen ditut. Gero eta antzinakoagoak iruditzen zaizkit. Eduki bila gehiagotan jotzen dut Internetera. Erosoago, bizkorrago, libreago.**

**> Edukia libre dago Interneten, baina topatzea makaleko lana da Debagoienean. Ez dut politikarik antzematen wi-fi librea denontzat izan dadin. Ezer gutxi: kultura etxeren bat, antzokiren bat, tabernaren bat...**

## begi-bistan



**Sekulako kalabazina (Aretxabaleta) 2008/12/04**

**Argazkia:** Manolo Hernandez.
**Testua:** Arantzazu Ezkibel.

Aretxabaletako Manolo Hernandezek sekulako kalabazina hartu zuen ortuan joan den astean. Irudiko kalabazinaren tamaina hauxe da: 110 zentimetro neurtzen du eta 3,5 kilo pisatzen du.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Jone Muxika**
ZIKLISTA

Muxika elgetarrak lehenengo postua eskuratu zuen elite mailan domekan Zeberion jokatutako ziklo-kros lasterketan. Spiuk sarirako puntuagarria zen domekako lehia. Zeberioko zirkuitua oso teknikoa izan zen; eta, gainera, euriagatik lokaztuta zegoen.



**Yera Sanchez**
ZUZENDARIA

Yera Sanchez Huheziko irakasle aretxabaletarrak hirugarren saria eskuratu zuen Kameratoia film laburren lehiaketan. Oso denbora laburra izan zuten Sanchez eta bere lagunek lana egiteko; baina, azkenean, animatu eta *PD: ondo ibili* egin zuten.



**Bixente Pagoaga**
BASERRITARRA

Arrasateko Kulturaten dagoen baserriaren inguruko erakusketan gidari lanetan dabil Pagoaga. 50 baserri ezberdinetatik ekarritako tresnak daude ikusgai Kulturaten. Erakusketa Santamas komisiñuek antolatu du eta hilaren 9ra arte egongo da zabalik.

Gaur, egubakoitza, Garaia Berrikuntza Gunean hitzordua dago hizkuntza gutxituen gaineko jardunaldietarako. Arrasate Euskaldun Dezagun elkarteak (AED) antolatuta, nazioarte mailako adituak gonbidatu dituzte; tartean, Bojan Brezigar, Esloveniarako hiztuna. 'Hizkuntza gutxituak gaur egun, erronkak eta aukerak', horixe da landu dutena AEDren jardunaldiotan.

**Bojan Brezigar** > Esloveniako Gobernuko Kanpo Harremanetako ministroa

# "Independentzia ezinbestekoa izan zen eslovenieraren garapen modernorako"

**UBANE MADERA** > ARRASATE

**Triesten (Italia, 1948) jaiotakoa, kazetaria da lanbidez Bojan Brezigar, baina ibilbide handia dauka hizkuntza gutxituekin lotuta. Italia eta Esloveniaren arteko mugan jaio zen, eta, eslovenieraz ere egiten du berba. *Primorski dnevnik* esloveniarrez idatzitako aldizkariko erredaktoreburu izan zen; 1996tik 2003ra Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoko (EBLUL) arduraduna izan zen. Hizkuntza Gutxituen Komunikabideen Elkartearen (Midas) sortzaile ere izan zen eta gaur egun haren zuzendaritza batzordeko kidea da. Gaur egun, Esloveniako Gobernuko Kanpo Harremanetako ministroa da.**



Bojan Brezigar, Esloveniako Gobernuko Kanpo Harremanetako ministroa. GOIENKARIA

**Oraingo mundu globalizatuan izango dute lekuren bat hizkuntza gutxituek?**

Mundu globalizatuan, hizkuntza askoren etorkizuna, ofizialak diren askorena ere bai, arriskuan dago. Bide batez, ingelesak, espainolak, txinerak eta arabierak badute etorkizuna. Gainerakoak zalantzan daude. Eta pentsatzen dut ahulenak desager daitezkeela. Unescoren ikerketa batek dio gaur egun munduan 6.000 hizkuntza erabiltzen direla eta gutxienez 2.000 desagertu egingo direla mende honetan.

**Europan zela atzematen da hizkuntza gutxituen egoera?**

Europako Kontseiluak asko egin du, baina badakigu kontseilu horrek ez duela benetako boterik. Europako Batasunak (EB) zehaztuta dauka hizkuntza guztiak direla Europako ondare. Hori erabaki garrantzitsua dela uste dut. Europako Batasunak ditu 23 hizkuntza ofizial, eta beste hizkuntza batzuek (euskarak, katalanak eta galeserak) dute posizio partikularra: ez dira hizkuntza ofizialak, baina erabil daitezke. Europan hizkuntza gutxiekiko pertzepzioa badago, baina esan beharra dago sasoirik onena 90eko hamarkada izan zela. Orain, EBko kide berri gehienen artean pertzepzio oso txikia dago.

**Baina bada kezkarik?**

Garrantzi txikiagoa duten hizkuntza gutxituekiko kezka egon badago. Ingelesa, frantsesa, alemana, espainola eta italiera oraindik ez daude arriskuan. Baina danierarekiko, estonierarekiko, eslovakierarekiko eta esloveniarekiko kezka handia dago. Bestelako hizkuntza gutxituen egoera, berriz, zailagoa da: estatu gehienek gutxi egiten dute eta tokian tokiko autonomiek ez dute botererik.

**Eta zehazki euskararen egoera zela ikusten dute?**

Euskarak zortea du, Eusko Jaurlaritza euskararen aldekoa delako. Gobernuaren babesik ez duen lekuetan, berriz, Nafarroan eta Iparraldean, euskararen estatusa eta funtzionaltasuna txikiagoak dira. Horrexegatik da horren garrantzitsua gobernua, zentrala edo tokian tokikoa, hizkuntzarekin kezkatzea.

**Zuk uste duzu, baina, Europak gura edo ahal izango duela hizkuntza gutxituak babestu?**

Ez dakit. Arazoa da ez dagoela Europan politika linguistikorik. Europan lan handia egiten da, baina azkenean laguntzak hizkuntza gutxitu handienetara doaz: euskara, katalana, galesa, frisiera, duecoa (Finlandia) eta irlandera. Hizkuntza horiek babestuta izango dira etorkizunean.

**Zenbat hizkuntza gutxitu daude Europan eta zenbat daude desagertzeko arriskuan?**

Zenbakiak desberdinak dira. Gutxi gorabehera 100 daude. Desagertzeko arrisku handian daudenak izango dira hamar bat-edo. Izan ere, badira hizkuntza batzuk, cornish adibidez, 100 lagunek baino gutxiagok erabiltzen dutena. Oso zaila da horien etorkizuna bermatzea, hiztunak falta direlako.

**Zein erronkari egin behar diete aurre hizkuntza gutxituek?**

Nik uste dut ingelesaren aurka borrokatzeak ez duela zentzurik. Nire ustez, hizkuntza gutxituek leku propioa aurkitu beharko lukete komunitatearen barruan: eskolan, administrazio publikoan eta komunikabideetan. Eta ingelesa erabili beharko genuke bigarren hizkuntza moduan, tokian tokiko estatuko hizkuntza ofizialarekin batera. Modu horretan, hizkuntza ofizialaren eta hizkuntza gutxituaren arteko tentsioa lasaitu egingo litzateke.

**Zein antzekotasun dute euskarak eta eslovenierak?**

Egoerak ez dira antzerakoak. Esloveniera da Esloveniako hizkuntza ofiziala eta hiztunak ere baditu Italian, Austrian eta Hungarian. Hiru herrialde horietan duen egoera euskarak Nafarroan eta Iparralden duen egoeraren antzerakoa da.

**Euskarari dagokionez, gurean hezkuntzan ahalegin handia egin da; ez horrenbeste normalizazioan. Zela ikusten duzu?**

Gauzak poliki-poliki egin behar dira. Hezkuntza garrantzitsua da. Jendeak ez badaki hizkuntza, ez du gura hura erabili, akatsak egitearen beldur delako. Dena den, belaunaldi kontua da. Hizkuntza politikak eragina izaten du 20-30 urtera.

**Zein da eslovenieraren emaitzarik esanguratsuena?**

Europako Batasunak hizkuntza ofizial moduan ikustea oso garrantzitsua izan zen. Baina Esloveniaren independentzia ezinbestekoa izan zen, eslovenieraren garapen modernoaren oinarri osoa izan zen.

**Zein beharko litzateke tokian tokiko gobernuen jarrera?**

Lehenengo eta behin, onartu behar da hizkuntza gutxituak guztion ondare kultural direla, eta mundu guztiak babestu egin beharko lituzke, elizak, monumentuak, tenpluak, estatuak… babesten dituen moduan. Gobernuak politika aktiboa garatu beharko du, ez bakarrik kontserbazio politika. Eta kasu gehienetan hori ez da horrela izaten: gobernuek egiten dutena da modu pasiboan babestu.

**Eta orokorrean partidu politikoen jarrera?**

Haiek botoak gura dituzte. Borrokaren bat baldin badago, ahulenak galdu egingo du. Eta kasu gehienetan, ahulenak hizkuntza gutxituak izaten dira. Egin behar dena da hizkuntza aniztasunaren aldeko giroa sortu, gizarte barruan lan egin eta jendeari azaldu hizkuntza gutxitua ez doala ezeren eta inoren kontra, baizik eta aniztasun kulturalaren zati dela.

EGOERA

**"Unescok dio 6.000 hizkuntza erabiltzen direla eta 2.000 desagertuko direla"**

ETORKIZUNA

**"Euskara, katalana, galesa, frisoia, duecoa eta irlandesa babestuta izango dira"**

EGIN BEHARREKOA

**"Onartu beharko litzateke hizkuntza gutxituak guztion ondare kultural direla"**



zabalik

Urko Lopez

# Finantza ezustekoak

Finantza munduak ez du azkenaldian berri onik emateko ohiturarik. Hala, Bernard L. Madoff finantzari arrakastatsuak 37.470 milioi euroko iruzurra egin omen du, komunikabideetan kaleratutako azken berrien arabera. Kaltetuak aberastasun handidunak izan omen dira, baina hori ikustear dago. Estatu mailan ere egon dira Madoff-enean inbertitu dutenak. Horien artean, Banco Santander (2.330 milioi euro inbertituz) eta BBVA (300 milioi euro) dira azken egunotan hedabideetan atera direnak.

Honako albiste honek agerian uzten du finantza sisteman, batez ere AEBetan, egon den arauketa falta gero eta nabarmenagoa dela. "Txertaketa finantzarioa" azken aste eta hilabeteotako hitz sakratuak izan dira. Dena den, nahiz eta txertaketa hauek beharrezkoak izan, ez dezagun ahaztu txerto hauek gaizki aritzeagatik direla. Gogora dezagun baita, mundu globalizatu honetan, arazoa AEBetan gertatu arren, hemen ere pairatzen dugula.

**"Ez dezagun ahaztu txerto finantzarioak gaizki aritzeagatik direla"**

**"Aldaketa sakonak egin behar ei dira: baina nor hasiko da aldatzen, eta noiz gertatuko da?"**

Gauzak honela, hainbat eztabaidagunetan, are sakratuagoak ari dira bihurtzen honako beste hauek: "Aldaketa sakonak egin behar dira, sistema bera ere aldatuz". Baina, honen ondoren, galdera pare bat datoz: nor hasiko da aldatzen? Nola gertatuko da aldaketa hori?

Bitartean, finantzak beste sektoreetan eragiten duenez, hor dugu krisia, batzuen axolagabekeria, beste batzuen larregiko konfiantza, beste hainbaten gutizia eta beste zenbaiten aurpegi gogorra dela eta.

Diruak diru gehiago dakarrela entzuten ohitu gara. Dena den, azkenean, gure aitonek hainbeste aldiz ziotena ahaztu dugula ematen du: "Inork ez ditu ogerlekoak pezeta baten truke ematen".

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## ERDIGUNE HISTORIKOAN BISITA GIDATUAK

**Arrasateko irakurle batek hauxe komentatu digu: "Lagun talde baten iniziatibaz, Arantza Otadui historialariari eskatu genion Arrasateko herrian zehar bisita gidatua egitea. Benetan interesgarria! Nire galdera da, zergatik Arrasateko Kultura Sailak ez ditu horrelako ekintzak bultzatzen, jakinda herritarrok dugun interesa?".**

Oraingoz, Arrasateko Udalak ez ditu horrelako irteerak edo bisita gidatuak antolatzen. Udaletik Mankomunitateko Turismo Ekintzetarako Zentrora bideratu gaituzte, eta, han esan digutenez, gure irakurleak bazekien moduan, Mankomunitateak eskaintzen ditu horrelako bisita gidatuak.

Horiek egin gura izanez gero, ordea, taldeak aurretik antolatuta egon behar du: gutxienez hamar lagunekoa, eta laguneko euro bat kostatzen da zerbitzua. Eskaera eginez gero, Mankomunitateko teknikari batek herriko alde zaharretik bisita gidatua eskainiko du, toki bakoitzean behar diren azalpenak emanda.

Eskaintza hori urte osoan dauka Mankomunitateak, oporraldi nagusietan izan ezik: hala, Aste Santuan, udan eta Gabonetan ez dute ematen. Bada, eskatzeko epea urtarrilaren 7an irekiko dute berriz.

Eskaera egiteko edo bestelako argibideak eskatzeko, deitu 943 79 64 63 telefono zenbakira.

Bestalde, orain arte AEDk antolatu izan ditu ere horrelako bisitak, doan. Elkartean galdetuta, esan digute "ondo baloratu" dutela ekintza; asmoa badaukatela horrekin jarraitzeko, baina datorren urtean landuko dutela.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## IBARRAKO JESARLEKUAK GARBITZEA, ZEINEN ARDURA?

**Aretxabaletako Ibarra zelaira futbol partiduak ikustera sarritan joaten den irakurle batek kexa hau helarazi digu: "Ibarrako jesarlekuak zikin-zikin egoten dira beti, eta eskuoihal pare bat egoten dira han norberak garbitzeko. Baina hori garbitzea zeinen ardura da? Ez dut uste ikusleona denik...".**

Aretxabaletako Kirol zinegotziarengana jo dugu zenbait herritarrek duten kexa hori komentatzeko. Hark esan digunez, Udala badago horren jakinaren gain. "Enpresa bat daukagu lan hori egiteko kontratatuta", esan digu. Enpresa horrek beste lan batzuei ematen die lehentasuna, eta garbiketa horiek egiteko ez zaie astirik gelditzen. Hala ere, arazo hori dagoela konturatuta, Udala badabil lanean enpresa horrekin, jarduna luzatu eta garbiketa hori egin ahal dezan.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

## Alabak erdaraz egiten dit. Zer egin behar dut?

eibar.org/blogak/sarasua

Asier Sarasua

Maddi oraintxe hasi da gaztelaniaz hitz egiten. Orain arte bizpahiru berba bakarrik ezagutzen zituen, baina orain egun erdia pasatzen dut gaztelaniaz berba egiten. Baita niri ere, eta ez dakit zer egin.

Maddik bost urte bete zituen udan. Ordura arte zeozertxo aitzen zuen erdaraz, eta hitzen batzuk ere esaten zituen, baina ezer gutxi. Lotsatia izanik, gainera, ixil-ixilik geratzen zen erdaldunen aurrean. Baina irailetik hona hasi da lehenengo hitzak eta esaldiak esaten. Egia esan, hain denbora gutxian izateko, polito ikasi du gaztelania. Azentu barregarriarekin, baina ondo moldatzen da.

Hizkuntza berria da beretzat, egoera berriak sortu zaizkio eta poz-pozik dago bere aukera berri horiekin. Grazia ere egiten dio, gainera. Askotan, gaztelaniaz hitz egitera ere jolasten dute lagunen artean.

Lagunen artean ez ezik, etxean ere erdaraz hitz egiten hasi da. Eta ez dakit zer egin. Oraindik ere euskaraz egiten du gehienbat (askogatik), baina gaztelaniak erabat txundituta dauka.

Badakit pasako zaiola, baina bitartean, zer egin behar dut?

- Ezer ez esan eta haria jarraitu? (gehienetan egiten dudana)

- Euskaraz egiteko esan? (batzuetan, aguantatu ezin, eta botatzen diot, bai, purrustadaren bat)

plazara

Edadetuendako egoitzek eta zerbitzuek gero eta azkarrago moldatu behar dute errealitate berrira: batik bat, bizi-itxaropena luzatzen doa, baina nagusiak, askotan, ez dira burujabeak izaten, eta mendekotasunak dituzte. Oñatiko San Martin egoitza moldaketa horren adibide da. Hango arduradun Maite Izagirrek euren ereduа azaltzen du, elkarbizitzan eta zerbitzuan oinarritua.

Sor Maite Izagirre *

# Bizitza eta zerbitzua San Martin egoitzan

Eskatzen didate modu laburrean marraztu dezadan zelakoa den eta zelan bizi garen San Martin egoitzan; helburuak, egoiliarren profila, giroa eta abar.

Gaur egun, ez da oso ohikoa elkarte erlijioso batek zaharren egoitza bat zuzentzea eta bertan bizi izatea. Inoiz ez diot komunitateari nahikoa eskerrak emango eskaintzen didan laguntzarengatik eta baldintzarik gabeko babesarengatik (urre gorrizko taldea da), eta benetan pribilegiatutzat dut nire burua.

Gure kasuan, egoitza ez da lantokia; egoitza eta egoiliarrak gure bizitza dira. Eta gure bizitza, gure zerbitzua, ez da oinarritzen kalitatean, nahiz eta, zalantzarik gabe, hori ere kontuan hartzen den. Gure bizitza–zerbitzua Jainkoan oinarritzen da. Izan ere, fedearengatik dakigu Jainkoa bera dugula zain sufritzen daudenengan, eta horregatik, zerbitzu hori goxotasunez, begikotasunez, errespetuz eta debozioz.

Zein da, bada, gure helburua San Martin egoitzan?

Funtsezko eta oinarrizko helburua egoiliarra da; horregatik, berau ondo hartzeko, errespetatzeko eta elkartasuna adierazteko giroa sortzeko lan egin behar dugu, edadetuak bere burua dimentsio guztietan garatu ahal dezan, bere adinaren berezko mugak bakez eta lasaitasunez integratzen lagunduaz.

Zelakoa da gure egoiliarren profila?

Gure egoitzara ailegatzen den edadetuaren profila guztiz aldatu da. Gaur egun, San Martingo egoiliarren %90ek mendekotasunak dituzte. Orain dela urte gutxi arte, gehienak burujabe ailegatzen ziren; gaur egun, oso nagusi ailegatzen dira, eta oso gaixo egoten dira fisikoki eta psikikoki; horregatik, egoitza goitik behera berritu behar izan dugu, zerbitzu duina eta kalitatezkoa emateko.



MIKEL ARROIABE

Bestalde, 2006ko azaroan, hirugarren solairuan, 15 lagunendako lekua zuen psikogeriatria unitatea ireki genuen, dementziak eta portaera-arazoak zituzten nagusiei laguntzeko; psikologoa, psikiatra eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu. Hala, Arrasateko Buru Osasun Zentroko psikiatra bat hilero etortzen da egoiliarrak ikustera eta, beharrik badago, medikazioa egokitzera; psikologo bat astean bost orduan egoten da eurekin; eta denbora libreko begiralea ere badaukate. Horrez gain, gela guztiak telebista-zirkuitu itxi baten bidez zaintzen ditugu; hori guztia, psikogeriatria unitateko gaixoak ahalik eta ondoen egon daitezen.

> **"Funtsezko helburua egoiliarra da; bera ondo hartzeko eta errespetua adierazteko lan egin behar dugu"**
>
> **"Gure egoitzako edadetuen profila guztiz aldatu da: egoiliarren %90ek mendekotasunak dituzte"**

Zelakoa da San Martin zaharren egoitzako eta horren inguruko giroa?

San Martin egoitzaren inguruan atentzioa gehien deitu didana giroa da. Ikusi dut Oñatin nagusienganako errespetu eta maitasun handia dagoela, eta horrek herri moduan ohoratu egiten du eta nire errespetu eta miresmen osoa merezi du. Nagusiek egunero-egunero izaten dituzte senideak bisitan; batzuetan, egunean birritan ere. Horrek giro beroa eta familiartekoa sortzen laguntzen du; denon etxea da. Bestalde, eskerrak eman behar dizkiet ere urte osoan ospakizunetan parte hartzen duten guztiei: Nagusiaren Astea, Gabonak, eta abar; dena, modu eskuzabal eta doakoan.

Azkenik, Udalari eta egoitzako batzordeari eskerrak eman behar dizkiet, euren laguntza eta ekarpen handiagatik izango ez balitz, gaur egungo kalitate mailari ezin izango geniokeelako eutsi.

*Neure lagun-hurko hauetako bati egin zeniotena neuri egin zenidaten.*

*Oñatiko San Martin egoitzako asistentzia-zuzendaria da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Gabonetan bidaiatuko duzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %33,3 |
| EZ | %66,7 |

**> FAMILIA GIROAN**
Gabon egunak familia giroan pasatzea dut gustuko. Gainera oparietan dirua gastatzen badugu egun horietan bidaiatzeko ez dago dirurik...
**Joseba**

**> ESKIATZERA JOANA**
Ni eskiatzera joan naiz eta horrekin nahikoa bidaiatu dut negu honetan. Poltsikoa be ez dago poztasun askotarako, eta gainera Gabonak familiarekin egoteko dira.
**Saioa**

**> BIDAIATXO BAT**
Niri gustatuko litzaidake bueltatxo bat edo egitea, baina urrutira joan gabe. Oporrak luze samarrak dira eta oraindik langabezian ez nagoenez... orain oraingoak!
**Ixone**

**> HERRIAN, ONDOEN**
Eztauket iñora juen biharrik ondo pasetako. Herrixen be ondo gustora egoten da gabonetako oporretan, giro politta eta enkantu haundikua eukitten dogu.
**Txema**

**DATORREN ASTEKOA: 2009. urtearekiko baikor zara?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

- Kontzientziazio kanpaina. Kantuak dioen moduan, "gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak". Lan hori egin beharra dago? Nik ez dut gogoratzen horrelakorik etxean. Beharbada aitxitxa bien aldetik, baina ez gurasoen aldetik. Beharrezkoa da? Zer eta nola?

Badakit horren inguruko hainbat ikerketa eta hitzaldi antolatuko zirela. Eta txostenak ere ehundaka, seguru. Ni neu jakin ezta zer egin nago; edo, hobeto esanda, zain. Zain nago, ea datozen asteotan zer gertatzen den. Egoera interesgarria da. Soziolinguistika domestikoa.xx.

## Kriminalaren itzulera

**Anjel Lertxundi**
berria.info/blogak/lertxundi

Kriminala krimenaren eszenatokira itzultzen omen da beti. Itzuleraren arrazoiak asko izan daitezke (...). Usuena: kriminala beldur da arrastoren bat utzi ote duen, eta haiek ezabatzeko hartzen du itzultzeko arriskua. Bigarrena: kriminala bere obraren handia gozatzeko itzultzen da krimenaren eszenara. Ez dut gogoan krimenaren damuak eragindako itzulerarik nik irakurritako nobela beltzetan.

Bush Irakera itzuli berri da. Bere azken bidaia ofiziala izango da. Espero zitekeen krimenen damuz itzuli dela, aitortu berri baitu oker zegoela suntsipen masiboko armei dagokionez, baina tropak arengatzen ikusi baitugu, ez du damuak eraman. Ez da, ezta ere, krimenaren arrastoak ezabatzera itzuli: itsasoa goldatzea baino ekintza ezinezkoagoa luke.

Itzulerak, bada, bakarra du arrazoia: Bushek harro segitzen du kriminalaren zapatetan.

koplak

Enaitz Alustiza

## Madoff & Co.

Nago umore txarrean
haserre ta negarrean
berrehun miloi galdu ditut
Madoff-en iruzurrean.

Baina ez nadila kexa!
binisten ez zen erreza
askotxo zen ehuneko
hamarreko interesa.

Nahiz sortzen didan zirrara
esaten dutenez hara
orain gertatzen den dena
krisiaren errua da.

EREak jaun eta jabe
zenbat kaleratze grabe…
baserrira goaz bueltan
gure arbasoen pare.

Baratza eta ahuntz gazta
ordenadoreak basta!
hobeto biziko gara
nahiz ta gutxiago gasta.

Gaude krisian aurrean
ezer egin ezinean
amaituko baita sortu
zutenek nahi dutenean.

# AHT Gelditu! Elkarlanak AHTren oposizio sozialaren zilegitasuna berresten du

**Mila Elortza**
(AHT Gelditu! Elkarlanaren izenean)
Bergara

AHT Gelditu! Elkarlanaren iritziz, Inazio Uriaren heriotza eragin zuen atentatuak, eragin zuzena izan du, bai pertsonengan, zein taldeengan, oro har, AHTren aurkako mugimendua osatzen dugunongan. Ezusteko saltoa izan da. Atsekabea sortu duen gertaera da eta AHT Gelditu! Elkarlana osatzen dugun talde guztien artean eztabaida sakona egitera bultzatu gaituena. Eztabaida horrek denbora eta ahalegin handia eskatu digu eta aipatu denbora hori, hausnarketarako ez ezik, talde eta kolektibo guztien artean zabaltzeko erabili da. Horrelako eztabaida egin ahal izateko, beharrezkoa izan da, noski, proiektu honek ingurumenean, nekazaritzan, gizartean, ekonomian eta lurraldean eragingo dituen kalte larrien jabe izanda, AHTren aurkako oposizioa osatzen dugun kolektibo, sindikatu, talde politiko eta sozialen aniztasuna eta sentiberatasun pertsonalen pluraltasuna kontuan edukitzea.

Lehenengo eta behin, garbi utzi nahi dugu AHT Gelditu! Elkarlanak bere autonomia defendatzen duela mugimendu sozial gisa eta orain arte erabili dituen borroka-molde eta bideak berresten dituela. Aipatu bide horiek proiektu suntsitzaile honen ondorioak eta izaera inposatzailea gizarteratzea, mobilizazioak eta desobedientzia zibila bultzatzea eta udalen oposizioa laguntzea baino ez dira izan. Molde eta bide horiek berresten ditugun momentutik, Azpeitiko gertaeretatik desmarkatzen gara eta oso garbi geratzen da jorratzen ari garen bideak ahalik eta partehartze sozial zabalena biltzen duela, bide baketsuak erabiliz; horren erakusle, 2001ean, herri-mugimendua sortu zenetik, gehiengo sozial eta sindikalaren babesa jaso izana. Zentzu horretan, hainbat komunikabide eta ordezkari politikoren jarrera salatu nahi dugu, orain arte AHTren aurkako mugimenduak aurkeztutako arrazoiak kontuan hartzeaz ez baitira arduratu ere egin, ez eta gizartean eman den eta ematen ari den eztabaida sakona islatzeaz ere. Gainera, jazarpen mediatikoa eta AHTren aurkako mugimenduaren kriminalizazioa areagotzen dituen saiakera lotsagabean jarraitzen dute. Horregatik guztiagatik, ezin dugu onartu AHTren aurkako mugimendu sozialaren zilegitasuna zalantzan jartzea eta berau errespetatua izatea exijitzen dugu.

Eragile politiko, ekonomiko, sozial, sindikal eta instituzional guztiei eskatzen diegu hausnarketa sakona burutzea, AHTren gatazka orain dagoen egoerara eraman duten arrazoien inguruan, eta funtsezkoa iruditzen zaigu inplikatuta dauden eragile guztiak eta gizarteak, oro har, AHT gelditzeko eta eraldaketa soziala bultzatzeko zilegizko bide eta molde eraikitzaileen inguruan eztabaidatzea. Egoera hau proiektuaren inposizioa areagotzeko erabili nahi duen klase politikoaren zentzugabekeria salatzen dugu eta hain erantzuna izan den proiektuaren inguruan zentzua erabiltzeko deia egiten diegu, batez ere, oposizioaren eskutik garatu diren arrazoien inguruan beharrezkoa den eztabaida burutu dezaten.

Azken gertaerak herri-mugimenduaren aurkako balizko bide errepresiboak irekitzeko erabiltzearen ideia lehenbailehen baztertzea exijitzen dugu, eta nabarmendu nahi genuke, lehenik PPk eta ondoren PSOEk egindako mehatxuak AHT Gelditu! Elkarlana estrategia politikoen jokoan nahastea besterik ez dutela bilatzen. Ez gaude ados joko horrekin eta guri ez dagokigu joko horretan sartzea, AHTren aurkako mugimendu hau izaera anitza eta bateragarria izateko asmoz sortu baitzen eta oinarri horrekin jarraitzen baitu. Gure kezka agertu nahi dugu, honek guztiak mugimendu sozialean eta gizartearen osotasunean eragiten dituen ondorio kaltegarriak gizarteari adieraziz. Argi utzi nahi dugu muturreko egoera honetara iritsi izana ez dela gure ardura izan, egin dugun gauza bakarra gardentasuna eskatzea, aurkakotasuna bideratzea eta ezarri diguten boikot mediatikoaren gainetik gure ahotsa entzunaraztea izan baita.

Honaino, AHT Gelditu! Elkarlanak egin duen hausnarketa, kontutan izanda bertan parte hartzen duten kolektibo eta pertsonek euren hausnarketa propioak egin ditzaketela.

Beraz, AHT Gelditu! Elkarlanak orain arteko bideari eutsiko dio eta orain arte erakutsi duen indarrarekin proiektu hau gelditzeko asmoz, instituzioetatik inposatzen ari diren garraio, garapen, lurralde antolaketa eta gizarte-eredua zalantzan jarriz. Horregatik, hurrengo hilabeteetan deituta ditugun mobilizazioetan parte hartzeko deia egiten dugu.

# Natura-bide egokitua

**Jose Ruiz Fajardo**
(Oñati Ezkerretik)
Oñati

Azaroaren 26an pertsona elbarriei egokitutako lehen basabide gipuzkoarra ireki zen Arantzazun. Bide hau eremu natural eder batean kokatzen da Arantzazu eta Gomistegiko artzain eskola artean.

Egia bihurtutako ametsa da ideia hau: oztopo natural eta arkitektonikoak gainditzen dituena; pertsona guztiok, inolako bazterketarik gabe, naturaz gozatu ahal izateko. Bide batez, proiektu hau gauzatu duten instituzio eta pertsona guztiak zoriondu nahi ditugu.

Oraindik, ordea, bigarren zati batean egingo den ibilbideko azken zatia falta da eraikitzeko eta gehiegi ez atzeratzea espero dugu, guztiok ibilbide osoaz gozatu ahal dezagun, bide batez jendea bertaratzeko animatuz.

Hala ere, oraindik ez dago irisgarritasun zuzenik santutegiko zelaigunetik. Berau ikerketa fasean omen dago eta behin-behineko konponbide bezala ibilbide hasieratik markatu gabeko aparkaleku bat egokitu dute eta errepidetik jarraitu beharreko ibilbidea ere seinaleztatu gabe dago.

Lerro hauen bidez gure nahia adierazi nahi dugu, ea lehenbailehen santutegiko zabalgunetik ibilbidea egiten den, bigarren zatiko obrei itxaron gabe.

# UNEDen kokapenaren gainean

**German Muruamendiaraz**
(Bergarako EAJ-PNVko Udal Taldearen izenean)
Bergara

Bergarako EAJ/PNVko Udal Taldeak, BLH (Bergarako Lorategi Historikoak Ekimena) taldeak GOIENKARIA astekarian egindako adierazpenei erantzun nahi diegu.

Artikulu horietan emandako argudioei erantzun aurretik, gure protestarik biziena azaltzen dugu kritika egiterakoan erabilitako tonu eta hizkeragatik. Ulertzen eta onartzen dugu desadostasuna hain gai sentibera eta konplexuetan, baina ez erabili duten hizkera.

Erabilitako argudioei buruz, eta UNEDen kokapenaz eta Arrizuriaga Jauregiaren erabileraz, behin eta berriro gure jarrera adierazi gabe, bai zehaztu nahi ditugula ondorengoak:

1. UNEDek proiektu biribila du bere egungo kokalekuan, eta, beraz, ez dago eztabaidan bere etorkizuna Bergaran. Beste kontu bat da leku hobeagora aldatzeko izan dezakeen nahia, bere ikuspegitik oso ulergarria. Jakina, UNEDek berari komeni zaiona aukera dezake, baina guk ere planteatu beharko dugu ea UNEDek nahi duena onena den edo ez Bergarako herriarentzat.

2. Gai ekonomikoa oso gai garrantzitsua iruditzen zaigu, bai, eta honelako operazio baten aurrean, analisi ekonomikoak ezinbestekoak dira eta erabakigarriak izan daitezke. Jakina denez, inolako erabakirik hartu aurretik, operazioaren beharra, balorazioa eta finantziazioari buruzko txosten tekniko-ekonomikoa egiteko eskatu zaio Udalari.

3. Arrizuriaga eraikina handiagotzea eta lorategiaren kultura-balioak gordetzea guztiz bateragarriak izan daitezkeela, zalantzan jartzen dugu, baina handiagotze horren garrantziaz eta ezaugarriez behar hainbat informazio ez dugunez, ez dugu horretaz jarrerarik hartuko.

Idatzi honekin zenbait puntu argituko genituela espero dugu.

## OHARRA

Gabonetako oporrak direla-eta etena izango dugu irakurleokin. Oraingo astelehenean, 22an, argitaratuko dugu *Asteleheneko Goienkaria*; abenduaren 26an, *Urtekaria 08*, urteko albisteen errepasoa herriz herri; ondoren, urtarrilaren 9an, argitaratuko dugu berriro Egubakoitzeko GOIENKARIA eta 12an astelehenekoa. Ondo pasa jaiegunak eta urte berri on!

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**




Erabili txartelak,
puntuak bildu eta aukeratu zure oparia.
Ordaindu kutxaren zure kreditu-txartelekin eta zure oparia hementxe ikusiko duzu: www.kutxa.net.
Philips LCD TDT
26" telebista
Spinning bizikleta
iPod Nano 8Gb
MAGEFESA
sukaldeko tresneria
Philips mikrokatea,
MP3 eta USBrekin
Guijueloko
beso Iberikoa
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa
Sustapen hau MasterCard Urdina, Visa Corporate, Visa Classic, Visa Urrea eta Visa Gazte txartelentzat da baliozkoa. Oparien katalogoa eta oinarriak www.kutxa.net-en eta zure bulegoan.

# Jatetxe Gida



## Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA
943 71 45 66 www.hotelazkoagaenea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua




## Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

**Eskaintza**
- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

**Berezitasuna**
- Arraina eta haragia parrillan

**Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.**



## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

**Eskaintza**
- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Igandeetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Santa Ana

Uribarri 37 (Udala bidean) / ARRASATE
Tel.: 943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

**Eskaintza**
- Terraza eta barra
- Menu bereziak
- Karta
- Errazioak eta bokatak.

**Igande gauean itxita.**

**Ezkontza, despedida eta kintoen bazkarientzat leku aproposa**



## Torrekua

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak



## Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**




## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**




**> ARRASATE**
Ferixalekuko igogailua egiten hasiko dira otsaila baino lehen **> 18**





**> ARETXABALETA**
'Jotzeko prest' pala txapelketako finala jokatuko dute gaur, egubakoitza **> 32**





**> OÑATI**
San Martingo 45 etxebitiza udaberrian zotz egingo dituzte **> 33**





**> ARAMAIO**
Himalaiarako mendi espedizio baten gaineko emanaldia **> 38**


**ARETXABALETA** > AZPIEGITURAK

# Azken ukituak eman ondoren, bihar inauguratuko dute Herriko Plaza

**ZUHAITZAK**
Herriko plazan sei arte landatu dituzte, lehen zeuden platanondoen ordez

**IRISGARRITASUNA**
Durana kaletik plazara igotzeko eskaileren alboetan bost metroko bi arrapala jarri dituzte




Asteon egin dituzte Herriko Plazako eraberritze lanen azken ukituak. Metalezko hesiak kendu eta zuhaitzak landatu dituzte, besteak beste. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > ARETXABALETA

Hasieran zehaztutako epea baino hilabete beranduago bukatu dituzte Aretxabaletako Herriko Plazako eraberritze lanak. Azken ukituak egin dituzte, eta bihar egingo dute inaugurazioa. Ekitaldi ofizial barik, baina umeendako puzgarrien kontura bilduko dira aretxabaletarrak Herriko Plazan.

Asteon buru-belarri ibili dira Arrasateko Aikia eta Besaide enpresek osatutako aldi baterako elkarteko langileak lanean. Astelehenean bukatu zitzaien lanak egiteko epea. Eguaztenean plaza zeharkatu eta Kurtzebarri eskolara joateko bidea zabaldu zuten. Bestalde, azken orduetan metalezko hesiak kendu dituzte, eta dagoeneko arazo barik ibil daiteke Aretxabaletako plazan.

**ZUHAITZ BERRIAK**
Martitzena eta eguaztena bitartean landatu zituzten plazako zuhaitz berriak: hain zuzen ere, sei arte landatu dituzte, aurretik zeuden platanondoen ordez. "Platanondoak kendu genituen plazan behar bezalako arrapalak egitea eragozten zigutelako. Oraingo honetan arteak jarri ditugu", dio Aretxabaletako alkate Inaxio Garrok. Aretxabaletarrek proposatu zuten platanondoak beste leku batera eroatea, baina udalbatzak ez zuen onartu.

Lan gehiena bukatuta dagoen arren, Herriko Plazako eserlekuak jartzea falta da. Datozen egunetan jartzea aurreikusten dute udal arduradunek.

**ITXURA BERRIA**
Plaza eraberritzeko lanak martxoaren 25ean hasi zituzten, eta Aikiak eta Besaidek osatutako aldi baterako elkarteak zazpi hilabeteko epea zuen lanok egiteko. Baina, hilabete atzeratu dira. "Azken orduan izan dituzte arazoak", esan digu alkateak; "Andaluziako harrobitik ekarri beharreko materialarekin arazoak eduki dituzte, eta horrek atzerapena ekarri du. Dena den, azken asteotan buru-belarri ibili dira lanean".

Aretxabaletako plazak itxura berria du, aurrekoarekin alderatuta. "Plaza konpontzeko beharra genuen, eta egin dugu. Baina, orain, guztion artean zaindu behar dugu", esan digu alkateak.

Proiektua egiterako orduan irisgarritasunari lehentasuna eman zioten udal arduradunek. Hala, Durana kaletik igotzeko eskailera bakarra jarri dute (lehen bi igoera zeuden), eta bi alboetan bost metroko bi arrapala jarri dituzte. Ondorioz, plaza berria, zabaleran lehengoa baino 10 metro txikiagoa izango da. Bestalde, eliza aurrera ematen duten arkupe inguruak begiratoki itxura du. Gainera, plaza eta arkupeak altuera berean jarri dituzte.

**MERKATARIAK, HASERRE**
Herriko Plazako merkatariak oso haserre daude lanekin. "Kalte handiak izan ditugu. Hiru astetan inkomunikatuta egon gara, eta bezeroek eta herritarrek ez dute plazarako sarbiderik izan", esan digu Maria Jesus argazki dendako nagusiak.

Iritzi berekoa zen Juan Fraile farmaziako Loli: "Oso gogorra izan da. Baina gure bezeroak bihotzez eskertu gura ditut, farmaziara sartzeko izan dituzten oztopoak izanda ere, etorri direlako".

Herriko Plazako zazpi merkatariei uraren eta zaborraren tasen erdia kobratuko diete 2009ko lehen hiruhilabeteetan, kalteak murrizteko. "Ez da nahiko. Galdu duguna asko gehiago da", diote.

DATUA

**9**
**HILABETE**

Lanak martxoaren 25ean hasi zituzten. Zazpiko epea zuten baina bederatzi bat iraun dute, Andaluziako harrobitik ekarri beharreko materialak atzerapena eragin zuen.

ESANAK

**"Herriko plaza konpondu egin dugu, baina orain guztion artean zaindu behar dugu urte asko iraun dezan"**

**Inaxio Garro** > Alkatea

## Puzgarriak jarriko dituzte bihar goizean

Herriko plazako lehenengo ekitaldiak umeendako izango dira. Hain zuzen ere, bihar arratsaldean puzgarriak jarriko dituzte. Besteak beste, ohe elastikoak, gaztelu puzgarriak eta jokoak jarriko dituzte Herriko Plazan. 11:00etatik bazkal ordura arte hainbat joko egingo dituzte. "Biharko ekitaldia umeen eta gurasoen topaleku izatea gura dugu. Herriko Plaza berritua inauguratzeko modua izango da, ekitaldi ofizial barik, baina herritarren parte-hartzearekin. Ea, eguraldiak laguntzen digun!", esan digu Inaxio Garro alkateak.

Alkateak esan digu Gabonetan ez dutela ekitaldi berezirik egingo plaza berrituan. "Orain arte ez dugu ekitaldirik egin plaza zaharrean. Baina, etorkizunean, batek daki..."

## zerbitzuak

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 20 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Domeka, 21 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Astelehena, 22 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Martitzena, 23 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Eguaztena, 24 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Eguena, 25 | Español | Araba Etorbidea, 14 | 943 79 18 65 |
| Egubakoitza, 26 | Ruiz | Nafarroa Etorbidea, 1 | 943 79 14 09 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 20 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 21 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 22 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 23 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 24 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 25 | Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 26 | Urrutikoetxea | Oxirondo, 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 20 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 21 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Astelehena, 22 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Martitzena, 23 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguaztena, 24 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 25 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 26 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 20 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 21 | Anitua | Belorrieta, 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 22 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 23 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 34 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 25 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 26 | Juan Fraile | Herriko Plaza, 10 | 943 79 21 99 |

### TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

**OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA (Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 03 54 00
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....943 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### URBANOAK

**ARRASATE**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

**BERGARA**

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

**ARAMAIOKO AUTOBUSA**

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 20**
Giroa egonkorra izango da, baina hotza eta behe-lainoa nagusi izango dira. Zerua hodei gutxirekin, tenperatura maximoa 9 eta 13 gradu artean.



**Domeka, 20**
Tenperaturak behera egingo du, maximoa ez da 11 gradutik pasatuko, eta hotz egingo du. Eguzki tarteak ere egongo dira, hala ere.

### EUSKAL HERRIAN

Asteburuko tenperaturak mantendu egingo dira astean zehar Euskal Herri osoan, eta hodei tarteak desagertu. Eguzki izpiak nagusituko dira martitzenetik aurrera. Ez du euririk egingo, baina haizeak ekialdetik joko du. Aste osoan zehar ez da aldaketa handirik izango.



### TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena,15 — **1 ºC**

**MAXIMOA** Egubakoitza, 12 — **9 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **82,4 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 10** | 5 ºC | 3 ºC | 31,6 l/m² |
| **Eguena, 11** | 7 ºC | 2 ºC | 3,7 l/m² |
| **Egubakoitza, 12** | 9 ºC | 3 ºC | 1,5 l/m² |
| **Zapatua, 13** | 8 ºC | 5 ºC | 22,8 l/m² |
| **Domeka, 14** | 7 ºC | 2 ºC | 16,8 l/m² |
| **Astelehena, 15** | 9 ºC | 1 ºC | 3,1 l/m² |
| **Martitzena, 16** | 8 ºC | 2 ºC | 2,9 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

### ILARGIA ABENDUAN



| Ilgora | Ilbete | Ilbehera | Ilberri |
|---|---|---|---|
| 5 | 12 | 19 | 27 |

## oharrak eta deialdiak

ARRASATE
**> Nortasun Agiria egiteko aukera**
Nortasun Agiria egiteko aukera izango da urtarrilaren 27an eta 29an. Bi egunetan norbera joatea derrigorrezkoa da. Txanda aldez aurretik hartu behar da, BAZen (943 25 20 00).

BERGARA
**> 1943an jaiotakoek loteria erosi dute**
1943an jaio eta urriaren 25ean Hondarribiara irteera egin zutenek honako zenbakiekin jokatzen dute loterian: 21.705 eta 81.943.

ARRASATE
**> Egitarau berezia gazte txokoetan**
Gazte txokoek Gabonetako ekintzak antolatu dituzte. Abenduaren 26an, gazte txoko guztiak irekiko dituzte, 17:00etatik 20:00etara. Besteak beste, paint-ball egitera irteera (hilak 28) eta Gasteizko izotz pistara irteera (hilak 29) antolatu dituzte, eta horietarako izenematea zabalik dago gazte txokoetan edo Txatxilipurdin.

ARETXABALETA, ESKORIATZA
**> Gaztelekuen irteeretarako izenematea**
Gaztelekuek hainbat ekintza antolatu dituzte abenduaren 26tik urte bukaera arte. Beste batzuen artean, izotz pistara joango dira abenduaren 26an eta paintball egitera abenduaren 29an. Izenematea zabalik dago gaztelekuan, Txatxilipurdin edo Gazteria bulegoan.

DEBAGOIENA
**> Hiruatxeko bi kooperanteren hitzaldia**
Hiruatx GKEko bi kooperantek Ekuatore Ginean duten proiektuaren gaineko berriak emango dituzte urtarrilaren 7an, Arkupen, 19:30ean. Edozein modutan, proiektu horri laguntzeko kontu korronte hauek ditu Hiruatxek: 3035 0002 15 002 003 6568 (Euskadiko Kutxa) eta 2101 0024 11 012 353 45 88 (Kutxa).

ARRASATE
**> Hainbat ikastaro izango dira ludotekan**
Txatxilipurdik hainbat ikastaro antolatu ditu ludotekan abenduaren 29tik 31ra. Bestalde, jakinarazten dute ludotekak itxita egongo direla gaur, abenduak 19, hasi eta abenduaren 28a arte, biak barne.

BERGARA
**> Gabonetarako apaindutako balkoiari saria**
Gabonetako apaingarriekin ondoen edo dotoreen txukundutako balkoiari saria emango dio Bedelkar merkatarien elkarteak. 150 euroko erosketa-abonua emango du, hain zuzen ere. Sari banaketa abenduaren 23an egingo dute, kultura etxean, 15:30ean.

ARRASATE
**> Hizkuntza gutxituen gaineko jardunaldiak**
AEDk antolatuta, *Hizkuntza gutxituak gaur egun, erronkak eta aukerak* delako jardunaldia izango da gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Garaia Berrikuntza Gunean. Esloveniaco, Kataluniako, Galiziako eta Euskal Herriko adituek egingo dute berba. Bihar, zapatua, Kulturaten, *Euskara elkarteen arteko topaketak* delako jardunaldia egingo dute. Argibideak, 943 77 12 28 telefonoan.

ARRASATE, ARETXABALETA
**> Sahararen aldeko produktuak batuko dituzte**
Nubi eta Iesbaa elkarteek V. Piztu Itxaropena elikagai bilketa kanpaina hasi dute. Arrasate eta Aretxabaletako zenbait dendatan honako produktuak batuko dituzte Tindoufera bidaltzeko: hegaluzea oliotan, sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, lekaleak eta konpresak.

ARETXABALETA
**> Psikoterapia, meditazioa eta yoga**
Honako ikastaroak eta tailerrak emango ditu Aretxabaletako Yoga eta Psikoterapia Taldeak urtarrilean: psikoterapia eta norbere buruaren garapena, eguaztenetan, 19:30ean; meditazio eta thailandiar masajea, hilaren 17an, 10:00-14:00; eta yoga eta norbere hazkuntza, urtarrilaren 10ean, 10:00-14:00. Argibideak: 616 96 57 95.

BERGARA
**> Patchwork eta antzerki ikastaroak, aukeran**
Bergarako Udalak patchwork eta antzerki tailerra antolatu ditu, urtarriletik martxora. Izenematea zabalik dago kultura etxean.

ARRASATE
**> Elikagaien krisi globalaz hitz egingo du EHNE-ko Paul Nicholsonek gaur, egubakoitza**
Elkarhezitzen Debagoieneko Garapenerako Hezkuntzarako Lan Taldearen jardunaldien barruan, Paul Nicholson EHNE sindikatuko eta Via Campesina erakundeko kideak *Elikagai krisi globalaren aurrean: elikagai subiranotasuna* delako hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, Kulturaten, 19:00etan.

**943 25 05 05**
**goienkaria@goiena.com**

kale inkesta

# Herri mailako pilota txapelketan zer moduz ibili zarete?



**Gorka Arizmendiarrieta**
Parte-hartzailea
Elgeta

"Pozik gaude, finalerdietara iritsi gara-eta. Giro ona sumatu dut partiduetan. Hasieran gaizki ibili ginen eskuekin, baina takoak ondo ipintzen ikasi genuen eta orain hobeto ari gara".



**David Peñalver**
Parte-hartzailea
Elgeta

"Pilotan ibilitakoak gara eta nabaritu egiten da, baina ondo pasatzea da gure helburua. Parte-hartzaileen eta ikusleen aldetik erantzun oso ona egon dela uste dut. Nik jarraipena emango nioke".



**Fernando Zenitagoia**
Parte-hartzailea
Elgeta

"Bi kategoria izan ditugu aurten eta horrek gauzak konplikatu egin ditu antolakuntza aldetik, baina pozik nago. Nire iritziz, Ugarteburu eta Zubiaurre izan dira sorpresa gure kategorian".



**Enrike Elkoro**
Parte-hartzailea
Elgeta

"Fenomeno, finalerdietarako sailkatu gara-eta. Jendea ere ibili da frontoian. Peñalverrek eta De Vegak irabaziko dute. Guk zaila daukagu, baina izerdi pixka bat bota beharko dute aurkariek".



**Iñaki Ugarteburu**
Parte-hartzailea
Elgeta

"Erregularrak izan gara eta aurten lesioek gorabehera handiak eragin dituzte. Parte-hartze handia egon da aurten, eta Elgeta moduko herri txiki batendako gauza handia da hori".

txistuak



JUANITA AGIRREZABAL

## Galtzada-harriaren egoera eskasa Osintxun

Aste honetan Bergarako Osintxu auzotik bidali digute kexa. Gure irakurleak dio zubiko galtzada-harria eskuz jarri dutela eta harri puntaz eta lokatzez osatutako pasabide bilakatu dela. Ondorioz, bertako lurra irregularra eta oso arriskutsua dela adierazi digu, eta gehitu du horrek arazo asko emateaz gain hainbat pertsonaren istripuak ere eragin dituela.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

**45**

Oñatiko San Martin guneko babes ofizialeko 45 etxeren zozketa udaberri aldera egingo dute. Eta behin-behineko zerrenda kaleratu dute dagoeneko Gipuzkoako Buletin Ofizialean; edozelan ere, alegazioak aurkez ditzake nahi duenak urtarrilaren 20ra arte.

usteak uste

Monika Belastegi

## Bideko zailasunak gaindituz

Ekitaldi ugari dago aste bukaeran Bergaran. Herriko abesbatzen kontzertuak direla, bandarenak... Gabonen atarian areagotu egiten da ikuskizun kopurua, eta horren isla da oraingo aste bukaera.

Artisau azoka, gaztainerrea, Gabonetako kontzertua... etxean ez gelditzeko moduko kultura egitaraua prestatu dute Udaleko Kultura sailak zein herriko hainbat taldek.

Hain justu, talde horietako bat aipatu nahiko nuke: San Antonio auzoko Gure Ametsa elkartea. Aste bukaerarako antolatu dituzte Napar Feria eta txistorra dastatzea, besteak beste. Horiek asteburu honetarako, baina urtean barrena beste hainbat ekitaldi ere antolatzen dute.

Auzoetako giroa gainbehera etorrita dagoen garai hauetan txalogarria da ikustea auzoarendako eta auzotarrendako –eta luzapenez, gainerako herritarrendako– lan egiten duen jendea egotea.

Orain beste proiektu bat dute eskuartean. 1996an auzoan zegoen ermita eraitsi egin zuten eta hura ordezkatuko duen berria egin nahi dute. Non kokatu badute, eta baita proiektua ere, baina zailtasunak aurkitu dituzte bidean. Seguru gaindituko dituztela.

5 galdera...

## Yolanda Sanchez

Sikol lentzeria dendakoa
Arrasate

**1. Gabon jaiak gainean ditugu dagoeneko. Nabari duzue dendan jendea erosketak egiten hasi dela?**
Gure bezero asko zuhurrak dira eta ez dute azkeneko egunera arte uzten. Modu horretan, aukeratzeko ere gehiago daukate eta behar duten hori erosten ere gehiago lagun diezaiekegu.

**2. Zer da aurtengo izarra oparitan gizon eta emakumeendako?**
Aukera zabala dago. Pijama, zer erosi jakin ez eta egoera horretan erosten zen artikulu bat izatetik, bezeroek asko baloratzen duten jantzia izatera pasa da, prezioa ere ona delako. Gizon, emakume zein umetan, barruko arropak kanpoko arropak bezainbesteko garrantzia edo handiagoa dauka.

**3. Gizonek gaur egun moda ere hartzen dute kontuan. Lentzeria kontuetan ere gauza bera gertatzen da?**
Gizonezkoetan, barruko arropak garrantzi berezia hartzen du. Koloreak ere ugariak dira; eta, askok uste dutenaren kontra, gizonezkoei ere asko gustatzen zaie barrutik dotore eta eroso joatea.

**4. Eta zeintzuk dira aurten modan dauden arropa eta koloreak?**
Kalitateari dagokionez, zuntz naturalak dira gehien erabiltzen direnak: besteak beste, lenpurra, banbua eta modala. Horrelakoak probatzen dituenak ez du besterik nahi izaten. Betiko zuria eta beltza alde batera uzten dira eta nahasketak dira orain eramaten direnak: beltz eta gorria, zuri eta grisak, urre kolorekoak...

**5. Zuk, lentzerian aditua izanda, zer da gomendatuko zenukeena opari moduan erosteko neskek mutilei eta alderantziz?**
Gizonendako, kamiseta eta *boxer* bikotea preziatua da; eta emakumeetan, berriz, konjuntoa eta kamisoiak, besteak beste.



**AZPIEGITURAK** > GOIKO AUZOETARAKO IGOGAILUAK

# Otsaila baino lehen hasiko dituzte Ferixalekuko igogailuaren obrak

Inbertsio handia egin beharko dute erakundeek: 2.118.658 euro; epeei dagokienez, berriz, urtebetean bukatuta izan beharko dute guztia

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Laster ikusiko ditugu obrak Ferixaleku-Altamira inguruan, osokoak onartutakoaren arabera, otsaila baino lehen hasi beharko duteeta lanean. Behin hasita, urtebetean bukatuta izan beharko dituzte. Bi milioi euro pasatxoko inbertsioa egingo dute.

**IGOGAILU BI**

Bi igogailu eraikiko dituzte: batek lotuko du Otalora kalea Altamirara bidean dagoen Gernika pasealekuarekin, eta besteak lotuko du pasealekua Jose Luis Iñarra kalearekin.

Esan beharra dago, hori bai, gauzatuko duten proiektua ez dela hasierakoa, aldaketak egin dizkiote-eta, "hobetzeko".

**KOKALEKU BERRIA, EZKERRERAGO**

Adibidez, igogailuaren kokalekua aldatu egin dute. Hasierako proiektuaren arabera, Amaia Udal Antzokiaren ondotik atera behar zuen. Orain, berriz, igogailua ezkerrerago kokatzea erabaki dute, Uarkape frontoitik gertuago.

Horrela, han dagoen igogailua, gaztetxean dagoena, kendu eta igogailu bakarra utziko dute erabiltzaile guztiendako.

Igogailuaren lehen zati hori iritsiko da Gernika pasealekura; eta hortik gora abiatuko den bigarren zatiaren kokagunea ere aldatu egin beharko dute, aurreneko zatiarekin bat egin dezan.

**SEGURTASUNA ETA ARGITASUNA**

Kokagunea aldatzeko hainbat arrazoi eman dituzte udal ordezkariek: batetik, igogailua Amaia antzokiaren ondotik aterako balitz, ikastetxearen patioan egokitzapen obrak egin beharko lituzketela; batez ere, argiztapena eta irisgarritasuna hobetu beharko lituzkete.



Igogailuak izango duen itxura erakusten du Udalaren muntaiak. ARRASATEKO UDALA

Bestetik, igogailua Amaia Udal Antzokitik abiarazten bada, Gernika oinezkoen zumardiraino iritsiko da, baina ilun samarra den leku batera. Eta Uarkape frontoi ingurutik abiatzen bada, berriz, aterako da argiztapen handiagoa duen eta jende gehiago ibiltzen den leku batera, eta horrek, jakina, igogailu horren erabiltzaileen segurtasuna bermatu egiten du.

Dena den, Ferixalekuko igogailua aurrera badoa ere, Makatzenakoa bertan behera utzi dute, proiektua "hobeto aztertzeko" .

**GERTAKIZUNAK**

## Beste bi lapurreta oraingo astean

**U.M.** > ARRASATE

Barne Sailaren arabera, lapurrak sartu ziren abenduaren 15ean, 05:00ak inguruan, Doke tabernara. Dirua eta tabernako materiala lapurtu zutela jakinarazi du Herrizaingo Sailak, eta ikerketa zabalik dagoela eta oraingoz ez dutela inor atxilotu.

Lekukoen arabera, berriz, 04:00rak inguruan zarata handiak entzun zituzten inguruko bizilagunek. Haien esanetan, lapurrak inguruko obra bateko taulak erabilita eta tabernaren erakusleihoa apurtuta sartu ziren barrura.

**KANPAZAR JATETXERA**

Bestetik, Kanpazar jatetxean ere sartu dira lapurrak, astelehen gauean. Ugazabak esan duenez, "leiho altuenetik" sartu eta goiko solairuan eta garajean ibili dira. Kontatu du alarma ipinita zegoela eta ez dakiela zela lortu duten goiko alarma kentzea. Tabernako pertsianak itxita zituztela ere kontatu du. Materiala eraman dute bereziki.

## Deba ibar osoko partaidetza musean, baina txapela, etxean

Sekulako partaidetzarik handiena izan du Txinato tabernan jokatu duten mus txapelketak: 128 muslari, 64 bikote. Debagoienekoak gehienak, baina Debabarreneko lehiakideak ere izan dira. Dena den, txapela etxean geratu da, Xabier Martinez *Boludo* eta Jon Zubiria *Bull* arrasatearren esku. Bigarren izan da arrasatear batek eta aretxabaletar batek osatutakoa.




TXINATO TABERNA

> ETXEBIZITZAK

### 223 eskatzailek eman du izena, oraingoz, La Caixako etxeetan

148 etxebizitza eta 223 eskatzaile. Horixe da, oraingoz, La Caixako etxebizitzetakoren bat eskuratzeko izena eman dutenen kopurua. Izena emateko epea azaroaren 17an hasi zen eta urtarrilaren 16an bukatuko da.

Eskatzaile gehienak gazteak direla esan dute La Caixako ordezkariek, "jende nagusiari gehiago kostatzen zaioeta lekuz aldatzea". Gaineratu dute gehienak direla ingurukoak. Gomendatu dute, baita ere, ez itxaroteko azkeneko ordura arte izena emateko.

((112))
SOS DEIAK

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

arbolapeta
arrasate
beinke

**Ana Ugalde** > Historia irakaslea

# "Biterik Europaren modernizazioa ezagutu eta Arrasatera ekarri gura izan zuen"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Biteriren ekarpena ohoratzeko saioak egin dituzte astean Kulturaten. Eskolak, hirigintza eta iraultza nahiak azaldu dituzte hiru hizlarik. Tartean, Ana Ugalde izan zen martitzenean. Biterirenganako miresmena agerikoa zaio historian aditu arrasatearrari.**

**Bere garaian zeresana eragindako gizona izan zen Biteri?**

Bere garaian bazegoen Satarain izeneko parroko bat, militar karlista nahiko garrantzitsua izandakoa, oso beligerantea izan zena Biteriren lanarekin. Neskamutilendako eskolak baziren, baina helduendako gau eskolak ere bazeuden. Marrazketa eskola ere egin zuen eta hori izan zen Arrasatek izandako lehenengo eskola profesionala, 1902. urtean. Lehenago, eskolak etxeetan zeuden edo Udalarenak frantziskotarren komentuan, gaixoen ospitalearekin batera. Eraikin berean egoten ziren haurrak eskoletan, eta aldamenean, nafarreriak jotakoen gela. Biterik eskolak egin zituenean lorategi eta guzti egin zituen, eta komunekin. Orduan etxeetan ez zegoen iturriko urik, eta gutxiago komunik.



Ana Ugalde, martitzenean egindako hitzaldian. JON BEREZIBAR

**Pedro Biteriren bizitzaren gainean ikertzeko aukera izan duzu. Erraz jo daiteke agirietara?**

Testamentua aurkitu dut. Baina gauza bat da testamentua idaztea eta beste bat hura hil eta gero zenbat diru geratu zen, Biterik gastatzen jarraitu zuen-eta. Emaztea ondasunen usufruktudun moduan utzi zuen, baina ondasunak Arrasateko fundazioari utzi zizkion. Eta horiek ez dira herriari utzitako 200.000 pezetak bakarrik. Nora joan dira hil osteko diru guztiak? Gerra egon zela badakigu, baina non dago diru guztia? Testamentuan ere beste legatudun bat zegoen, Donostiako neska umezurtz bat. Hari 2.000 pezetako errenta utzi zion urteko, eroso bizi zedin. Haren izena badakigu, Mari Carmen Maxima da, baina gehiagorik ez. Dirutza kalkulatzeko aukera izan dut eta gastatzen hasi zenetik milioi bat pezetatik gora zenbatu dut, eta horietatik Arrasaten 300.000 pezetatik gora gastatu zituen. Izugarrizko dirutza da hori, Arrasateko Udaleko aurrekontua 64.000 pezetakoa zen-eta.

> **"Azokarako eraikina egin zuen, burdin eta beirazkoa; eskandalua izan zen hura, inguruan ez zegoen halakorik"**

> **"300.000 pezetatik gora gastatu zuen guztira; baina nora joan dira hura hil osteko diru guztiak?"**

**Baina haren familiaren dirua nondik zetorren?**

Aita, Legutiokoa izatez, indianoa zen eta 57 urte zituela ezkondu zen, amak 25 urte zituela. Gero, ze negozio izan zituzten ez dakigu. Londresen eta Parisen zituzten negozioak.

**Munduan zehar ikusitako horiek ekarri zituen Arrasatera?**

Saiakera egin zuen Arrasate modernizatzeko. Eskolaren planoak egin zituen garai hartako arkitekto figura batek, Luis Aladrenek. Hark diseinatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza eta Donostiako Kasinoa, egun udaletxea dena.

**Hain arkitekto esanguratsuak egindakoan, gero bota?**

Arrasaten Biterik egindako guztia bota da. Biterik Europaren modernizazio guztia ezagutu zuen eta Arrasatera ekarri gura izan zuen. Paris, Erdi Aroko hiri iluna zena, gaur egungora nola eraldatu zen ezagutu zuen Biterik: hirigintza berria, etxeetara eguzkiaren argia ekarriko zuena, lorategiekin, zuhaitzak zituzten etorbide zabalekin... Pentsa ezazu Arrasate modernizatzeko haren nahia zelakoa zen, Arrasaterako hirigintza eta zabalgune proiektua idatzarazi zuen, Bilboko edo Gasteizko zabalgunearen modura. Ba, galdu egin da. Horren guztiaren arrastorik ez da gelditzen, argazkietan soilik. Garibai etorbidean, Biteri plazaren aurrean, dorrea dagoen tokian, ortuak erosi eta lorategiak egin zituen Biterik. Lehenengoko aldiz, lorategiak egon ziren Arrasaten Europan zeuden modukoak. Herriko zaharrenak gogoratuko dira han zeuden Indiako gaztainondo handiez. Eskola aurrean ere etorbide bat egin zuen zuhaitz lerroekin. Horiek guztiak hirigintza modernoaren ezaugarriak dira, Erdi Aroko Arrasatera ekarri zituenak. Eta ez hori bakarrik: Portaloian azokarako eraikina egin zuen, baina ez edonolakoa: Londres edo Parisen zeudenen eredua jarraituta egin zuen eta burdin eta beirazko eraikina zen. Garai hartan hura eskandalua izan zen Arrasaten, inguru guztietan ez zegoen halakorik. Kiosko bat ere egin zuen eta lorategian ipini zuen, Parisen edo Biarritzen zeuden moduan. Udalak erabaki zuenean Biteriri monumentua zor zitzaiola, lorategi horietan ipintzea erabaki zuten eta kioskoa Herriko Plazara aldatzea, arrasatear guztiek kioskoa ikusita Biteriri esker zela gogora zezaten. Arrasateko kioskoa Bergara, Oñati edo Donostiako bulebarrekoa baino lehenago egin zuten. Hori guztia desagertu egin da, eta zutik geratu den gauza bakarra Garibairen etxea izan da, berreraiki egin zuena. Bestela, arrastorik ere ez.

**ERREGE KABALGATA**

## Ohiturari eusteko, laguntza beharrezkoa

Martitzenean hasiko dira entseguekin, 'urteroko arrakasta' lortzeko asmoz

**J.B.** > ARRASATE

Gabonak gertu eta Errege Eguna ere gainean daukagu, eta dagoeneko kabalgatako antolakuntza taldekoek egin dute deialdia. Entseguak urtarrilaren 2an egingo dituzte, San Viator Handin, 19:00etan, eta umeen abesbatzakoak hilaren 23tik 30era eta urtarrilaren 2an eta 3an elkartuko dira abadetxean.

Urtero parte hartzera animatzen diren haur, guraso eta nagusiei egin diete dei: "Urterik urte zailagoa da antolatzea, gero eta jende gutxiago gerturatzen da-eta", dio antolatzaileetako batek. Hala ere, parte hartzera jende gutxi joaten bada ere, kabalgatak arrakastatsu izaten jarraitzen du herritarren aldetik: "Esango nuke Olentzero baino gehiago", kideak azaltzen duenez. Auzoetatik egiten dute, ibilbidea eta horrek "jende asko erakartzen" duela diote. Aurten ere urtarrilaren 5ean zuzi eta danborrekin jende andana ikustea da helburua, nahiz eta antolatzaileek aitortzen duten "eskurik ez jasoz gero kabalgataren amaiera gertu" ikusten dutela.

**OLENTZERO**

Errege magoak ekialdetik etorri baino lehenago, baina, Olentzerko kazkina da herriko haurrei bisitan etorriko zaiena. Hura etorri aurretik, gutunen bila hilaren 24ean jaitsiko dira herrira Txoronpio eta Txoronpia. Eguerdi aldean auzoetan ibiliko dira eta 13:15ean erdialdean ibiliko da bikotea. Olentzero bera 18:00etan irtengo da eta 19:30ean esango diote agur Herriko Plazan.

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

ETXEZINTZO S.L.
ERAIKUNTZAK
Erreformak lokal, etxebizitza, atari, teilatu, baserri, igogailu eta abarretan.
Eraikuntzak orokorrean.
Telefonoa: 943 53 38 31

**MUSIKA** > GOSPEL KONTZERTUA AMAIA ANTZOKIAN

# Tye Tribbet: nortasuna, ikuskizuna eta kalitatea

Tye Tribbet musikagile handiak AEBetako koru ikusgarriena dakar Arrasatera, erraz ahaztuko ez den gospel saioa eskaintzera



Taldeko buru den Tye Tribbet-ekin ikuskizuna bermatuta dago. GOIENKARIA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Abenduaren 23a, 20:00ak. Egun eta ordu horretan Amaia antzokiko eserleku batean dagoena pozik egon daiteke, erraz ahaztuko ez duen musika kontzertu batez gozatzear dagoelako.

Tye Tribbet and The Greater Anointing dira, eta musika talde hitza erabili baino, ahots, musika eta ikuskizun uholde moduan izendatu ditzakegu. Udalak Arrasatera ekartzea lortu duen taldearen izenak ezer esaten ez dionarentzat, hona aurkezpena; Tye Tribbet: New Jerseyn jaiotako abeslari, musikagile, eta zuzendaria da. Hura izan zen taldearen sortzailea. Atzean duen abesbatza AEBetako ikusgarrienetarikoa dela lasai asko baieztа genezake, eta azken urteotako proiektuetan lankide izan dituztenen artean Will Smith, Justin Timberlake eta Sting moduko pertsonaiak daude. Bi hitz egiten dutena azaltzeko: gospel bikaina.

**EZ GOSPELA BAKARRIK**

Arrasatera datorren uholde honek, baina, ez du gospela bakarrik lantzen. Bestelako estiloen fusioa atzeman daiteke, horien artean, popa, jazza, R&B-a edota neo-soula. Bestalde, 1990eko hamarkadan ezagunak egin ziren Tye Tribbet and the Greater Anointing-ek jaso dituen sariei dagokienez, Grammy sarietarako bi izendapen aipatu behar dira.

Sarrerek balio duten 20 euroak ondo ordainduta daude, hortaz. Udalak sarrerak geratzen direla jakinarazi du eta leihatilan eta Internet bidez eskuratu ahalko dira, *www.kutxa.net*-en.



JOSETXO ARANTZABAL

## Etxeko txikienak erraldoi bihurtu ziren egun hura

Joan den zapatuan, abenduak 13, Arrasateko Erraldoi Txikien Konpartsak Biteri plaza hartu zuen. Hala, konpartsak kalean egin zuen entsegua; herriko haur eta gaztetxoak jira eta bira ibili ziren. Puzgarriak ere izan ziren. Antolatzaileek "ekitaldian parte hartu eta gozatu zuten guztiei" eskerrak eman gura dizkiete.

**MUSIKA ETA ARGAZKILARITZA** > BEDOÑA BATU ELKARTEA

# Amaren Alabak taldea eta erretratu zaharrak ikusgai Bedoñan, urtea agurtzeko

Zuberoako taldeak hilaren 27an emango du kontzertua; egun berean zabalduko dute erakusketa, urtarrilaren 6ra arte

**J.B.** > ARRASATE

Bedoña Batu kultura elkarteak zenbait ekintza antolatu ditu urteari agurra emateko; Bedoñako auzokideei begira antolatzen diren ekitaldi xumeak. Xumeak, eta interesgarriak.

Gabon giroan Bedoña auzoan ospatuko diren ekitaldietatik bi dira nabarmentzekoak. Batetik, Amaren Alabak taldearen musika emanaldia, eta bestetik, Bedoña auzoko erretratu zaharren erakusketa.

**ZUBEROTIK DATOZEN AHOTSAK**

Amaren Alabak talde berezia da. Sei emakume zuberotarrek osatzen dute, eta kantatzeaz gain, emanaldiak koreografiaz laguntzen dituzte. Saio xumea da eszenografia aldetik. Zuberoko tradizioaren kantu moldea eragin modernoekin nahasten dute, eta emaitza kalitatezko emanaldi hunkigarria da. Taldeko kideak Maider eta Graxi Bedagaxar, Lüxi Agergarai, Arantxa Camus eta Maika Etxekopar dira.

Kantu gehienak euskaraz badira ere, bestelako hizkuntza batzuetan ere abesten dute, hala nola, frantsesa, okzitaniera, espainola eta portugesa. Kontzertua abenduaren 27an izango da Santa Eulalia elizan, 20:00etan.

**AUZOKIDEEN ARGAZKIAK**

Arrasateko eta inguruetako historiaren parte da Bedoña auzoa. Eta Bedoña Batu elkarteak antolatu duen erakusketan bedoñarren artean hainbat argazki jaso eta *Amama, nolakoa zen Bedoña?* izenburupean erakusketa zabalduko dute. Ez dira argazki profesionalak, baina bai esangura asko dutenak, aspaldiko Bedoña erakutsiko digutelako. Eskola etxean zabalduko da, abenduaren 27an, 18:00etan. Urtarrilaren 6ra arte gozatu ahalko da erakusketaz.

> MUSIKA

### Benito Lertxundik Amaia antzokia leporaino beteko du, sarrera guztiak agortu egin dira eta

Benito Lertxundik sekulako arrakasta dauka gurean. Horren isla da Arrasaten abenduaren 20an Amaia antzokian eskainiko duen kontzerturako sarrerak salgai jarri eta egun gutxira agortu zirela. Orioko musikagilea *Itsas ulu zolia* izenburua duen disko berria –15 dira dagoeneko– aurkeztera dator Arrasatera. Emanaldian kantu berriak eta egun ereserki egin diren iraganeko abestiak joko ditu.

> GABONAK

### AEDk antolatzen duen bertso saioak eta Arrasate Musikalen kontzertuak ez dute hutsik egingo

Gabonetan ohikoak izaten diren ekitaldiek aurten ere ez dute hutsik egingo. Horien artean, AED elkarteak duen bertso saioa –abenduaren 21ean, 22:30ean, Amaian– eta Arrasate Musikaleko bandaren Gabon zahar eguneko kontzertua –hilaren 31an 13:00etan, Amaian–. Bertso saioari dagokionez, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Jon Maia eta Miren Amuritza bertsolariak izango dira, eta Egoitz Aizpuru ibiliko da gai-jartzaile lanetan.









iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

BIZIGUNE ETXEBIZITZA HUTSEN PROGRAMA

bizitzaz betea



hutsik duzun etxea

Euskadin hutsik dauden 26.000 etxebizitzetako baten jabe bazara, Bizigunek alokatu eta honakoa bermatuko dizu:

- 5 urteko alokairua
- Obren finantzazioa
- Mantentzea eta zaintzea
- Alokairuaren gestioa
- Errentariekin zerikusia duten gestioak

GUZTIAZ ARDURATZEN GARA,
ZU EZERTAZ KEZKA EZ ZAITEZEN

943 25 20 09 INFORMA ZAITEZ

bizigune

aurrera doan herria · un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA · DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Uribarren erretratuaren ezkerraldean, kontrarioen errestoari begira. Gipuzkoako txapelketan Agirre du bikotekide. GOIENKARIA

**PILOTA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# "Finalerako sailkatzeko gozatu beharrean, lan egin behar da"

## Antiguoko pilotarien kontra 22-16 galdu zuten Uribarrenek eta Agirrek joan den astean

## Gaur 19:30ean hasiko dituzte partiduak, baina finalerdia 21:30ak inguruan jokatuko dute

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arrasateko senior mailako Aitor Agirrek eta Egoitz Uribarrenek oso ondo egin beharko dituzte gauzak gaur Gipuzkoako Txapelketako finalera sailkatzeko. Arrasatekoek Antiguoko pilotariak izango dituzte aurrean, eta Donostiako porrotari (22-16) buelta emateko gogotik egin beharko dute lan Uarkapen.

Zaila bada ere, Mauri Zubillagak uste du posible dela kanporaketa gainditzea: "Donostian baino seriotasun handiagoarekin jokatu beharko dute, hori seguru, baina posible da, bai". Hala, Arrasateko mutilek Antiguokoen kontra zelan jokatu behar duten laburtu du Arrasateko entrenatzaileak: "Uribarren urte askoan aurrelari moduan ibili da, eta atzelaria bada ere aurreko koadroetan arriskatzea gustatzen zaio. Donostian bost falta egin zituen dejadak egiteko ahaleginean, eta horrela ezin da irabazi. Uribarren sekulako atzelaria da, ezker ederra eta eskuinarekin erraz jokatzen duena. Antiguoko aurrelariak, berriz, eskuin esku elektrikoa zuen, eta hari pilota kendu beharko diote, atzera jokatuta. Alde horretatik, pilotan gutxiago gozatu, hau da, dibertsio gutxiago eta lan handiagoa egin beharko dute kanporaketa gainditzeko".

**BOST PARTIDU**

Gipuzkoako txapelketako finalerdi horrekin batera beste lau norgehiagoka jokatuko dituzte gaur Uarkapen. 19:30ean hasita, kadete mailako hiru partidu izango dira, gazte mailako bat eta seniorretakoa azkena.

Kadete mailan Arabaolazak eta Etxagibelek Urnietaren kontra jokatuko dute, eta hor seigarren postua egongo da jokoan. Bigarren partiduan Larreak eta Prietok Añorgaren kontra neurtuko dituzte indarrak, eta hirugarrenean Arregik eta Urrutiak Urnietako pilotariak izango dituzte aurrean.

Gazte mailako partidua jokatuko dute ondoren, Arana eta Goitia Tolosako pilotarien kontra, eta azken norgehiagoka izango da senior mailako finalerdia, 21:30 inguruan.

KONTUAN HARTZEKO

### Arrasateko pilotariak Berria txapelketan, eta Ibai Bolinaga baita El Corte Ingles-en ere

Arrasateko pilotariek hainbat hitzordu garrantzitsu izango dituzte datozen hilabeteotan. Batetik, urtarrilaren 3an egingo dute Berria txapelketako zozketa, eta Arrasate zozketa horretan izango da: "Torneo hori Herri Arteko Txapelketa bezalakoa da, hau da, herri bakoitzeko hiru kategoriatako pilotariak lehiatuko dira, baina horra gonbidatzeko, Gipuzkoako rankingean herriko bi pilotari aurreneko hiru postuetan izan behar dira, eta zorionez, guk betetzen dugu baldintza hori".

Horrekin batera, Euskadiko txapeldun den Ibai Bolinagak martxoan egingo duten El Corte Ingles txapelketa garrantzitsuan izango da.

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer-Dublin Irish Pub | 5-3 |
| Bar Aldapa-Equs | 5-6 |
| Urza-Iriztu Taberna | 2-8 |
| Iturriotz Taberna-Cipris | 1-3 |
| Saukelu Kabia-Paulaner Dribling | 5-8 |
| AT Celaya-Lasagabaster | 4-6 |
| Total Disaster-Iluntz | 1-8 |
| Ekaitz Taberna-McAwenDauen | 6-16 |
| HLB 108-Abokajarro | 2-5 |

**PARTIDUAK**

| Abenduak 20, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| 11:30 Betrayer-AT Celaya | Antolatzaileak |
| 12:30 McAwenDauen-Iturriotz | Antolatzai. |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | McAwen Dauen | 21 | 8 |
| 2. | AT Celaya | 18 | 8 |
| 3. | Saukelu Kabia | 18 | 8 |
| 4. | Paulaner Dribling | 16 | 8 |
| 5. | Iriztu Taberna | 15 | 8 |
| 6. | Lasagabaster | 15 | 8 |
| 7. | Cipris | 13 | 8 |
| 8. | Betrayer | 12 | 8 |
| 9. | Ekaitz Taberna | 12 | 8 |
| 10. | Abokajarro | 11 | 8 |
| 11. | HLB 108 | 11 | 8 |
| 12. | Iluntz | 11 | 8 |
| 13. | Dublin Irish Pub | 10 | 8 |
| 14. | Equs | 8 | 8 |
| 15. | Bar Aldapa | 7 | 8 |
| 16. | Iturriotz Taberna | 6 | 8 |
| 17. | Urza | 6 | 8 |
| 18. | Total Disaster | 0 | 8 |

### Kopako final hamaseirenak jokatuko dituzte bihar goizean

Txapelketan hemezortzi talde daudenez, kopako lehenengo jardunaldia final zortzirenetara sailkatzeko kanporaketa izango da, eta zozketa bidez, goian dauden lau taldeei tokatu zaie asteburuan jokatzea. Orain arte ligan erakutsitako mailari eusten badiote, biharko kanporaketarako McAwen Dauen eta AT Celaya dira aurrera egiteko faboritoak.

Bestalde, Equs taldeko jokalari batek partidu bateko zigorra jasoko du, eta Total Disaster taldeari ganora gehiagorekin epaitzeko eskatu diote antolatzaileek.

**SASKIBALOIA** > SENIOR MAILA

# Suelbat La Peñaren kontra, bihar Iturripen

**X.U.** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak urteko azken norgehiagoka jokatuko du bihar arratsaldean Iturripen, sailkapenean atzealdean dabilen beste talde baten kontra, Bilboko Suelbat La Peñaren kontra, hain zuzen (18:00).

Sailkapenean atzealdean dabiltzan bi talde izango dira aurrez aurre, eta Arrasatekoek urtea zapore gaziarekin ez amaitzeko azken aukera izango dute, orain arteko ligako norgehiagoka guztiak galdu eta gero.

**HIRUGARREN LAURDEN TXARRA**

Joan den astean MUk lider dagoen Cafes Aitonaren kontra jokatu zuen, eta bistan geratu zen sailkapenaren alde banatan dauden bi talde horien artean ze alde dagoen (96-58). Lehenengo laurdenetan MUkoek hortzak erakutsi zituzten, baina hirugarren laurdena negargarria izan zen Arrasatekoendako (31-6). Horrelako beherakadekin ez dago partidurik irabazterik, eta hori zuzentzen ahaleginduko dira etxekoak bihar.

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

nire bidaia hura

## Itsaso Arantzabal
Thailandiatik Zeelanda Berrira > 2007ko azaroa

# "Java irlan surfa ezagutu eta lagun koadrila ere egin genuen"

**JASONE ZABALA** > ARRASATE

**Itsaso Arantzabal arrasatearra oso abenturazalea da. Horrela, urtebete munduko hainbat lekutik zehar (India, Thailandia, Malaysia, Bali, Australia eta Zeelanda Berria) egindako bidaia amaitu berri du. Hasi, 2007ko azaroan hasi zen, eta urtebete geroago etorri da bueltan Arrasatera.**


Itsaso Arantzabal.


Itsaso, Bali irlako tenplu batean.

Lehenengo Jon Serrano lagunarekin joan zen India aldera. Hasieran hiru hilabeterako joan bazen ere, egonaldia luzatzea pentsatu zuen eta Nepal eta Kanbodiara joan zen. "Nepalen, besteak beste, Annapurna kanpamentu nagusiraino trekkinga eginez heldu ginen", adierazi digu Arantzabalek. Thailandian zeudela, beste lagun bat gehitu zitzaien bidaiarako, Nerea Bilbao.

**THAILANDIAN HASIERA**

Hirurak batera Thailandaira joan ziren. "Iparraldea bisitatu eta Laosera joan ginen. Laos asko gustatu zitzaigun; turistak aurkitu arren, atzerritarrak gu bakarrik ginen herrietan egon ginen", adierazi digu Arantzabalek. Hain turistikoa ez izanda, batzuetan komunikatzeko arazoak ere izan zituzten. Thailandiako hegoaldean, Koh Tao irlan egon ziren. "Bertan, urpekaritza ikastaroa ez ezik, bertako hondartza ikusgarrietan egiten ziren festetan ere ibili ginen", adierazi digu.

**BIGARRENA, MALAYSIAN**

Malasian, Pherentian Kecil irla txiki-txikian egon ziren. "Bertako uretan marrazo eta dortoken artean hartu genuen bainua". Ondoren, Indonesian egon ziren, baina Jon Serrano gabe; hura Australiara joana baitzen. Indonesian hiru hilabete pasa zituzten Itsasok eta Nereak. "Hilabete Java irlan egon ginen; surfarekin lehenengo kontaktua izan genuen. Bertako biztanleekin erlazionatu ginen eta koadrila eta guzti egin genuen. Itsasoan ez ezik, bertako Gunung Bromo sumendi aktiboa ikustera ere gerturatu ginen", adierazi digu Itsasok. Beste bi hilabete Bali eta inguruko irletan pasa zituzten bi lagunek. Bertan motor bat alokatu zuten eta irla guztia ezagutzen ibili ziren. Asiatik Australiara joan ziren, Sidneyra. "Australia Asiarekin alderatuta garestia da; oso kontinente handia denez, distantziak ere oso luzeak dira", adierazi digu Itsasok.

Handik, Zeelanda Berrira joan ziren, eta furgoneta bat alokatuta, 18 egun ibili ziren lurraldea ezagutzen. Han amaitu zen bikotearen bidaia. Itsaso Indiara bueltatu zen eta bere lagun Nerea Japoniara, bakarka ere mundua ezagutu nahi zutelako. Esperientzia guztiz gomendagarria izan dela adierazi digu Arantzabalek.

txutxu-mutxua

## Apustua: Urkuluri buelta eman korrika, eta galtzaileak afaria ordaindu lagunei

**Abenduaren 6an Arrasateko bost lagunek apustua egin zuten: Igor Beitialarringoitiak, Luar Etxebarriak, Nestor Zabaloak, Xabier Altzelaik eta Arriet Fernandez de Arroiabek, hain zuzen ere. Beraien arteko *pikea* uda aldetik zetorren eta pasa den abenduaren 6an egin zuten. Apustua: Urkuluko urtegiari buelta azkarren ea nork ematen zion korrika. Galtzaileak –Igor Beitialarrangoitiak– beste lau lagunei afari eder bat ordaindu behar izan zien. Eguraldiak asko lagundu ez arren, ikusleak ere gerturatu ziren. Bost lagunek Arrasateko Santamasetako herri krosean hartu dute parte.**


ASIER AIERBE

bere ustez


Nerea Makazaga

# Garai berrien bueltan

Bat-batean esnatu zara, berriz. Eta ez dakizu atzoko urduritasunak izan diren itzuli direnak, edo erantzun berriak diren ate joka ari zaizkizunak, zu urduritzen. Ez duzu aterik jo eta ez zenuen galdera berririk planteatzeko beharrik, baina zuk ez duzu aukeratzen ametsetatik esnatzen zaituena. Urteak pasa direla dirudi, mendeak. Paisaia ezagunegi baten elementu petrifikatu bilakatu ahal izan zara, eta gustatuko litzaizuke hori horrela balitz, paisaia horren zati nahitaezko eta amaigabe izatea edota izaten segitzea. Horregatik hartu duzu ohe azpian ahaztua zenuen blok kuadrikulatu hura, karratuak marrazten jarraitzeko, karratuak karratuen barruen, ideiak lotzeko, ertzetan bada ere. Ideiak ordenatzeko tamaina ezberdinetan; betiere dimentsio lau baten.

**"Ideiak ordenatzeko tamaina ezberdientan; betiere dimentsio lau baten"**

Baina armiarmak paperератu zaizkizu, ordularietan pertsonifikatzen zitzaizkizun berberak, ideiak korapilatzen, hasierako puntua non zen jakin ez dezazun, hasierako puntura itzultzerik izan ez dezazun; desio ez duzun patu baten aginduei amen egin behar izateko. Eta ohean zaude, urduritasunean armiarmatutako kaiolan, noiz esnatuko zain.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Zorionak eta Urte Berri On !
Gabonetan ... hartu atseden !
%30 arropa
%20 oinetakoa
haurmoda
deskontuak
badabil
arrasaten - biteri 11 - 943081540
biteri aparkaleku parean

**GABONAK** > EKITALDIAK

# Nerabeendako alkohol bako afaria Errege bezperan

## 14 eta 18 urte bitarteko gazteendako antolatu du Udalak, Munibe plazako karpan

## Artisau azoka, Napar Feria eta umeendako ekitaldi ugari ere egongo dira Gabonetan

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Aurten ere ekitaldi ugari izango da Gabonetan eta, horien artean, berrikuntzak ere badira. Nabarmenena da Udalak 14 eta 18 urte artekoendako Errege bezperarako antolatu duen afaria. Munibe plazako karpan izango da, eta horretarako mahai eta aulkiak jarriko ditu Udalak.

Afaria gazteen eskaria izan da, eta Udalak garatutako Gazte Planaren barruan sortu da. Hain justu, udal ordezkariek, planaren barruan, adin horretako 25 bat gazterekin aldika egiten dituzten batzarretan. "Galdetu genien batzarrean ea zer nahi zuten guk antolatzea urtarrilaren 5erako, eta afaria eta kontzertua nahi zituzten", azaldu du Nagore Narbaizak, Hezkuntza teknikariak. Hala, Udalak gazteek eskatutakoa antolatzea erabaki zuen, betiere gazteek errege kabalgatan parte hartuz gero. Hala, gazteok kabalgatan parte hartuko dute.

Kabalgata egin eta gero, patata tortilla lehiaketa egongo da karpan. Lehiaketako tortillak afarirako gordeko dituzte eta etxetik eramandako beste elikagai batzuekin osatuko dute afaria.

Afarian parte hartzeko izena eman beharra dago. Horretarako deitu behar da kultura etxera, 943 77 91 60 zenbakira.

Kontzertuari dagokionez, 23:00etan Hesian eta Drindots taldeak egongo dira. Biak ala biak gazteek eskatutakoak dira.



Irudian, iazko San Antonioko Napar Feria. GOIENKARIA

**ALKOHOLIK GABEKO AFARIA**

Udalak jarritako baldintza da "alkoholik eta bestelako sustantziarik gabeko afaria izatea", azaldu du Narbaizak. Eta gehitu du: "Badakigu gazteok kalera aterako direla; hortaz, gure helburua da parranda ahalik eta sanoena egin dezaten". Gazteok sinatu dute agiri bat konpromiso hori hartzen.

Hezkuntza teknikariak gehitu duenez, afariaren berri emateko gutuna bidaliko diete adin tarte horretako seme-alabak dituzten gurasoei. Bestalde, batzar informatibo baterako dei egiten diete: hilaren 23an izango da, 19:30ean, Zabalotegi aretoan. Batzarrean –baita afarian ere– Askagintzako ordezkariak egongo dira, Udalarekin elkarlanean dihardute-eta prebentzio arloan.

Tabernariei ere gutuna bidali die Udalak, gogora ekartzeko adin txikikoei ezin zaiela alkoholik saldu, besteak beste.

**GAUR HASITA, ARTISAU AZOKA**

II. Artisau Azoka izango da aurten. Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 24ra arte egongo da ikusgai, 10:30-14:00 eta 17:00-21:00 ordutegian. Hartuko dute parte 11 artisauk. Horrez gain, Udalak gonbidatutako herriko eta Elgetako beste bost artisau ere egongo dira: Aspace –saskigintza–, Pili Arin –hosto lehorrak eta oroigarriak–, Jose Ramon Madinabeitia –euskal pilota–, Igor Herce –larrugintza– eta Emilio Gutierrez –makilak.

**NAPAR FERIA, SAN ANTONION**

Bihar, zapatua, Napar Feria egingo dute San Antonion. 10:30ean irekiko dute eta egongo dira, ohiko postuez gain, jaiotza eta postalen lehiaketaren sari ematea 13:00etan eta umeendako animaliatxoak 12:00etan. Bestalde, etzi, 10:30ean hasita, txistorra emango dute eta Jarduneko trikitilarien eta dantzarien saioa egongo da.

**JOLASPARKEA**

Txikienendako jolasparkea hilaren 26tik 28ra egongo da zabalik. Ohiko tailer, jolas eta puzgarriak egongo dira. Ordutegia izango da 16:00-19:30 eta prezioa, 5 euro.

Horrez gain, Jardunek ere antolatu ditu Gabonetarako gaztetxoendako ekitaldiak. Hain justu, urtarrilaren 2an askotariko jolasak egingo dituzte Munibe plazako karpan, 18:00-20:00 ordutegian. Besteak beste, egongo dira eskujokoak, eskulanak, jolas kantuak eta hankapaluak.

KONTUAN HARTZEKO

### Olentzero, Mari Domingi eta kabalgata

Olentzero eta Mari Domingi elkarrekin etorriko dira aurten ere abenduaren 24an. San Martzial aldetik jaitsiko direnez, 17:15 aldera iritsiko dira azokara eta handik herriko kaleetan barrena ibiliko dira San Martin plazara iritsi arte. Alai Taldeko, Bergarako Orfeoiko eta Aritzeta abesbatzako kideak izango dituzte bidelagun, besteak beste, eta kantuan ere egingo dute haiekin batera. San Martin plazara iristean umeen gutunak jasoko dituzte Olentzerok eta Mari Domingik.

Urtarrilaren 5ean, berriz, Bizarzuri etorriko da eta hark jasoko ditu herriko umeek hiru erregeendako idatzi dituzten gutunak. 17:30ean izango da hori, San Martin plazan. Gero, 19:00etan, errege kabalgata izango da. Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak zaldi banatan iritsiko dira eta herrian barrena egingo dute ibilaldia zakuak opariz beteta dituztela.

> ELKARTASUNA

### Jostailu eta oinetakoak batuko dituzte bihar plazan

Aranzadi ikastolako ordezkariak Argentinako Jose C. Paz herriko umeendako jolas eta oinetakoak batzen egongo dira bihar, zapatua, goizez, San Martin plazan. Duela lau urte ekin zioten Aranzadikoek elkartasun lan horri, baina eskola barruan egiten zuten batzea. Aurten, kalera ateratzea erabaki dute. Batutako guztia Oñatira eroango dute; han Jose C. Paz herriarekin lan egiten duen talde bat dago eta haiek arduratuko dira, gero, Aranzadikoek batutakoa hara helarazteaz.

> IKASTAROAK

### Urtarrilerako ikastaroak antolatu ditu KZguneak

Zortzi ikastaro antolatu ditu KZguneak urtarrilerako: *Internet, Sinadura elektronikoa, Kontsumitzailea sarean, Eustat, Justizia ezagutu ezazu, Guia Michelinekin bidaiatu, Posta elektronikoa;* eta *Batbateko mezularitza.*

Ikastarook hainbat ordutegi izango dute eta erabiltzaileek aukeran izango dute. Informazio gehiagorako eta izena emateko deitu 943 76 73 24 zenbakira edo idatzi mezua *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera.

> AZPIEGITURAK

### San Pedro kalea oinezkoendako erabilgarri gaurtik

Gaurtik, egubakoitza, erabilgarri egongo da San Pedro kalea. Azken hileetan lanak egiten jardun dute oinezkoendako bihurtzeko. Hala, lanak aurreratuta doaz eta Zabalotegira ematen duen kantoian hasi eta Bidekurutzetaraino adokina jarrita dago. Kantoitik Ariznoa plazarainoko tartea, berriz, ez dute bukatu baina Gabonetarako porlana botako dute. Lanek urtarrilaren 7an jarraituko dute.




altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
K21
arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak


erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04



Eskaerak egiteko:
670 45 25 65
Eguenetik domekara zabalik
19:30etik aurrera
Artekale 1 • BERGARA



Mozos farmazia zegoen lekuan kokatuko dute taberna. MONIKA BELASTEGI

**EAJ ALDERDIA** > BATZOKIA

# Batzokiko taberna eta jatetxea egokitu egingo dituzte

Bi urtetik gora itxita egon eta gero, 2009ko udaberri aldera irekiko dituzte berriz

**M.B.** > BERGARA

Batzokiko taberna eta jatetxean egokitzapen lanak egingo dituzte. Lanok eraikinaren irisgarritasuna bermatuko dute eta urtarrilean hasteko moduan egongo dira. Dagoeneko jaso dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena, eta Udalarena ere heltzear dagoela aurreratu du Mikel Letek, Bergarako Uri Batzarreko ordezkariak. Iraupenari dagokionez, bost hil inguru iraungo dute; hala, udaberri alderako zabalik egongo dira.

**HAINBAT EGOKITZAPEN**

Tabernarako sarrera berria egingo dute; hain justu, urteetan Mozos farmazia egon den lekutik izango du sarrera, eta barra ere hortxe egingo dute. Bestetik, jangela bi izango ditu: batetik, gaur egun taberna dagoen lekua jatetxe bihurtuko dute eta, bestetik, mantendu egingo dute lehengo jangela. Sukaldeak ere lehengo lekuan jarraituko du. Komunari dagokionez, taberna berrian egingo dute.

Horrez guztiaz gain, igogailua ere jarriko dute lehenengo solairuko bulegoetarako.

**KUDEATZE MODU BERRIA**

1980. urtean erosi eta kokatu zuten batzokia Agirrebeña etxean. Behe solairuan taberna eta jatetxea eta lehen solairuan bulegoak egin zituzten, eta gaur egun ere, hala dirau. Garai hartan alderdikideak arduratzen ziren tabernaz eta jatetxeaz. Taldetan banatuta, astero batek hartzen zuen ardura. Bospasei bat urtez modu horretan jardun eta gero, jendea kontratatzen hasi ziren.

Hori horrela, ordutik, hainbat arduradun izan dituzte tabernak eta jatetxeak, 2006. urteko martxoaren 31n itxi zuten arte.

Mikel Letek azaldu duenez, Bergaran ez ezik, orokorra da jatetxe eta tabernarako arduradunak aurkitzeko zailtasuna. Hori horrela, EAJk sortu du enpresa bat batzokietako taberna eta jatetxeen kudeaketaz arduratuko dena. Bergarakoa ere enpresa horrek kudeatuko du.

**AUZOAK** > SAN ANTONIO

# San Antonioko ermita zenaren kanpandorrea, berriz zutik

San Antonioko ermita eraitsi zutenean gorde egin zuten kanpandorrea auzotarrek; ermita zegoen lekuan jarriko dute, Udalaren laguntzarekin

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

San Antonioko ermita zenaren kanpandorrea berriz ikusteko aukera izango dute herritarrek. 1996an ermita eraitsi zutenean gorde egin zituzten kanpandorretxoa osatzen duten harriak eta kanpaia, eta orain, berriz altxatuko dute Ermitako batzordeak eta Gure Ametsa Kultura Batzordeak. Hain justu, Udalak 6.300 euro bideratuko ditu horretarako, San Antonio auzoko ondasun historikoa errekuperatzeko ekimena laguntzeko. Kanpandorrea jasoko dute lehen ermita zegoen leku berean, eta gehituko diote eraitsitako Parra tabernak kanpoaldean zeukan plaka bat; ur handien plaka bat, hain justu ere. Kanpandorrea egongo da kapera berriaren parean.

**KAPERA BERRIA**

Kapera berriari dagokionez, proiektua eginda dagoela azaldu dute Gure Ametsa Kultura Batzordeko ordezkariek. Udalarekin 1996an sinatutako hitzarmena dela eta, babestutako etxeen beheko solairuan egingo dute kapera berria, irudian ikus daitekeen moduan.

Iñaki Berasategik egin du proiektua eta, batzordeko kideek azaldu duten moduan, kapera izango da "xumea". 93 metro koadro izango ditu, eta eserita, 50 bat lagunendako lekua. Kanpoko aldetik egur eta beirazkoa izango da. Bestetik, argiak garrantzia handia izango du.

Kapera egokitzeko lanak noiz hasiko diren zehaztu barik dagoen arren, 2009ko San Antonio egunean –ekainak 13– inauguratu nahiko lukete.



Goiko muntaian ikus daiteke kapera berria babestutako etxeen azpian, eta eskuma aldean, kanpandorrea. GOIENKARIA

DRAGON ORIENTAL
Jatetxea
Etxera eramaten dugu
Zerbitzua Bergaran + 1,80 €
Osintxu, Antzuola edo Soraluzera + 2 €
943 25 06 77
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin
Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena 18** urte bete aurretik!
**943 76 16 63** BERGARA
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA

**TEKNOLOGIA** > LURREKO TELEBISTA DIGITALA (TDT)

# Aro digitalaren garaia iritsi da herrira, eta lurreko telebista digitala martxan dago

San Migelen dagoen errepikagailua moldatu dute eta lurreko telebista digitala ikusteko aukera dago; telebista analogikoa oraindik ere ikus daiteke, 2010a arte



Herran etxeko Rafa, dekodifikatzailea erabiltzen. JASONE ZABALA

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Orain arte telebistako seinalea garraiatzen zuten errepikagailu guztiek (Belar, Oñatin; eta Muru, Aretxabaletan) aro digital berrirako prest zituzten seinaleak, Bergaran izan ezik. Joan den asteburua ezkero, baina, egin beharreko aldaketak egin dituzte San Migelen eta aparailu berriak ipini dituzte, Udaleko teknikariek adierazi digutenez.

**GUZTIRA 24 KATE**

Lurreko telebista digitalarekin, guztira 24 telebista kate ikusi ahal izango dira; TVE, Cuatro, Telecinco, Antena 3, ETB eta Teledeporten, bakoitzean lau telebista kate ikusi ahal izango dira. Bergaran, baina, TVEri dagozkion kateak ezin izan dituzte ipini, satelitean izan duten arazo bategatik, baina Udalak adierazi digu hiru hilabetean martxan egongo dela. Bestalde, San Migelen ez dituzte sistema analogikoko antenak eta aparailuak kendu oraindik ere, 2010eko urrira arte ez delako derrigorrezkoa izango lurreko telebista digitala izatea; beraz, sistema analogikoa dutenek orain arte bezala ikusten jarraituko dute telebista; baina 2010. urtea baino lehen digitalerako aldaketa egin nahi dutenek aukera hori badute hemendik aurrera. Horretarako, baina, ez dago telebista zaharra bota beharrik. San Migelekoa ipinita, eta nahiz eta etxebizitzako antenetan ez dagoen oraindik ezer aldatuta, norberak dekodifikatzeko aparailu bat ipin dezake etxean, eta seinalea egoki helduko zaio. 2010. urtea heltzen denean, berriz, etxebizitzako antena ere moldatu beharko da.

**AZPIEGITURAK** > UNED-ARRIZURIAGA

# EAJk ez du onartzen lorategien aldekoek erabilitako hizkera

Ulertzen eta onartzen dute eurekin ados ez egotea, baina ez kritika egitean erabilitako tonua

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Erredakziora bidalitako oharraren bitartez erantzun die EAJko udal taldeak aurreko astean Bergarako Lorategi Historikoak Ekimenak prentsan esandakoei. Oharrean, EAJko udal taldeak "protestarik biziena" azaltzen du lorategi historikoen aldeko taldeak "kritika egitean erabilitako tonu eta hizkeragatik". Eta diote: "Ulertzen eta onartzen dugu desadostasuna hain gai sentibera eta konplexuetan, baina ez erabili duten tonua".

Bestetik, UNEDen kokapenaz eta Arrizuriaga jauregiaren erabileraz, eta oro har erabilitako argudioei buruz, hiru puntu zehaztu dituzte: batetik, UNEDen kokapenaren gainean honakoa diote: "UNEDek proiektu biribila du gaur egun dagoen kokalekuan, eta, beraz, ez dago eztabaidan bere etorkizuna Bergaran. Beste kontu bat da leku hobera aldatzeko izan dezakeen nahia, bere ikuspegitik oso ulergarria. Jakina, UNEDek berari komeni zaiona aukera dezake, baina guk planteatu beharko dugu UNEDek nahi duena onena den edo ez Bergararendako".

Gai ekonomikoa ere "oso garrantzitsua" iruditzen zaie: "Halako operazio baten aurrean, analisi ekonomikoak ezinbestekoak dira eta erabakigarriak izan daitezke. Jakina denez, inolako erabakirik hartu aurretik, operazioaren behar, balorazio eta finantzazioari buruzko txosten tekniko-ekonomikoa egiteko eskatu zaio Udalari".

Azkenik, Arrizuriaga eraikina handitzea eta lorategiaren kultura-balioak gordetzea "guztiz bateragarriak izan daitezkeela zalantzan" jartzen dute, baina "handitzearen garrantziaz eta ezaugarriez behar adina informazio ez dugunez, ez dugu jarrerarik hartuko".

**bere ustez**



Jon Suinaga

## Aberatsak galdu, denok ordaindu

Bankari eta aberatsen diru goseagatik sortutako krisiaren aurrean munduko herri boteretsuenak berehala elkartu dira industri finantzarioa salbatzeko. Bush-en gobernuan 700.000 miloi dolarreko erreskate plan bat eztabaidatzen da eta Europan ere zergadunen miloika euro erabiliko dira.

Erreskateko 700.000 milioiak planetako 6.700 milioi biztanleen artean banatuko balira, bakoitzari 104 miloi dolar tokatuko litzaizkiguke; 78 miloi euro! Beraz, ez litzateke bakarrik munduko pobrezia erauziko, automatikoki lurreko biztanle guztiak dirudunak bihurtuko ginateke.

**"Herri aberatsenek, Espainiako Estatuak barne, beste aldera begira jarraituko dute"**

Aldi berean, munduan 963 miloi pertsona gosea sufritzen, herri pobreenak kanpoko zorrekin itota eta eskandalu ekonomiko hau miseria gehiago sortzen. Baina herri aberatsenek, Estatu Espainolak barne, beste aldera begira jarraituko dute; edo apur batzuk limosna bezala emango dute. Krisialdi honek kapitalismoaren benetako aurpegia erakutsi du. Badago dirua kanpoko zorrak barkatzeko edo pobreziarekin akabatzeko, baina botereko buruek beste interes batzuk dituzte.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92


BERGARAKO
SHOTOKAN
Gure karateka guztiei :
zuen etxean espero dugu
ikatzik ez izatea , ezta
turroirik , oparirik eta
entrenamendu askorik
faltatzea ere . OSS !!
空手
Gabon zoriontsuak eta urte berri on


Olentzero eta
Mari Domingi maittiak :
San Martin Agirre
herri eskola
Abenduaren 22an arratsaldeko 15:15ean
Haur Hezkuntzako Gabonetako Jaialdia, Eskolako Aretoan.
Abenduaren 24an 11:00etan
Eskolan elkartuko gara Olentzerorekin irtetzeko.
Mari Domingi eta
Olentzero
San Martin
M.Altuna
Ipintza
Haurreskola
HHI-EPA

**GABONAK** > MARRAZKI LEHIAKETA

# Olentzeroren marrazki onenak saritu ditu Jardunek

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Jardunen eskutik, Bergarako ikasleek VII. Olentzero Marrazki Lehiaketan hartu dute parte. Hain zuzen, Aranzadi Iikastolako, Mariaren Lagundiko eta San Martin ikastetxeko 800 neska-mutiko izan dira lehian, Lehen Hezkuntzako 1.mailatik 6. mailara artekoak. Mailako bakoitzeko lan bat saritu dute (irudietan). Euskarazko liburu bana eta saritutako lana markoan jarrita jaso dute irabazleek.


Ainhoa Gonzalez, 6 urte. Mariaren Lagundia.


Joane Iribekanpos, 7 urte. Mariaren Lagundia.


Naiara Azkarate, 8 urte. San Martin ikastetxea.


Eneko Martin, 9 urte. Aranzadi.


Eider Egaña, 10 urte. Aranzadi.


Julen Urresti, 11 urte. Aranzadi.

> GABONAK

## Gaztaina erreak, gaur Munibe plazan, Jardunen eskutik

Gaur, egubakoitza, Jardun euskara elkarteak antolatuta, gaztaina erre eguna ospatuko da San Martin plazan, 19:30etik aurrera. Gaztaina erreak prestatuko dituzte Jardun elkarteko lagunek, eta herritar guztiei gaur plazara gerturatzeko gonbita egin nahi diete.

Gaztainak banatzeaz gain, musika eta bestelako ekitaldiak izango dira Gabonen etorrera girotzeko.

> ZINEMA

## 'Kung Fu Panda' eta 'En el valle de Elah' Zabalotegiko aretoan

Oraingo aste bukaeran honako zinema emanaldiak izango dira Zabalotegiko aretoan: zapatuan eta domekan, 17:00etan, *Kung Fu Panda*, umeendako saioa (sarrera 2 euro). Zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean, *En el valle de Elah* filma emango dute eta domekan, arratsaldean bakarrik, 19:30ean. Helduen emanaldietarako sarrerak 3 euro balio du. Leihatila saio bakoitzeko ordubete lehenago irekiko dute.

> ERAKUSKETA

## Beart elkartekoen erakusketa Aroztegin hilaren 28ra arte

Bergarako Artisten Elkarteko kideek erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Hainbat lan zintzilikatuko dituzte abenduaren 28ra arte. Ordutegia honakoa hau da: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domeketan goizez bakarrik izango da zabalik: 12:00etatik 14:00etara, hain zuzen.

**MUSIKA** > GABONETAKO KONTZERTUAK

# Gaur eta bihar, Gabonetako kontzertuak pilotalkuan

**E.M.** > BERGARA

Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 18:30ean. Talde instrumentalek, abesbatzek, kantu ikasleek eta hizkuntza musikaleko ikasleek hartuko dute parte. Alain Sancho Orkestrako zuzendari berria ere aurkeztuko dute. Amaieran, bi Gabon kantu interpretatuko dituzte elkarrekin. Sarrerak 4 euro balio du.

**TALDE GUZTIAK, BIHAR**

Bihar, zapatua, Bergarako Udal Musika Bandaren, Aritzeta abesbatzaren, Orkestra Sinfonikoaren, Orfeoiaren eta Musika Eskolaren txanda izango da. 22:30ean hasiko da emanaldia; sarrerak 5 eurotan daude salgai.

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRRINTZI
TABERNA
Berriz zuekin!
INAUGURRAZIOA
Abenduaren 21ean,
igandean 12:00etatik 15:00etara
Domingo Irala 13 BERGARA

Goienkaria

Egubakoitza / 2008ko abenduaren 19a / **GOIENKARIAren GEHIGARRIA** / Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta / Publizitatea: Amaia Mundiñano



# GABONAK OÑATIN 2008

ARGAZKILARIA JOSETXO ARANTZABAL



*Eraman dotoretasuna zure etxera*

gelatzu s.l.

Zubillaga auzoa 1
OÑATI
Tel.: 943 71 63 22
Faxa: 943 78 15 51

EGITARAUA

# GABONETAKO AGENDA

## Erakusketak

**'MENDIA ETA NATURA'** argazki lehiaketako lanen erakusketa dago kultura etxean, astelehenetik domekara, 18:30etik 20:30era, Aloña Mendi kirol elkarteak antolatuta. Abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da erakusketa.


JOLASPARKEA

**TXOTXONGILO** erakusketa ipiniko du Corrado Massacik urtarrilaren 20tik otsailaren 15era bitartean, kultura etxeko erakusketa gelan, egunero, 18:30etik 20:30era.

## Musika

**SABINA LEONE ETA ZURA** taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

**AMAIA ZUBIRIA** bakarlariak *Nabil* diskoa aurkeztuko du abenduaren 20an, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrerak salgai daude aldez aurretik kultura etxean, 8 eurotan; leihatilan, 10 eurotan salduko dituzte.

**OÑATIKO MUSIKA BANDAK** Gabonetako kantak joko ditu Gabon egunean, abenduak 24, eguaztena, Foruen plazan, 19:00etan.

**'MUNDUARI BEGIRATZEKO' DISKOA** aurkeztuko du Ganbara Txiki abesbatzak hilaren 27an, domeka, Bidaurretako monasterioan, 18:00etan. Ganbara Txiki abesbatzarekin batera, Ganbara orkestrak eta Araceli Guridi piano-jotzaileak jardungo dute. Aitor Biainek zuzenduko du.

**JOXE MARI ANDUAGA** musikari oñatiarrak *Garunak dantzan* delako diskoa aurkeztuko du kontzertuan. Hilaren 26an, zapatua, izango da, gaztelekuan, 22:00etan.

**GABON ZAHAR EGUNEKO** musika kalejira egingo du Oñatiko Musika Bandak abenduaren 31n, 19:00etan.

**ERREGE EGUNEKO** kontzertua egingo du Oñatiko Musika Bandak urtarrilaren 6an, martitzena, Santa Ana antzokian, 12:30ean. Honako egitaraua dute: *Galas imperiales* (M. Gomez de Arriba), *Gure ibilerak* (J.L. Gurrutxaga), *Mood romantic* (Johan Nijs), *Bella Italia* (Hans Kolditz), *Cantemos villancicos* (M.G. Bastida) eta *Marcha Radetzky* (J. Strauss).

## Antzerkia

**PAKE LEKUKO IKUSI MAKUSI ANTZERKI TALDEAK** *Zenbat urte dako amamak?* izeneko antzezlana egingo du hilaren 19an, egubakoitza, Santa Ana aretoan, 20:00etan.

**'BROKERS'** delako antzezlana egingo du Yllana taldeak urtarrilaren 18an, domeka, Santa Ana antzokian, 19:30ean. Sarrera 10 euro da, eta aldez aurretik eros daiteke kultura etxean.

## Ongi etorri!

**OLENTZERO** Oñatira iritsiko da, herriko ume guztiak agurtzera eta gozokiak banatzera, etxez etxe opariak uztera joan aurretik. Hilaren 24an, Gabon eguna, irtengo da Otadui zuhaiztitik, 18:00etan. Herri osoan ibiliko da.

**EKIALDEKO ERREGE MAGOAK** herrira etorriko dira etxez etxe opariak banatzera; baina lehenengo,

Zorionak eta urte berri on!




Oñati GARAJEA
Goribar auzoa 9 OÑATI
Tel.: 943 78 13 50
e-posta:
garageonati@euskalnet.net

LIZARRALDE KIROLAK
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETAK



ARRASATE
Foruen Enparantza • San Andres auzoa
Tel.: 943 79 91 47
OÑATI
Olakua 16
Tel.: 943 78 29 86

**EGITARAUA**

kabalgata egingo dute Oñatiko kaleetan barrena. Agurtu gura dituzten umeek horretarako aukera dute urtarrilaren 5ean, astelehena. Parrokia ondotik abiatuko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar, 18:30ean.

## Eliza

**SAN MIGEL PARROKIAN** Gabon egunean, 19:00etan esango dute meza; eta Eguberri egunean, 11:00etan eta 13:00etan (gaztelaniaz).

**ARANTZAZUN** Gabon egunean, 19:00etan esango dute meza, eta Eguberri egunean, 09:00etan, 10:00etan, 12:00etan (meza nagusia), 13:30ean (gaztelaniaz) eta 17:30ean.

**BIDAURRETAKO MONASTERIOAN** honako mezak esango dituzte: Gabon egunean, 20:00etan; eta Eguberri egunean, 10:00etan (gaztelaniaz) eta 12:30ean.

**BENEDIKTARREN** komentuko elizan, Gabon gauerdiko meza esango dute; 00:00etan, beraz.

## Hitzaldia

**'BIZITZA ESTRALURTARRAREN BILAKETA'** delako berbaldia egingo du Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta Ilatargi taldeko Bittor Rodriguezek martitzenean, abenduak 30, kultura etxeko zinema aretoan, 19:00etan.

## Kirola

**'2008 IXA 2009 SAN SILBESTRE'** herri lasterketa jokatuko dute abenduaren 31n, eguaztena. Herriko Plazatik abiatuko dira lasterkariak arratsaldeko bostetan. Antxintxiketan elkarteak antolatu du aurten.

**ARETO FUTBOLEKO** koadrilen arteko txapelketa jokatuko dute abenduaren 26tik 28ra, kiroldegian.



OLENTZERORI LAGUN EGITEN

**SASKIBALOIKO** koadrilen arteko txapelketa jokatuko dute abenduaren 30ean eta 31n, martitzena eta eguaztena, Zubikoa kiroldegian.

**GABONETAKO ESKUBALOI TXAPELKETA** jokatuko dute urtarrilaren 2an eta 3an, egubakoitza eta zapatua, kiroldegian, goizez.

**AINHOA LAZKANOREN OMENEZKO** saskibaloi partiduak jokatuko dituzte urtarrilaren 3an, zapatua, kiroldegian, egun osoan zehar.

## Umeendako

**HIPO ETA TOMAX** pailazoek emanaldia egingo dute abenduaren 20an, zapatua, Institutuan, 17:00etan. Errekalde Herri Eskolako guraso elkarteak antolatu du. Sarrera doan da.

**BIZARZURI** gaztelekuan egongo da abenduaren 21ean, gaztelekuan, 18:00etan. Horrez gain, Laixanen postal lehiaketako sariak banatuko dituzte.

**GABONETAKO JOLASPARKEA** ipiniko dute abenduaren 29an eta 30ean, astelehena eta martitzena, Zubikoa kiroldegian, honako ordutegian: 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Egun osoko sarrera, 4 euro; egun erdikoa, berriz, 2,5.

**UR JOKOAK** egiteko aukera izango dute umeek urtarrilaren 2an, egubakoitza, Zubikoako igerilekuan, honako ordutegian: 10:00-12:00 eta 16:00-18:00; eta 3an, zapatua, leku berean, 10:00etatik 12:00etara.

**POXPOLO, MOKOLO ETA KONPAINIA** pailazo taldeak *Mekatxis Mariatxi* delako emanaldia egingo du urtarrilaren 3an, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan.

## Zinema

**'AHATETXO ITSUSIA ETA NI'** delako filma emango dute zapatuan, hilak 27, eta domekan, hilak 28, kultura etxean, 17:00etan.

**'BASOKO IZPIRITUA'** filma emango dute urtarrilaren 2an, egubakoitza, eta 4an, domeka, kultura etxeko zinema aretoan, 17:00etan. Umeei zuzendutako filma da.

## Bertso saioa

**BERTSO JAIALDIA** egongo da urtarrilaren 5ean, astelehena, kiroldegian, 22:30ean. Honako bertsolariek parte hartuko dute: Andoni Egañak, Unai Iturriagak, Aitor Mendiluzek, Maialen Lujanbiok, Sustrai Colinak eta Igor Elortzak. Gai jartzaile Oñatiko bertso eskolako kide batek jardungo du.

## Ikuskizuna

**SANXIA TROUPE** talde txinatarreko akrobatek emanaldia egingo dute abenduaren 21ean, domeka, gaztelekuan, 18:00etan. Lehen ere Oñatin izandakoak dira.



MUSIKA BANDAK HAINBAT KONTZERTU EMANGO DITU



KONTZERTUA

# Amaia Zubiriaren ahotsa entzungai bihar

**Aurtengo Gabonetako egitarauaren barruan, Amaia Zubiriaren kontzertua dago: 'Nabil' izeneko lana aurkeztuko du bihar, zapatua, Santa Ana antzokian**



Ekoiztutako azken lana aurkeztuko du bihar Amaia Zubiria abeslariak. GOIENKARIA

MIRIAN BITERI

**Amaia Zubiriaren ahotsak liluratuko ditu bihar oñatiarrak. Santa Ana antzokian kontzertua eskainiko du, 19:30ean.**

Amaia Zubiria abeslari ezaguna Oñatin izango da bihar, zapatua, egin duen azken lana aurkezten. Kontzertua Santa Ana antzokian izango da, 19:30ean. Sarrerak aurretik eskura daitezke oraindik, zortzi euroren truke.

Baina, betiko moduan, musika emanaldia hasi aurretik sarrerak erosteko aukera izango da. Leihatilak kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko dira. Zubiriaren ahotsa entzun gura dutenek hamar euroren truke erosi ahal izango dituzte sarrerak. Kultura Saileko Amaia Irizarrek jakinarazi digunez, Santa Ana antzokian 280 lagunendako tokia dago guztira.

**KLASIKOA**

Euskal Herriko kantari klasikoek tokia dute urtero Oñatin. Iaz Benito Lertxundi izan zen Gabonetan eta aurten, Zubiriak hartuko du haren lekukoa. Irizarren arabera: "Aztertu dituzten aukeretatik egokiena Amaia Zubiria ekartzea zela iruditu zaigu. Horren harira, musika estilo diferenteak jotzen dituzten eta disko berriak plazaratzen dituzten kantariak ekartzen saiatzen gara".

Esan bezala, *Nabil* izeneko disko berriarekin dator Zubiria Oñatira. Horretan, errepertorio klasikoari heldu dio, bereziki Iparraldeko tradizioari. Hala, *Maitia nun zira*, *Amodioa zoin den zoroa*, *Goizean argi hastean* eta *Adios Izar ederra* kantuak jaso ditu, besteak beste.

**HEGOALDEKO EKARPENA**

Baina, aldi berean, hegoaldeko abestiei ere tokia utzi die, hala nola *Donostiako hiru damatxo* eta *Ama ezkondu* izenekoei. Horretaz aparte, bi emakume kantariren kantu pare bi ere sartu ditu errepertorioan: Lurdes Iriondoren *Hala ere* eta Estitxuren *Agur Maria* abesti ospetsuak.

Lana ekoizterakoan, lau musikari izan ditu ondoan Zubiriak: Pascal Gaigne, gitarrarekin eta diskoaren ekoizpenarekin; Aitor Furundarena, akordeoiarekin; Javi Area, perkusioarekin; eta Ritxi Salaberria, kontrabaxuarekin. Bihar, beraz, kantu klasikoek hartuko dute Santa Ana antzokia.

**Leihatilak kontzertua hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko dira; sarrerak 10 euro balio du**

**Azken diskoan errepertorio klasikoari heldu dio, bereziki Iparraldeko tradizioari**




BATUAK S.A.

MEKANIZAZIOAK

Urte berri on!

Zubillaga industrialdea 12
Tel.: 943 78 11 15
Faxa: 943 71 82 50
e-maila: batuak@batuak.com
www.batuak.com
OÑATI

## ELEKTRIZITATEA, KRISTALDEGIAK ETA ITURGINAK

**TXINTXURRETA,** Kale Barria 5 Tel.: 943 78 0 54
**LETE,** Kale Zaharra 38. Tel.: 943 7814 78
**FELIX ARREGI**, Kale Barria 53. Tel.: 943 78 02 63
**RTV BELAR**, Olakua 1C. Tel.: 943 78 06 57
**ZELAIA**, Patrue kalea 5-10. Tel.: 943 78 04 04
**ELKORO** Kristaldegia, Kazarraga 1. Tel.: 943 78 24 06
**GELATZU,** Zubillaga 1. Tel.: 943 71 63 22

## OPTIKAK ETA ARGAZKIAK

**ITZIAR Optika** Kale Barria 32. Tel.: 943 71 82 88
**ARKAUZ Optika** Lazarraga 2. Tel.: 943 71 60 63
**ION ARZUAGA Argazkiak** Kale Barria 28. Tel.: 943 78 24 81

## BITXITEGIAK ETA OPARI DENDAK

**ARANBURU**Bitxitegia, Kale Barria Tel.: 943 53 45 34
**SUA**, Kale Zaharra 7. Tel.: 943 71 80 12

## ESTANKOAK, PAPERDENDAK ETA INFORMATIKA

**ALTUNA**, Kale Barria 19. Tel.: 943 78 00 03
**IRIZAR**, Foruen enparantza 6. Tel.: 943 78 00 15
**URZELAI**, Kale Zaharra 4. Tel.: 943 78 11 63
**HIRUKAR**, San Lorentzo 1. Tel.: 943 78 08 21
**HARITZA.** Kale zaharra 4. Tel.: 943 78 23 96
**URZAI**, Portu kalea 4. Tel.: 943 71 64 49

## JANARI DENDAK

**SUSTRAI** Kale Barria 1. Tel.: 943 78 00 90
**ANTXON** Harategia, San Lorentzo 5. Tel.: 943 78 25 83
**GARAI** Harategia, Arantzazuko ama 4 Tel.: 943 78 02 59
**JESUS ODRIOZOLA** Harategia, Arantzazuko Ama 2. Tel.: 943 71 62 11
**EGAÑA** Okindegia, Kale Barria 35. Tel.: 943 78 14 67
**SAN MIGUEL KOOP.**, Kale Barria 8. Tel.: 943 78 12 17

## MERTZERIAK ETA LENTZERIAK

**ANE**, Kale Barria 54. Tel.: 943 08 14 09
**ARANTZA**, San Lorentzo 5. Tel.: 943 78 13 90
**BEGOÑA**, Atzeko kalea 4. Tel.: 943 78 21 14
**KUTTUN**, Bidebarrieta 19. Tel.: 943 78 34 44
**URTAZA**, Kale Barria 14. Tel.: 943 78 01 89

## ZERBITZUAK ETA BESTE

**ALTUBE** Zerbitzuak, Portu kalea 5. Tel.: 943 78 12 65
**ARABA BIDAIAK**, Lazarraga 3. Tel.: 943 71 62 16
**URISU**, Foruen enparantza 6. Tel.: 943 71 67 66
**OÑATI GARAJEA**, Goribar auzoa 9. Tel.: 943 78 13 50
**MAGDALENA GASOLINDEGIA**, Santxolopetegi auzoa. Tel.: 943 78 21 05

## OINETAKOAK ETA POLTSAK

**OLALDE**, Kale Barria 38. Tel.: 943 71 61 36
**PATXI, San Lorentzo 9B.** Tel.: 943 78 10 25
**KONTXI**, Foruen enparantza 11. Tel.: 943 78 25 61
**VIKY**, Kale Barria 30. Tel.: 943 78 05 41

# KALITATEZKO PRODUKTUAK ETA ZERBITZUAK GERTU-GERTUAN

TXANDA

# OÑATI, ZURE ZENTRO KOMERTZIALA

**Txantxiku Dendarixen Alkartian partez,**

*Zorionak eta urte berri on!!*

## BURDINDEGIA, LOREAK ETA PENTSUAK

**ELORZA**, Kale Barria 17. Tel.: 943 78 07 80
**JUANITOSA, Kale Barria 24.** Tel.: 943 78 04 62
**KIMU loradenda,** Kale Barria 17. Tel.: 943 08 16 07
**URTXIN loradenda,** Portu kalea 5. Tel.: 943 78 22 41
**BELLOTZA loradenda,** Bidebarrieta 19. Tel.: 943 78 03 04

## DEKORAZIOA, ALTZARIAK ETA ETXEKO EHUNGINTZA

**BARUE**, Santa Marina plaza 4. Tel.: 943 78 36 80
**ARANBURU,** Kale Zaharra 21. Tel.: 943 78 11 60
**PAKITA,** Santa Marina plaza 6. Tel.: 943 78 02 21
**MAIBI**, Mendiko kalea 2. Tel.: 943 78 14 80
**LANTZEN**, Kale Barria 57. Tel.: 943 78 36 79

## JANTZIAK

**MB**, Kale Zaharra 12. Tel.: 628 52 62 65
**CHIC**, Kale Barria 54. Tel.: 943 71 62 69
**LETAMENDI**, Foruen enparantza 8. Tel.: 943 78 10 82
**MARKU,** Kale Barria 6. Tel.: 943 78 03 19
**N.I.,** Kale barria12. Tel.: 943 71 62 40
**URRUTIA** Gizonak, Kale Barria 54. Tel.: 943 78 14 24
**TXARANGA**, Arantzazuko ama 9. Tel.: 943 71 65 87
**IGARZABAL** Ume jantziak, Moiua 10. Tel.: 943 78 16 92

## LURRINDEGIAK, DROGERIAK, MARGOAK

**JASONE**, San Lorentzo 10. Tel.: 943 08 14 62
**LAKET**, Lazarraga 3. Tel.: 943 78 30 84
**ARANBURU**, Kale Barria 47. Tel.: 943 78 19 99

## KIROLDENDAK

**ALZU S.L.**, Arantzazuko Ama 2. Tel.: 943 78 30 67
**LIZARRALDE** Kirolak, Olakua 16. Tel.: 943 78 29 86
**MENDIZABAL** Kirolak, Kale Barria 39. Tel.: 943 78 11 26
**OSI** Mendi-Kirolak, Mendiko Kalea 10. Tel.: 943 78 35 09

## OSASUNA ETA EDERGINTZA

**AMAIA DIAZ DE MONASTIOGUREN**, Kale Zaharra 5. Tel.: 943 71 65 48
**Mª CARMEN**, San Lorentzo 4. Tel.: 943 78 08 86
**LAMIAK**, Euskadi etorbidea 15. Tel.: 943 78 20 50
**NIKOLAS ETA IGONE**, Kale Zaharra 2. Tel.: 943 78 06 78
**Mª JOSE JAUREGIALTZO**, Motxon 5. Tel.: 943 78 00 69
**D'OR ESTETIKA**, Errementari 5. Tel.: 943 53 36 47
**OREKA BELARDENDA**, Kale Barria 9. Tel.: 943 53 34 93
**EKHI-EDER DIETETIKA**, Ramaon Irizar 2. Tel.:943 71 63 00

## OSTALARITZA, KAFE DENDAK ETA GOZOTEGIAK

**ARKUPE**, Foruen enparantza 9. Tel.: 943 78 16 99
**KOROSTI** Kafeak, Bidebarrieta 13. Tel.: 943 78 04 20
**GORROTXATEGI**, Kale Zaharra 24. Tel.: 943 78 03 30
**KIKU** Gozoki denda, Kale Barria 7. Tel.: 943 53 34 93
**MIZKE** Gozoki denda, Kale Zaharra 3. Tel.: 943 78 28 14

**OLENTZERO**

# Zakua beteta duela jaitsiko da Olentzero menditik kalera

**Otadui zuhaiztian egingo diote ongietorria Olentzerori; haurrez gain, Musika Eskolako ikasleak ere egongo dira**

ARANTZAZU EZKIBEL

**Abenduaren 24a berezia izaten da; ez bakarrik etxeko txikienentzat, baita nagusientzat ere. Izan ere, gau horretan Olentzerok gure nahiak betetzen ditu.**

Badator Olentzero, badator! Urte guztia mendian pasa ostean kalera jaitsiko da Olentzero, herritarren desio eta nahiak betetzera. Abenduaren 24tik 25erako gauean izango da hori. Zakua beteta, herriko kaleak zeharkatuko ditu Olentzerok.

Abenduaren 24an, eguaztena, 17:30ean iritsiko da Olentzero Oñatira. Otadui zuhaiztian egingo diote harrera herriko gaztetxoek.

**IDIEN LAGUNTZA**

Zumarragako baserri bateko baserritarrak utzitako bi idiren laguntza izango du Olentzerok Oñatiko kaleetan ibiltzeko. Olentzerok Otadui zuhaiztitik Kale Zaharrera hartuko du; handik, Santa Marinara, eta gero, Euskadi etorbidera. Azkenik, Etxaluzetik Kale Barrira hartuko du eta handik plazara.

Ibilbidean zehar herriko ume eta gazteen laguntza izango du Olentzerok. Gainera, Musika Eskolako musikariek alaituko dute Olentzeroren kalejira. Musika jotzeaz gain, abestu ere egingo dute, herri tradizioko Gabon kantuak.



Olentzerok kalejira egingo du Gabon egunean. GOIENKARIA

**Musika Eskolako ikasleen laguntza izango du Olentzerok herriko kaleetan**

**Herriko plazara iritsiko da ikazkina; han, haurrekin egoteko tartea hartuko du**

**BIZARZURI**

Herriko umeek Olentzerorekin egoteko aukera izango dute herriko plazan. Han, Olentzero ikusi eta gozokiak jasoko dituzte.

Etxean oparia jaso gura duenak gogora dezala abenduaren 21ean, domekan, Bizarzuriri eraman behar diola gutuna. Bizarzuri arduratuko da Olentzerori gutuna eman eta opariak erosteaz.

Eta kontuan har ezazue Olentzerok dena ikusten duela eta gaiztoa izan denari ikatza ekarriko diola.

Madina
Agirre
abokatuak

Amaia Madina Agirre
Abokatua

Goretti Madina Agirre
Abokatua-Ekonomista

Motxon kalea 3, behea
Tel.: 943 78 14 27 • 943 78 14 57
Faxa: 943 78 02 45
20560 Oñati

madinaabog@euskalnet.net

itziar optika



Kale barria 32 • Tel./Faxa: 943 71 82 88
OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

BERTSO SAIOA

# Puntako bertsolariak aukeran Errege bezperan

## Zubikoa kiroldegian izango da jaialdia, 22:30ean

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Ohiturari jarraituz, bertso saioa izango da Errege bezperan. Andoni Egaña, Aitor Mendiluze, Sustrai Colina, Unai Iturriaga eta Igor Elortza izango dira bertsotan.**

Bertso saio ugari izaten da Oñatin urtean barrena. Jaialdi erakoak batzuk, afari girokoak edo jaietakoak besteak. Baina guztiei urtero bidea zabaltzen diena Errege bezperako jaialdia izan ohi da; San Migel jaien inguruko bertso saioarekin batera, jendetsuena eta arrakastatsuena.

Urte mordoa dira jaialdi hori antolatzen dutena, eta Udala eta Bertso Eskola ibiltzen dira horretan elkarlanean.

Bertso Eskolakoek proposatutako bertsolari zerrendari tiraka, Udaleko Kultura Zerbitzukoek osatzen dute kartela urtero. Aurtengorako gertatu dutena ere ez da nolanahikoa: Andoni Egañak, Aitor Mendiluzek, Sustrai Colinak, Maialen Lujanbiok, Unai Iturriagak eta Igor Elortzak jardungo dute.

**San Migeletako saioarekin batera sekulako arrakasta du**

**Udalak eta Bertso Eskolakoek elkarlanean gertatu dute**

Azken biek Bizkaiko finala jokatuta izango dute Oñatiko saiora datozenerako, eta faborito ere badira BECen, abenduaren 20an, Bizkaiko txapela janzteko.

Beste bertsolariek ere eman dute zeresanik nork bere herrialdeetako zein Euskal Herriko txapelketetan eta, noski, batean eta bestean egin dituzten plazetan. Oñatin ere aurrez izanak dira bertsolariok inoiz kantuan.


Unai Iturriaga eta Igor Elortza aurrez ere jardundakoak dira Oñatin bertsotan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**PASKUAL, GAI-EMAILE**

Gai-jartzaile, berriz, Bertso Eskolakoek jardungo dute. Guztien artean gertatuko dituzte gaiak eta Xabier Paskualek egingo du aurkezle lana. Azken urteotan paper hori txandakatu egin dute Bertso Eskolako hainbat kideren artean, eta bigarren aldia izango du Paskualek jaialdia aurkezten.

Bertso Eskolatik esan digutenez, ohiko saioa izango da Errege bezperakoa: "Ikusi dugu modu honetako saioek funtzionatzen dutela Oñatin eta herriko zein ingurutik etorritako entzuleek ondo erantzuten dutela eta gustura egoten direla saioan; txaloengatik, behintzat, hala dirudi. Hortaz, zertarako ezer aldatzen ibili. Gaiak landuko ditugu, baina saioaren itxura mantenduko dugu".

**SARRERAK**

Bertsozaleek urtarrilaren 5ean izango dute bertsoekin gozatzeko aukera, Zubikoa kiroldegian 22:30ean. Sarrerak egunean bertan kiroldegian izango dira salgai, Kultura Zerbitzutik esan digutenez.



ANTZERKIA

# Gazte sentitzen den amama, denboraren aurka borrokan

**'Zenbat urte dako amamak?' gaur Santa Anan, 20:00etan**


2005ean sortutako Ikusi Makusi taldeak *Zenbat urte dako amamak?* obra antzeztuko du. IKUSI MAKUSI

JOKIN BEREZIARTUA

**Pake Leku elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Zenbat urte dako amamak?* lana aurkeztuko dio gaur herri osoari. Aurrez erretiratuendako bakarrik egin zuten.**

Pake Leku erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldearen antzezlana izango da ikusgai gaur Santa Ana antzokian. Oñatiko erretiratuen elkarteak, 1968. urte aldera jaiozenetik, urte mordoxka daramatza erretiratuentzat ekitaldi ezberdinak antolatzen. Ikusi Makusi antzerki taldea da dinamika horren emaitzetako bat.

**65 URTE? EZ, ESKERRIK ASKO**

Gaztelaniaz da obra; arrazoia, Axun Artzuaga zuzendariak adierazi duenez: "Gehienak ez dira euskaraz egitera ausartzen; batzuek ez dakite eta beste batzuek ez dute menderatzen". Argumentuari erreparatuta, dio Artzuagak, "ofizialki erretiratu egiten zaituen 65 urteak bete nahi ez dituen amama baten kasua kontatzen da".

**Amamak ez ditu 65 urte bete nahi; ez du 'erretiratu' dei diezaioten gura**

Aurreko urtebetetzeak familian primeran ospatu ostean, protagonistak 65.a betetzeari uko egiten dio. Eta gainera, bisurtean jaioa denez, horretarako arrazoiak dituela pentsatzen du. Horrek istiluak sortzen ditu familian.

**HERRITARRAK, ANTZEZLE**

Bestelako abenturak ere kontatzen dira obran; esaterako, lau protagonista nagusiek euren argazkikin egutegi bat ateratzeko proposamena. Herriko erretiratuak dira antzezleak. Gaurkoan, besteak beste, Rosi Lucas, Josefina Martin, Karmentxu Maiztegi, Carmen Goitia, Ana Mari Liziaga, Tere Zubia, Angel Agirre eta Ana Mari Chacon izango dira taula gainean.



BIZARZURI

# Bizarzurik gaztelekuko sotoan jasoko ditu gutunak aurten

**Olentzeroren postariak sotoan hartuko ditu haurren gutunak; abenduaren 21ean, aurrekoetan baino beranduago (20:00etan)**

JOKIN BEREZIARTUA

**Badator Olentzero. Hala ere, aurretik, zer oparitu jakin dezan, Bizarzuri etorriko da etzi, oñatiar ume eta gaztetxoen gutunak jaso eta Olentzerori denboraz emateko.**

Olentzeroren postariak lana lepo izango du domeka honetan hasi eta abenduaren 25eko goizaldera arte. Oñatiko haurrek Olentzerori zuzendutako gutuna emango diote Bizarzuririri. Postariak gutun guztiak Olentzerori eman eta elkarrekin irakurriko dituzte. Horrela gertatuko dituzte oñatiar txikienen opari guztiak –bat bera ere ahaztu gabe– banatzeko sarea. Erruz egin beharko dute lan eskaera guztiak bete ahal izateko; aurten ere, baietz lortu!

**Postalen sariketan parte hartu ostean jasoko ditu gutunak Bizarzurik**

### LEKUALDAKETA AURTEN

Bi berritasun aipatu behar dira aurten: alde batetik, Bizarzurik orain arteko gaztelekuko aretoan baino, bertako sotoan haurrekin erosoago egongo dela pentsatu du, eta arrandegiko sarreratik sartu beharko da hura ikusteko. Bestetik, Bizarzurik gutunak aurrekoetan baino beranduago jasoko dituela jakinarazi dute Laixan euskara elkartekoek. Izan ere, postal lehiaketako sari banaketan parte hartuko du. Hortaz, 20:00etan hasiko da gutunak jasotzen.

### POSTAL LEHIAKETA

Sotoan ere, baina ordu eta erdi lehenago (18:30), 7 urtetik 15 urtera arteko ume eta gaztetxoei zuzendutako postal lehiaketaren sari banaketa egingo dute.

Aurtengoan, guztira 650 postal inguru jaso dituzte, eta sei irabazle izango dira; bi adin talde bakoitzeko.

Irabazleek 30 euroko saria jasoko dute. Ez zaie dirurik emango, noski. Bonua izango dute, edozein materialetan gastatzeko.



Irudian, Bizarzuri iazko gutunak jasotzen. GOIENKARIA

MEKANIZATUETARAKO
ZERBITZU OSOA

MEKALKI
S. Coop.

Urte berri on !!

Zubillaga industrialdea 13
Tel.: 943 78 19 11
Faxa: 943 78 29 90
e.maila: mekalki@mekalki.es
http://www.mekalki.es
OÑATI

GOITB

# 'Kantari gala' Oñatin GOITBren eskutik, abenduaren 28an

## Urtea agurtzeko, Gabon zahar egunean gala berezia emitituko du Goiena Telebistak, gauerdian

EDU MENDIBIL

**Urteari agur esango dion telebista saio berezia grabatuko du Goiena Telebistak Oñatiko gaztelekuan, abenduaren 28an. Kantariko gaztetxoek protagonismo berezia izango dute.**


*Kantari*-n parte hartutako hamar talde izango dira Oñatiko saioan. GOIENKARIA

*Kantari gala* izenburuko saio berezia grabatuko du Goiena Telebistak Oñatin. 2008ari agurra egiteko eta urte berriari ongietorria egiteko saioa izango da. Esan bezala, aurretik *Kantari*-ko saioetan parte hartu duten neska-mutikoek protagonismo berezia izango dute. Saio horretan ibili diren talde guztien artean zozketa egin eta gero, hamar taldek hartuko dute parte Oñatiko grabazioan. Kanturik ezagunenak eskainiko dizkigute Debagoieneko herri ezberdinetatik etorritako taldeek. Abenduaren 28an, 18:00etan, izango da hitzordua, Oñatiko gaztelekuan, eta Amaia Txintxurreta aurkezle oñatiarrarekin batera Ainhize Barrainkua aretxabaletarra eta Joanes Plazaola bergararra izango dira agertokian. Haien eskutik emango diogu ongietorria urte berriari, kanpai-hots eta guzti, nola ez. Oñatiko udaletxetik hartuko dituzte irudiak. Esan bezala, Oñatin grabatutako saioa Gabon zahar egunean emitituko du GOITBk, gauerdian. Urtarrilaren 1ean ere errepikatuta ikusteko aukera izango da.

**Festa girorik ez da faltako gaztelekuan; kantari gaztetxoez gain, hainbat sorpresa izango dira**

### FESTA GIROA

Festa girorik, beraz, ez da faltako Oñatin. Kantari gaztetxoez gain, hainbat sorpresa izango dira gaztelekuko saioan. Besteak beste, Eskoriatzako Senzala taldeak capoeira erakustaldia egingo du, eta, horrez gain, trialsin txapelketatan bikain ibili den Aitor Murua gaztetxo aretxabaletarrak ere parte hartuko du saioan. Bizikletarekin duen trebetasuna erakutsiko digu Muruak. Era berean, Alain Alcaraz 11 urteko bergararrak breakdance erakustaldia egingo du saioan.

### SORPRESA UGARI

Antolatzaileek ez dute aurreratzerik gura izan egongo diren beste sorpresak. Onena abenduaren 28an Oñatiko gaztelekura hurbiltzea izango da. Eta aukerarik ez duzuenok saioa GOITBn ikusi ahal izango duzue.

OREKA belardenda
Kale Barria, 9B - OÑATI
Tel.: 943 53 34 93





• Kontsulta naturista
• Dietista
• Kiromasajea (columna vitae)

Gabonetarako opari berezi eta orekatuak gurean dituzu

Gabon zoriontsuak!

BITAONI S.L.

Zorionak eta urte berri on!

Mekanizatua
•
C.N.
•
CAD-CAM

Zubillaga industrialdea 20
Tel.: 943 71 60 44 • Faxa: 943 78 29 39 • Mobila: 639 659 446
bitaoni@telefonica.net

HERRI KROSA

# San Silbestre: urteari agurra lagun artean korrika eginez

## Herri lasterketa abenduaren 31n, 17:00etan

EDU MENDIBIL

**Antxintxiketan Kirol Elkartearen eskutik, 'San Silvestre 2008 ixa 2009' lasterketa jokatuko da abenduaren 31n, Oñatiko kaleetan; 18. ekitaldia da aurtengoa.**

Jexux Arregi Antxintxiketan kirol elkarteko presidentearen hitzetan, "orain arte herriko koadrila batek antolatu izan du San Silbestre krosa eta aurten geuk hartu dugu krosaren ardura". Antxintxiketan elkarteak hiru lasterketa antolatzen ditu urtean zehar: Torreauzoko krosa, Oñatiko nazioarteko herri lasterketa (Corpus jaietan) eta San Silbestrekoa aurrerantzean. Arregiren arabera, ez da aldaketarik izango ibilbideari dagokionez: partaideek zortzi kilometroko ibilbidea egin beharko dute; bi buelta, hain zuzen, ondoko ibilbideari: Foruen plaza, Atzeko kalea, Bidaurreta, Olakua, San Lorentzo, Euskadiko etorbidea, Errekalde, Kale Zaharra, Lizaur kalea, Unibertsitateko etorbidea eta Foruen plazara berriro.

**Antxintxiketan elkarteak antolatuko du; 230 partaide izan ziren iaz**

Lasterketa 17:00etan jokatuko da eta izenematea ordu erdi lehenago itxiko dute plazako Arkupe tabernan. Egunean bertan egin beharko da izenematea. Tradizio handiko lasterketa da San Silbestre herri krosa. Esan bezala, aurtengoa 18. ekitaldia izango da. Iaz 230 lagun inguruk hartu zuten parte. Irabazleek Gabon saskia eramango dute etxera.

**Gaztetxoei zuzendutako probak 16:30ean jokatuko dira**

### GAZTETXOAK ERE BAI

Nagusien lasterketaren aurretik, benjamin, alebin eta infantil mailetako neska-mutikoendako probak jokatuko dira. Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei animatzeko urtea kirola eginez agurtzeko.



Oñatiko San Silbestre krosaren 18. ekitaldia izango da aurtengoa. GOIENKARIA

Gutizeder
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

GABONETAKO ESKAINTZAK AURPEGIAN:
o Azala berritzeko "dermoabrasión" teknika
o Garbiketak
o Hidratazio handia

GORPUTZEKO ESTALKIAK:
o Limoa: indarra hartzeko
o Algak: bolumenarentzat eta zelulitisarentzat
o Spirulina: tinkatzailea
o Peelinga: azala gorputz osoan berritzeko

DELICATESSEN:
o Harri bolkanikoekin egindako masajeak

GAINERA:
o Mediku estetiko baten kontsulta
o Tatuajeak, botoxa, mesoterapia…
o Eskuaren irakurketa: Alberto Alcubierren eskutik
o Feng Shvin: Estherrekin
o Eta abar luze bat.
o Laser bidezko depilazioa.
Bi motatako laserra. Kontsultara etorri zaitez eta galdetu.

Ez diezazutela katua erbitzat saldu
AURTEN OPARI BEREZIAK SALGAI. ZATOZ!
kalebarria 26 behea. 20.560 OÑATI
(Orbea etxea, parke aldetik) Tel.: 943 78 01 46
www.goiena.net/blogak/guztizeder

Urtaza
Lentzeria • Mertzeria • Kortsetegia





Gabon zoriontsuak!
Kale barria 14. Oñati • Tel.: 943 78 01 89

KABALGATA

# Erregeak datoz Oñatiko kaleetara, zaldiz

## Gaztelekutik irten eta ordubeteren ostean 19:00etan helduko dira plazara



Kabalgataren ostean, udaletxeko areto nagusian hartzen dituzte erregeek txikitxoenen eskariak. GOIENKARIA

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Erregeak kabalgatan etortzen dira ibilbidea egin ostean udaletxera, eta han jasotzen dituzte umeen eskutitzak, gauean jaso nahi dituzten oparien berri izateko.**

*Gauza bakoitza bere aldian eta erregeak zaldian,* dio esaerak, eta Oñatira ere hala etortzen dira, dagokien aldian, Errege bezperan eta egokitzen zaien moduan, zaldian.

Aspaldiko ohitura da Errege kabalgatarena. Garai batean egiten zen, bai, baina gero, urte askotako etena egon zen eta orain dela 20 urte inguru berreskuratu zuten ohitura Martinola taldekoek. "Gaita jole eta musika taldea osatu genuen eta horrekin batera hainbat kulturа ekintza antolatzen hasi ginen: erregeen kabalgata, Olentzeroren kalejira, erraldoien konpartsak… Gaur egun, noizean behin elkartzen gara eta kultura ekintzak antolatzen laguntzen dugu oraindik", esan digu Martinola taldeko Imanol Arkauzek.

### DBH-KO IKASLEAK

Kabalgatan parte hartzen dute Oñatiko musika bandak, DBHko 80 edo 100 ikaslek argi-zuzi eramaile eta danbor jole, Saltoka taldekoek jaiotza biziduna eginez, hiru erregeek eta euren morroiek, ikasleak azken horiek ere.

**Kabalgatan parte hartzen dute ikasleek, bandak eta Saltokakoek**

### GAZTELEKUTIK PLAZARA

Seietan gazteleku paretik abiatu eta ordubete inguruko ibilbidea egiten dute herriko kaleetan barrena. Ondoren, udaletxeko balkoitik, plazan zain dauden umeei berba egin eta gozokiak botatzen dizkiete erregeek, eta gero haien eskutitzak jasotzen dituzte udaletxeko areto nagusian.

**Orain denbora luzeagoan egoten dira erregeak umeekin**

Aurtengorako ez dute berrikuntzarik iragarri kabalgatan. "Orain dela bi urte erregeendako arropa berriak egin genituen, baina aurten ez da aldaketarik izango", dio Arkauzek.

Erregeek umeen artean duten arrakasta izugarria da, Imanol Arkauz kabalgataren antolatzailearen esanetan: "Kabalgata hasi orduko badira plazan, erregeengana joateko ilaran, zain egoten diren umeak. Gainera, urtetik urtera gero eta beranduago amaitzen da ekitaldia. Ez dakit ume gehiago dauden edo umeek erregeekin denbora luzeagoa pasatzen duten berbetan, baina gero eta luzeagoa izaten da".

Umeak aurten ere urtarrilaren 5ean zain egongo dira, Meltxor, Gaspar eta Baltasar Oñatira zaldi gainean noiz ailegatuko.



Zorionak eta Urte berri on!
leku eta egun ahaztezinak
120 eta 250 gonbidaturendako jangelak ditugu.
Etxe Aundi
Jatetxea-Hotela**
www.etxeaundi.com
Torre Auzo 9
OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56

GANBARA TXIKI ABESBATZA

# 'Munduari begiratzeko' disko berriaren aurkezpen kontzertua

JASONE ZABALA

**Ganbara Txikik lehen diskoaren aurkezpena egingo du Gabonetan. Lan handia egin ondoren, Aitor Biainen zuzendaritzapean 17 lan jasotzen dituen diskoa da aurkeztuko dutena, 'Munduari begiratzeko' izenekoa; hainbat musika estilo batzen dituen diskoa da.**



Ganbara Txiki taldeak lan handia egin du lehen disko horretan. AITOR BIAIN

Datorren abenduaren 27an, Ganbara Txikiren lehen diskoaren aurkezpen kontzertua egingo dute Bidaurreta monasterioan, 18:00etan, eta sarrera doakoa izango da. Lehen disko horri *Munduari begiratzeko* izena jarri diote. Kontzertuan, Ganbara Txiki abesbatza, Ganbara orkestra eta Araceli Guridi piano-jolea izango dira, guztiak Aitor Biain oñatiarraren zuzendaritzapean.

**KONTZERTUAREN EGITURA**

Kontzertuak bi zati izango ditu: lehenengoan, orkestrarekin mundu osoko Gabon kantuak entzuteko aukera egongo da. Batzuk berriak, beste batzuk klasikoak, *White Christmas* kasu. Bertan estreinatuko da J. Elberdinen *Gabon suitea*, orkestrarekin lehen aldiz. Bigarren zatian, berriz, diskoko abestiak entzuteko aukera egongo da; ez denak, baina bai batzuk.

**17 LAN DISKO BERRIAN**

Diskoa 17 lanez osatua dago. Aitor Biain Ganbara Txikiko zuzendariak hauxe adierazi digu: "Musika desberdina egiteko aukera izan dugu diskoan. Bai *a capella* –musikarik gabe–, pianoarekin, musika instrumentuekin... Hainbat estilo jorratzeko aukera ere izan dugu: jazza, euskal musika, munduko folklorea, gospela, eliz musika...". Biainen ustez, disko oso osatua geratu da. Diskoan abesti espiritual ezagunak daude; adibidez, *This little light of mine*; baita euskal kantu ezagunak ere, esaterako, *Lau teilatu* abestia.

Disko horrek ere badu zerbait berezia: koruarendako berarendako idatzitako obrak dauzka: *Munduari begiratzeko* (X. Sarasola), *Wonkabite* (E. Ugalde)... "Egia esatearren, oso polita geratu da guztia", adierazi digu Bianek.

## Diskoa salgai herriko hainbat lekutan

**Diskoa irailaren 19an, 20an eta 21ean grabatu zen Santa Krutz komentuan, Azkoitian. NB diskoetxearekin grabatu dute, eta "oso esperientzia polita izan zen", Biainen esanetan. 28 grabazio izan ziren, eta asko ikasi zuten bertan egon ziren guztiek. Zuzendari musikala Malchom eta teknikaria Jean Michel Olivares izan ziren. Diskoa abenduaren 18an jarri zen salgai, eta ondorengo lekuetan erosi daiteke: turismo bulegoan, kultura etxean, Haritzan, Izarraitzen, Luisenean, Belarren eta *www.ganbara.org* webgunean.**




Lehen diskoaren azala. AITOR BIAIN






LEHIAKETA

# Herritarrek aukeratuko dute laugarren erakusleiho sariduna

**Herriko 44 dendarik eman dute izena erakusleiho lehiaketan parte hartzeko; besteak beste, diseinua, originaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza hartuko dituzte kontuan epaimahaiko kideek**

MIREIA BIKUÑA

**Herriko dendariek erantzun ona eman diote lehenengo erakusleiho lehiaketari. Dagoeneko ikusgai daude. Epaimahaiak eta herritarrek aukeratuko dituzte irabazleak.**

Herriko merkataritzaren garapenean, euren irudia eta erakargarritasuna hobetzeko helburuarekin, lehenengo erakusleiho lehiaketa antolatu du Udalak, Txanda elkartearen laguntzarekin. Herriko hiru erakusleiho sarituko ditu Udalak, eta laugarren saria herritarrek aukeratuko dute botoen bidez. Guztira, 5.500 euro banatuko dituzte saritan.

Izenematea zabalik egon den artean, herriko 44 dendak eman dute lehiaketan parte hartzeko izena (ikus ondoko taula). Hala-ko txapelketa antolatzen duten lehen aldia izateko, erantzun ona izan du deialdiak. "Pozik gaude herriko dendarien erantzunarekin. Batzuek, gainera, bereziki lan ona egin dute erakusleihoa jartzeko orduan. Maila ona dago", esan digute Txandakoek.



Kale Zaharreko Miren Barrena denda. MIREIA BIKUÑA



Kale Barriako Itziar optika. MIREIA BIKUÑA

**HIRU SARI**

Parte-hartzaileek dendan saltzen dituzten ohiko produktuak jarri dituzte erakusleihoetan. Abenduaren 15etik 31ra arte egongo dira erakusleihoak ikusgai. Tarte horretan erabakiko ditu epaimahaiak sariak. Erakusleiho lehiaketako baldintzetan zehazten den moduan, batez ere diseinua, irudimena, orijinaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza dira epaima-

XANTXIKU
ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Julian Uribeetxeberria Olalde
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
• Errekalde 8
• Kale barria 5
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 01 54

urrats 943533637
Podologia Zentroa



• Kiropodiak
• Azazkal inkarnatuak
• Oin diabetikoen ultzerak
• Garatxoak
• Miaketa biomekanikoak
• Neurrira egindako plantillak
• Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
• Silikonazko protesiak

Bidebarrieta 20 • Oñati
Ordutegia: 09.30etik 13.30era / 15.30etik 20.00etara.

## LEHIAKETA



Portu Kaleko Urtxin loradenda. MIREIA BIKUÑA



Kale Barriako Oreka belar-denda. MIREIA BIKUÑA

haiak baloratuko dituen alderdiak. Hain justu ere, Udala eta Txanda elkarteko ordezkariek eta dekorazio arloko profesionalek osatuko dute epaimahaia, eta erabakiko dituzte lehen hiru sariak nortzuek eskuratuko dituzten. Hiru erakusleiho onenak sarituko dituzte: lehen sailkatuak 2.000 euro jasoko ditu; bigarrenak, 1.500 euro; eta hirugarrenak, 1.000 euro.

**HERRITARREN SARIA**

Bestalde, herritarrek aukeratuko dute laugarren sariko 1.000 euroak nork eskuratzen dituen. Horretarako, azaroko *Kontzejupetik* aldizkariko boto-txartelak bete behar dituzte abenduaren 26a baino lehen. Besteak beste, dendaren izena eta norberaren datuak idatzi beharko dituzte txarteletan eta udaletxeko harrera bulegoan, Turismo Bulegoan edo Bidebarrieta kaleko Garapen Ekonomiko, Enplegu eta Merkataritza Bulegoan entregatu behar dira. Botoa ematen dutenek dendaren izen komertziala eta norberaren izen-abizenak eta telefonoa jarri beharko dituzte. Erakusleihoa aukeratzeko prozesuan parte hartzen duten herritarren artean saski eder bat zozketatuko dute antolatzaileek. Hain zuzen ere, saskiaren zozketa sari banaketa ekitaldia egiten den egunean egingo dute.

Epaimahaiak abenduaren 30ean jakinaraziko ditu saridunak, sari banaketa ekitaldian bertan. Udaleko eta Txandako ordezkariak eta herriko dendariak bilduko dira sariak banatzeko. Ekitaldia osoko bilkuren aretoan egingo dute abenduaren 30ean, 20:30ean.

**Udaleko eta Txandako ordezkariek eta dekorazio arloko profesionalek osatuko dute epaimahaia**

**Herritarrek aukeratuko dute laugarren sariko 1.000 euroak nork eskuratuko dituen**

**Egitarauan bertan islatzen da herriko taldeek aurtengo Santamas egunerako duten ilusioa**

## Erakusleiho lehiaketako parte-hartzaileen zerrenda

| | |
|---|---|
| Adela ile-apaindegia | Errekalde 2 |
| Aranburu drogeria | Kale Barria 47 |
| Aranburu bitxi-denda | Kale Barria 55 |
| Arantza mertzeria | San Lorentzo 5 |
| Arkauz optika | Lazarraga 2 |
| Abenida bideokluba | Euskadi etorbidea 7 |
| Begoña estetika | Atzeko kalea 6 |
| Bellotza loradenda | Bidebarrieta 19 |
| Charanga | Arantzazu 9 |
| D'OR estetika zentroa | Errementari 5 |
| Ekhi-Eder belar-denda | Ramon Irizar 2 |
| Elorza burdindegia | Kale Barria 17 |
| Eroski Bidaiak | Kale Barria 24 |
| Itziar optika | Kale Barria 32 |
| Jasone drogeria | San Lorentzo 10 |
| Jon bitxitegia | Kale Barria 18 |
| Junko elektrizitatea | Moiua kalea 9 |
| Kimu loradenda | Kale Barria 17 |
| Korosti kafea | Bidebarrieta 13 |
| Kuttun lentzeria | Bidebarrieta 19 |
| Laket | Lazarraga 3 |
| Laket-2 | Bidebarrieta 17 |
| Letamendi | Foru plaza 8 |
| MB | Kale Zaharra 10 |
| Maibi | Mendiko kalea 2 |
| Marku | Kale Barria 4-A |
| Mendizabal Kirolak | Kale Barria 39 |
| Onena bideokluba | Bidebarrieta 15 |
| Oreka belar-denda | Kale Barria 9 |
| P. Arregi-Juanitosa | Atzeko kalea 11 |
| Plazaola argazkiak | Kale Barria 21 |
| Plazaola optika | Kale Barria 29 |
| Sesiñena ile-apaindegia | Atzeko kalea 10 |
| Sua bitxi-denda | Kale Zaharra 7 |
| Sustrai fruta-denda | Kale Barria 1 |
| Sustrai fruta-denda | San Lorentzo 2 |
| Thalasso-Eder | Kale Zaharra 42 |
| Txokolateixia | Kale Barria 16 |
| Txuntxurunberde | Kale Barria 20 |
| Urrutia Emakumeak | Kale Barria 54 |
| Urrutia Gizonak-1 | Kale Barria 54 |
| Urrutia Gizonak-2 | Kalegoiena 1 |
| Urtaza lentzeria | Kale Barria 14 |
| Urtxin loradenda | Portu kalea 5 |

LIZKER
ZERBITZU INFORMATIKOAK
Tel.: 943 78 08 90
e-posta: informatika@lizker.com
• Salmentak
• Instalazioa eta mantenua
• Konponketak
• Aholkularitza informatikoa enpresa eta partikularretan

Lizker
aholkulariak
asesores
Tel.: 943 71 80 52
• Aholkularitza fiskala
• Lan aholkularitza
• Kontabilitatea
• Zerga aitorpena

Zorionak eta urte berri on!
Errementari plaza 2-3 behea • Oñati


Xumearen
Dotoretasuna
Ehune
Apainketa
Garibai, 8 • Tel: 943 77 11 48 • 20500 ARRASATE

**FUTBOLA** > ERREGIONALA

# Bergarak bigarren postuan dagoen Lagun Onak du zain

Bergara geroago eta liderrago da, bigarren sailkatua dagoeneko sei puntura dago-eta

Azpeitian irabaziz gero mahoneroek pauso galanta emango lukete sailkapenean



Mahoneroak, joan den asteburuan, Urolari egindako goletako bat ospatzen (4-1). JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Lehen erregional mailan lider dagoen Bergarak (33) bigarren postuan dagoen Lagun Onak (27) taldearen zelaira egingo du asteburuan bidaia (zapatua, 16:00).

Joan den astean laugarren postuan zegoen Urolak errepaso polita hartu zuen Agorrosinen (4-1), eta gainera, Bergara gehien estutzen dabilen Lagun Onak taldeak estropezu egin zuen Lazkaoren zelaian. Horri esker, mahoneroek sei puntuko aldea dute sailkapenean, eta asteburuko hitzordua ondo gainditzen badute Manu Diazen mutilek 2009an duten helburu nagusia lortzeko –Preferentera igotzea– dena izango dute alde.

Hain zuzen, dagoeneko guztiek dute argi zein den kategoriaz igotzeko hautagai nagusia.

**BTLS-EK MONDRAREN BISITA**

Joan den astean ligako azken sailkatuaren kontra denboraldiko partidu txarrena egin zuen BTLS-ek, eta azken asteotako emaitza txarrei buelta emateko Mondra mendean hartzen ahaleginduko dira Bergarakoak bihar arratsaldean (16:00etan Ipintzan). Horrekin batera, taldetik aditzera eman dute Errege egunean egingo dutela bazkideen arteko zozketa. Zozketa horretan irabazleak Tunezera bidaia irabaziko du, edo bestela, beste bidaia bat egiteko 1.000 euroko txartela.

**SOKATIRA** > ERAKUSTALDIA

# Aresoko taldea dator sokatiran egitera

Aresokoek bihar egingo duten erakustaldian herritarrek parte hartu ahal izango dute

**X.U.** > BERGARA

Aresoko (Nafarroa) sokatirako lagunak Agorrosinen izango dira bihar, erakustaldia egiten (11:30). Nafarroako talde horren asmoa da kirol hori bergararrei erakustea, eta bidez batez, parte hartzera gonbidatzea: "Lehenengo saioak taldekideok egingo ditugu, baina ondoren gura duten herritarrek gurekin batera egin ahal izango dute tira. Hori bai, ekar dezatela arropa zaharra, eta mendiko botak", adierazi du Gari Garitanok.

Sokatira saio hori Agorrosineko belargunean egingo dute, igerileku ondoan dagoen zelaian: "Hori bai, erabat lokaztuta egongo da zelaia".



Aresoko sokatira taldea, Leioan egindako txapelketan. G.GARITANO

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Zigalitis-Internacional | **3-0** |
| Zigalikatis-UD Akabaoak | **4-7** |
| CM Errotagain-Niu Tim | **7-2** |
| CM Errotagain-Irubide Taberna | **9-3** |
| Los Latinos-Irubide Taberna | **12-3** |
| Irish Pub-Internacional | **8-5** |
| Monte Taberna-Los Blus | **3-5** |
| Los Latinos-Carboneros | **4-8** |
| Diego Valor-Belengua | **6-6** |
| Niu Tim-Komando Piperrak | **5-6** |

**PARTIDUAK**

| Abenduak 21, domeka | | Epaileak |
|---|---|---|
| **09:30** | CM Errotagain-UD Akabaoak | **Irubide** |
| **12:00** | Internacional-Irubide | **CM Errotagain** |
| **16:00** | Monte Taberna-Irish Pub | **Zigalikatis** |
| **17:00** | Zigalikatis-Los Latinos | **Monte Tab.** |
| **18:00** | Niu Tim-Belengua | **Los Latinos** |
| **19:00** | Carboneros-K.Piperrak | **Niu Tim** |
| **20:00** | Diego Valor-Los Blus | **K.Piperrak** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 33 | 11 |
| **2.** | Carboneros | 31 | 11 |
| **3.** | Los Latinos | 27 | 11 |
| **4.** | CM Errotagain | 26 | 11 |
| **5.** | Zigalikatis | 22 | 11 |
| **6.** | Komando Piperrak | 19 | 11 |
| **7.** | Belengua Taberna | 13 | 11 |
| **8.** | Los Blus | 12 | 11 |
| **9.** | Diego Valor Ilea | 11 | 11 |
| **10.** | Internacional | 10 | 11 |
| **11.** | Niu Tim | 10 | 11 |
| **12.** | Irish Pub | 6 | 11 |
| **13.** | Monte Taberna | 3 | 11 |
| **14.** | Irubide Taberna | 1 | 11 |

### 2008ko azken jardunaldia jokatuko dute asteburuan

Oraingo asteburuan jokatuko duten Labegaraietako txapelketako hamabigarren jardunaldia 2008ko azkena izango da, eta Gabonetako oporraldiaren ostean, urtarrilaren 11n jokatuko dute 2009ko lehenengo jardunaldia.

Horrekin batera, txapelketako antolatzaileak aste barruan elkartu dira Udaleko ordezkariekin, txapelketa behar den moduan antolatzeko izan dituzten arazoen gainean berba egiteko. Eta, Udaletik aditzera eman dute dagoeneko hasi direla arazo horiek konpontzeko lanean.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

disdira
ile apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA
ISO 9001:2000



• **Juridikoa:**
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:**
- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• **Fiskala:**
- Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• **Kontabilidadea:**
- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!**

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es




**Kantari gala**

2009 urteari ongi etorria emango diogu!

**Zatoz Oñatiko Gaztelekura!**

**GALAKO PROGRAMA**
Kantariko ekitaldian parte hartutako taldeak.

**ERAKUSTALDI BEREZIAK**
- Samu Crew (Break dance)
- Kapoeira
- Trialsin

**Abenduaren 28a**

**Ordua:** 18:00etan
**Lekua:** Oñatiko Gaztelekuan.
**Aurkezleak:** Ainhize eta Joanes

ANTOLATZAILEA
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**INGURUMENA**

## Zaborraren gaineko erakusketa urtarrilean

**M.A.** > ARETXABALETA
Ingurumenari eskainitako hilabetea izango da urtarrila, eta Ingurumen Sailak erakusketa eta berbaldiak antolatu ditu. Mankomunitatearen eskutik zaborraren gaineko erakusketa iritsiko da eta urtarrilaren 7tik aurrera jarriko dute ikusgai.

Birbira taldeak egindako lanak izango dira, eta bost multzotan banatuta egongo da erakusketa, materialaren arabera: edukiontzi orokorrera botatako gauzekin egindakoak, paperaren edukiontzira botatakoekin egindakoak, edukiontzi horikoekin egindakoak, beirarekin egindakoak eta *Birbira* izeneko edukiontzian dauden materialekin egindakoak.

**ADITUEN ESKUTIK BERBALDIAK**
Bestalde, urtarrilaren 14an hasita, berbaldi saioak izango dira hiru eguaztenetan Arkupe kultura etxean. Filma eskainiko dute lehenengo, eta gero berbaldia egongo da, aditu batek bideratuta. Lehenengoa zor ekologikoaren gainekoa izango da, eta Ekologistak Martxan taldeko Iñaki Barcena etorriko da.

> ELKARTASUNA

### Bidezko merkataritza denda izango da bihar

Hiruatx elkarteak bidezko merkataritzako produktuak saltzeko denda jarriko du bihar, hilak 20, udaletxe zaharreko atartean (10:00-14:00).

Hainbat herrialdetik ekarritako produktuak salduko dituzte eta, bide batez, bidezko merkataritza zer den eta irizpideak zeintzuk diren azalduko dizkiete hurreratzen direnei.

**ELKARTASUNA** > HIRUATX ELKARTEA

# Ekuatore Ginean nekazaritza ekoizpena hobetzea dute helburu

Familien elikadura hobetu eta diru iturri izango den uzta lortu gura dute

Proiektua lantzen dabiltzan bi lagunek berbaldia egingo dute urtarrilaren 7an

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Ekuatore Gineako Mitemelete herrian dabil lanean Hiruatx elkartea azken hiru urteotan. Oilasko kooperatiba jarri zuen abian lehenengo –2005 eta 2006 artean– eta orain nekazaritza ekoizpena hobetzea du helburu.


Mitemeleteko nekazari bat lanean. HIRUATX

**ELIKADURA ETA DIRU ITURRIA**
Nekazaritza proiektuak bi atal ditu: batetik, ortuko etekinak hobetuz familietan elikadura maila egokia lortzea; eta bestetik, landaketa batzuk abian jartzea familiendako diru iturri izango diren uztak lortzeko. Izan ere, diru iturria izateak bizitza duinagora hurbilduko lituzketela uste dute Hiruatxeko kideek: heziketa, osasun zerbitzua, etxebizitza, edateko ura… Uzta horiek –artoa, soya eta yuka–, gainera, badute eroslea: oilaskoen granja. Hala, garapen eraginkorraren oinarriak ezarri gura dituzte Ginean: familien elikadura –autohornikuntza–, diru sarrerak ziurtatuko dituen ekoizpena eta ekoizpen hori merkaturatzea –kooperatiba bidez. Oinarri horiek lankidetzaren azken helburuak lortzeko bidea ezarriko lukete: herri bakoitzaren autosustentua –kanpokoen menpekotasunik ez– eta autokudeaketa –bere burua gobernatu.

Nekazaritza proiektua 2007ko irailean hasi zuen Hiruatxek, eta 100.000 euroko konpromisoa hartu zuen orduan. Dagoeneko 70.000 euro batu ditu, eta gainerakoa 2009ko ekaina bitartean batu gura du kolaboratzaile eta herritarren laguntzarekin. Horretarako, kontuak zabalik dituzte Kutxan eta Euskadiko Kutxan.

**BERBALDIA URTARRILAREN 7AN**
Proiektuaren gaineko berriak bertatik bertara jakiteko aukera izango dute, gainera, herritarrek. Ekuatore Ginean boluntario lanean dabiltzan Laura Darphin eta Jonathan Domarle nekazaritza ingeniariak etorriko dira urtarrilaren 7an, eguaztena, Arkupe kultura etxera (19:30). Nekazaritza proiektuaren gaineko berriak ekarriko dituzte eta herritarren galderak erantzun.


Santiago Lonbide eta Isabel Murillo omenduak, opariak eskuan dituztela. BASOTXO

**ERRETIRATUAK** > BASOTXO ELKARTEA

# 90 urteko bazkideak omendu dituzte

Isabel Murillo eta Santiago Lonbide izan dira omenduak

**M.A.** > ARETXABALETA
Urtero legez, Santa Luzia eguna ospatu zuten Basotxo erretiratuen elkarteko kideek hilaren 13an. Ekitaldi apal baina polita antolatu zuen zuzendaritza batzordeak eta gustura egon ziren erretiratuak Basotxoko egoitzan. Trikitilariek girotu zieten eguna eta txokolate beroa eta bizkotxoa janda bukatu zuten ospakizuna.

Gainera, 90 urteko bazkideak omentzeko aprobetxatzen du urtero elkarteak, eta aurten bi lagunek jaso dituzte dantzarien agurra eta opariak: Isabel Murillok eta Santiago Lonbidek.

Santo Tomas egunean ere, hilak 21, ospakizuna izango dute erretiratuek Basotxon.



**GABONAK** > EGITARAUA

# Haur ikuskizunak, zinema eta musika, urtea amaitu aurretik

Olentzero, Bizarzuri eta errege kabalgata ez dira ohiko tokitik irtengo; kirol etxetik abiatu beharrean, Iralabarri plazan hasiko dute ibilbidea

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Aurtengo Gabonak ekimen kulturalez josita datoz. Kultura Sailak egitarau potoloa antolatu du datozen egunotarako. Horretan askotariko ekimenak daude, hala nola musika emanaldiak, ikus-entzunezkoa, helduendako zein haurrendako zinema eta ume ikuskizunak.

Gaurtik domekara bitartean, esaterako, *Che, el Argentino* filma emango dute Arkupen. Barikuan eta zapatuan 22:00etan hasiko da esandako emanaldia eta domekan, berriz, 19:30ean. Benicio del Toro protagonista duen filma ikusi gura duenak lau euro ordaindu beharko ditu.

Horretaz aparte, bihar, Aretxabaletako akordeoi orkestrak urteroko kontzertua eskainiko du herriko parrokian, 20:30ean. Martitzenean, abenduak 23, Felipe Uriartek *Shesheren herrian* izeneko ikus-entzunezkoa eskainiko du Arkupen. Hitzordua 19:30ean egina dago.

**GABON GAUA**

Gabon egunean, Olentzero eta umeak izango dira protagonista nagusiak. Goizean hasiko dira egun horretako ekimenak. Neska-mutikoak, gurasoak lagun dituztela, Gabon kantuak abestera irtengo dira kalera, 10:30ean. Herriko plazan elkartu eta hainbat kaletan abestuko dute, baita Urats Gain zaharren egoitzan ere. Eguerdian bukatuko dute ekitaldia, mokadutxoa janda herriko plazan.

Arratsaldean, Olentzero iritsiko da herrira. Kultura Sailak aurtengo ibilbidea aldatzea erabaki du, eta, hortaz, kirol etxe zaharretik atera beharrean, Iralabarri plazan hasiko da.

Hona hemen umeek hainbeste maite duten ikazkinak egingo duen ibilaldia: Araba ibilbidetik bueltan Bizkaia kalera joko du; handik Loramendi kalera eta Belorrietara, eta Andramari auzunetik Mitarte kalera. Gero, Durana kaletik herriko plazara igoko da jaiotza agurtzera. Leizarra musika eskolako neska-mutikoek Gabon kantuak abestuko dizkiote.

**GOSPEL KONTZERTUA**

Gospel musika estiloa gustuko dutenek, bestalde, hitzordua dute barikuan, abenduak 26. The Upper Room taldeak emanaldia egingo du Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan. Ikuskizun horretarako sarrerek zortzi euro balioko dute.

Hurrengo egunean, zapatua, antzerkiaren txanda izango da. Hamar euroren truke, *Ohean* izeneko antzezlana egongo da ikusgai areto eta ordu berean: Arkupeko Zaraia aretoan, 19:00etan, hain zuzen ere. Domekan, abenduak 28, berriz, haurrek beteko dituzte areto horretako eserlekuak. Teatro Trapero del Rio talde bilbotar ospetsua *Urrun erreinua* txotxongiloekin izango da han. Sarrerek hiru euro balioko dute.

**HAURRENDAKO ZINEMA**

Abenduaren 29an eta 30ean haurrentzako zinema egongo da. Lehenengo egunean, *Betizu eta urrezko zintzarria,* eta bigarrenean, *Donkey Xote* filmak emango dituzte etxeko txikienendako. Bi ordu jarri dituzte horiek hiru eurogatik ikusi ahal izateko: 16:30ean eta 18:30ean. Film biak euskaraz emango dituzte.

Gabon zahar gauean Bizarzuri izango da herrian, umeek erregeei bidali behar dizkieten eskutitzak jasotzen. Olentzero bezala, Iralabarri plazatik irtengo da, 18:30ean. Baina, betiko moduan, Duranan Otalora kalerantz hartuko du bidea, kuartel zaharrean bukatzeko.

Urtarrilaren 5ean, azkenik, hiru erregeen kabalgata izango da. Olentzeroren ibilbide bera egingo dute horiek, 18:30ean hasita.



GOIENKARIA

## Urtebeterekin, Petrechema mendian

Herriko mendizale talde bat Pirinioetan izan zen udazkenean eta 2.366 metroko garaiera duen Petrechema mendia igo zuteneko irudia bidali gura izan dute. Hona hemen esandako mendira igo zirenak: Nicasio Unanue, Mari Tere Etxabe, Maritxu Iturbe, Josetxo Atxaga, Ane Arrese, Enaitz Atxaga eta argazkia atera zuen Javi Irure. Azkar hasi da Enaitz Atxaga garaiera handia duten mendiak igotzen, urte eta erdi baino ez du-eta.

**EUSKARA** > LORAMENDI

# Loramendik pala txapelketaren finala eta bertso afari ederra antolatu ditu gaurko

M.B. > ARETXABALETA

Gaur, egubakoitza, *Jotzeko prest* pala txapelketaren finala jokatuko da Iturrigorri frontoian, 19:00etan. Garikoitz Ibartzabalek eta Urtzi Amianok osatzen duten bikotea Arkaitz Lizarralde eta Ibairen kontra lehiatuko da. Ibartzabal eta Lizarralde oñatiarrak dira, Amiano arrasatearra eta Ibai aretxabaletarra.

Lehiaketatik garaile irteten direnek txapela eta afaria irabaziko dute; bigarren bikotea, berriz, pala bana. Partaide guztiek, gainera, Loramendiko produktu sorta eskuratuko dute.



Iturrigorri frontoian jokatuko da pala txapelketa. GOIENKARIA

**ARZALLUS ETA COLINA**

Aurreko urteotan egin den moduan, finalaren ostean poteoa egingo dute, trikitilariek lagunduta; eta 21:30 aldera, Murualde elkarterantz abiatuko dira, afaltzera. Loramendikoek 60 lagun inguru espero dituzte. Hauxe da hara joaten direnek izango duten menua: mokaduak, entsalada, oilaskoa, gazta eta irasagar-gozokia, kafea eta kopa.

Ohiturari jarraituz, bertsolariak egongo dira afalostean. Aurten Amets Arzallus eta Sustrai Colina kantuan entzuteko aukera izango dute Murualden afaltzen dutenek.

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

112
SOS DEIAK

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79

ETXEBIZITZAK > ZOZKETA

# San Martingo etxeen zozketa udaberrian egin gura dute

Azaroko osoko bilkuran onartu zituzten zozketarako behin-behineko oinarriak

Oinarriak jendeaurrean daude, alegazioak aurkeztu ahal izateko



San Martin guneko etxebizitza batzuk ia bukatu dituzte. Beste batzuk, hasi berri daude. MIREIA BIKUÑA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Atzerapenarekin, baina udaberri aldera egingo dituzte San Martinen eraikitzen diharduten babes ofizialeko 45 etxebizitzen zozketa. Hala adierazi zuten azaroko osoko bilkuran, eta zozketa arautuko duen oinarri zerrenda onartu zuten udal ordezkariek.

Prozesua luzea da, baina lehen urratsa eman dute: babes ofizialeko etxebizitza eta garajeen adjudikaziorako oinarriak Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zituzten abenduaren 12an. Orain, hilabeteko epea dute interesatuek alegazioak aurkezteko, urtarrilaren 20a arte.

**ETXEBIDEKO ZERRENDAK**

Ondoren, beharrezkoak diren alegazioak kontuan hartuta, oinarrien behin betiko zerrenda onartu beharko dute osokoan. Deialdia Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu ondoren, Udalak zerrendak eskatuko dizkio Etxebideri. Baldintzak betetzen dituzten hautagaiekin zerrenda egingo dute udal ordezkariek, eta behin betiko zerrenda egiten dutenean, zozketarako eguna zehaztuko dute.

Hori guztiori kontuan hartuta eta atzerapenik ez badago, zozketa udaberria aldera egitea aurreikusten dute.

**LAU KUPO**

Guztira, babes ofizialeko 45 etxebizitza egingo dituzte: horietatik 33 hiru logelakoak izango dira; bederatzi, bi logelakoak; eta hiru, logela bakarrekoak. Bestalde, garajeak eta etxeari lotutako trastelekuak derrigor etxearekin batera erosi behar dituzte.

Zozketan lau kupo bereiztuko dituzte: mugikortasun urria edo iraunkorra duten ezgaituen artean bi etxe zozketatuko dituzte; hiru seme-alaba ego gehiago dituztenendako edo familia ugariendako, hiru logelako bi etxe gordeko dituzte. Bestalde, lau urteko antzinatasunarekin Etxebiden izena emanda daudenen artean bi etxebizitza zozketatuko dituzte. Azkenik, gainerako 27 etxeak kupo orokorreko hautagaien artean banatuko dituzte. Bestalde, kupo berezietan etxe barik geratzen diren hautagaien izenak kupo orokorreko zozketan sartuko dituzte.

**SAN MARTINEKO GUNEA**

San Martineko gunean babes ofizialeko 196 etxebizitza; tasatutako 11 eta merkatu libreko 99 etxe egingo dituzte. Guztira, 34.350 metro koadro eraikiko dituzte.




MIKEL MANTXOLA

## Illarramendiren epaiketan egon ziren Parisen

Mikel Illarramendi oñatiar presoaren aurka egiten diharduten epaiketan egon ziren Oñatiko eta Eskoriatzako senitartekoak eta lagunak. Hain zuzen ere, abenduaren 12an egon ziren Parisko Auzitegian. Egun hartan, auzitegiaren kanpoaldean elkarretaratzea egin zuten (goiko irudia), eta Illarramendirekin berba egiteko aukera izan zuten. "Hamaika pertsonaren aurkako epaiketa egiten dihardute, eta guztiak zeuden kristalezko gelaren barruan. Mikelekin berba egiteko aukera izan genuen, eta nahiko ondo dago", esan digu epaiketan egon zen Mikel Mantxola oñatiarrak. Epaiketa abenduaren 9an hasi zuten eta gaur da azkeneko eguna. Datozen egunetan emango dute epaiaren berri.

> ANTZERKIA

### Gaur, Ikusi Makusi antzerki taldearen emanaldia 20:00etan

Pake Leku erretiratuen elkartekoa Ikusi Makusi antzerki taldeak emanaldia egingo du gaur Santa Ana antzokian, 20:00etan. *Zenbat urte dako amamak?* delako antzezlana eskainiko dute herritar guztiendako. Txartelak salgai jarriko dituzte antzokiko sarreran.

Ikusi Makusi taldeak azken antzezlaneko lehenengo emanaldia erretituendako bakarrik egin zuen azaroaren 14an.

> MUSIKA

### Ganbara Gazte taldea aurkeztuko dute domekan Santa Anan

Ganbara Gazte taldeak aurkezpena egingo du domekan, Santa Anan 19:00etan, Ganbarako gainerako taldeekin eta kantu tailerrekoekin egingo duen kontzertuan.

Ganbara Gazte taldea 15 eta 18 urte arteko 25 gaztek osatzen dute. Hainbat proiektu dituzte eskuartean; besteak beste, urtarrilean ETBk egingo duen *Oh happy day* abesbatzen lehiaketan parte hartuko dute.

> BILKETA

### Venezuela eta Nikaraguarako eskola materiala

Eskoriatzako Humanite eta Hezkuntza Zientzien fakultateko hiru ikaslek praktikak egingo dituzte Venezuela eta Nijaraguako ikastetxeetan. Horren harira, eskola materiala jasotzeko deia egin dute. Gaztelaniazko ipuinak eta idazteko materiala jaso gura dituzte astelehena baino lehen Txantxiku Ikastolako bulegoetan.

Bestalde, nahiago dutenek diru ekarpena egin dezakete ikastolan bertan.

> GABONAK

### Bizarzurik domekan jasoko ditu gutunak Olentzerorendako

Olentzeroren postari Bizarzurik domekan jasoko ditu herriko neska-mutikoen gutunak. Antolatzaileen esanetan, 19:00ak aldera heldukо da gaztelekuko sotora.

Bestalde, leku berean egingo dute Laixaneko postal lehiaketako sari banaketa. Irabazle bakoitzak 30 euroko erosketa-txartela jasoko du. Lehiaketara aurkeztutako postalak ikusgai jarriko dituzte gaztelekuko sotoan.

**HIRIGINTZA** > ERREGE DEKRETUAREN DIRULAGUNTZAK

# Inbertsioak egiteko ideia bila, herritarrei galdetuko die Udalak

Espainiako Gobernuak diruz lagunduko dituen lanak zehazteko laguntza eskatu dute

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Udalak beste aukera bat eman gura die herritarrei udal erabakietan esku hartzeko. Hain zuzen ere, datorren urtean udalerrian zein inbertsio egin gura lituzketen gainean iritzia emateko buzoiak jarriko ditu. Horren harira, gaur, egubakoitza, herriko atarte gehienetan oharrak jarriko dituzte, herritarrek kontsulta horretan noiz eta zelan esku har dezaketen azaltzeko.

Kontua da Espainiako Gobernuak, 2009an ekonomia suspertzeko helburuarekin, udalerri guztiei dirulaguntzak eman gura dizkiela biztanle proportzioa kontuan hartuta. Eskoriatzak ere kopuru zehatz bat jasoko du obra publikoak eta enplegua sortzeko inbertsioak sustatzeko.

Gaurtik, egubakoitza, hilaren 30era arte herritarrek esku hartzeko aukera izango dute. Horretarako, proposamenak jasotzeko, ontziak jarri dituzte Udal Bibliotekan, kiroldegian eta udaletxean.

**ONTZIETAN PROPOSAMENAK**

Udalak eskatzen duena da herritarrek folio baten norberaren ustez proiektu, obra edo hobekuntza garrantzitsuenak labur azaltzea, bakoitzak eman gura dituen zehaztasunekin. Proposamenak modu anonimoan edo norberaren datuekin aurkeztu ahal izango dira. Azken kasu horretan, Udalak aukera izango luke proposamena egin duenarekin harremanetan jarri eta proposamenaren gainean izan ditzaketen zalantzak edota ekarpenak eurekin argitzeko.

**ESKAERAK, URTARRILEAN**

Hala ere, bitartean, Eskoriatzako Udala dirulaguntzetara aurkez daitezkeen herriko proiektu eta obrak aztertzen hasia da.

Hain zuzen ere, eskaerak egiteko denbora oso mugatua da, urtarrilaren hasieran aukeratu beharko direlako lehentasunezkotzat jotzen diren inbertsioak.

Behin herritarren ekarpen eta eskaerak jaso ostean eta aldez aurretik Udalak esku artean dituen proiektuak kontuan izanda, Espainiako Gobernuari aurkeztu beharreko proiektuak baloratu eta erabakiko ditu.

Espainiako Gobernuak onartutako Udal Inbertsioen Errege Dekretuak 8.000 milioi euroko aurrekontua dauka, eta, azaldu dutenaren arabera, udalerri bakoitzak daukan biztanle kopuruaren proportzioan banatuko dute.

**UDALEK AURKEZTU BEHARREKOA**

Udalek inbertsioen memoria, aurrekontuak, epeak eta zeregin horretarako kontratatuko duten langile kopurua aurkeztu beharko dute; eta baita lan hori 2009ko aurrekontuetan aurreikusita ez zegoela ziurtatuko duen agiriren bat ere. Horren arrazoia da diruz lagundutako inbertsio horiek ezin direla udaletan aurrez onartuak egon.

Diruz lagunduko dituzten lanen artean honako hauek egon daitezke: udalerriko eremu publikoak hobetzea edo berritzea, azpiegitura publikoak jarri edo hobetzea, zerbitzu publikoa ematen duten eraikinen eraikitzea edo konponketa, oztopo arkitektonikoak ezabatzea, ingurumenaren aldeko iniziatibak, ondare historikoaren aldeko interbentzioak eta beste.



Bi elizateen arteko bidearen tramu bat berriro printzatu da eta zati bat behera jausi da. ESKORIATZAKO UDALA

**ELIZATEAK** > LUR JAUSIAK

# Gellao eta Apotzaga arteko bidea erabili ezinda gelditu da, lur jausien eraginez

Iturbe, Arkazuena eta Etxebarrialde baserrietakoek ezin dute autoa erabili

Bidearen azpian dauden ur korronteak aztertzeko premia ikusten dute

**I.B.** > ESKORIATZA

Joan den egubakoitzean, beste behin, Gellao eta Apotzaga arteko bide zati bat printzatu eta jausi egin zen.

Bi elizate horietako auzotarrak aspalditik atsekabetuta daude bide horren tramu hori behin baino gehiagotan jausi delako, eta ez aurreko agintaldian ezta oraingoan ere bideari ez zaiolako behin betiko konponbiderik aurkitu. Konponbide gaitza daukala aitortu digute.

Azken honetan, Arkazuena, Etxebarrialde eta Iturbe baserriak bide barik utzi ditu. Hain zuzen ere, zelanbait, 4x4 ibilgailu bat pasa daiteke hortik, baina bidea arriskutsua dago eta baliteke bide eta guzti behera jaustea.

Hala, Gellaoko auzotarrek azaldu digute asteburuan bidea moztu egin zutela, inor egoera horretaz ohartu barik sar ez dadin. Horrekin batera, azpimarratu dute Iturbe baserrikoen egoera oso aldrebesa dela. Hain zuzen ere, Iturbe baserrikoak bertan bizi dira, eta gainera, ganadu esplotazioa daukate. Bidearen egoeraren erruz, oso baldintzatuta daude.

**LURRAREN KATAK**

Gellaoko auzotarrek esan digute behin behineko harri-lubeta bat jarri beharra dagoela; eta bide horren azpian dagoen ur korronteak aztertzeko katak egingo dituzte.

> ALDUNDIA

### Markel Olano ahaldun nagusia, urtarrilean herrira

Udaletik jakinarazi dute datorren urtean, urtarrilaren 13an, Gipuzkoako ahaldun nagusi Markel Olano etorriko dela Eskoriatzara.

Bisita horren arrazoia da ahaldun nagusiak aspaldi agindu ziola Udalari herriko azpiegiturak ikustera eta udalerrian dituzten premia nagusiak zeintzuk diren entzutera joango zela.

Hitzartutakoaren arabera, Udaleko ordezkariek autobideko lanak, AHTrenak, saihesbidea, Ibarraundi museoa, bidegorrien lanak, auzoetako errepideak eta beste erakutsiko dizkiote.

> UDAL ZERBITZUAK

### Udal Igerilekua itxita egongo da urtarrilean 1etik 6ra bitartean

Udal Kiroldegiko arduradunek jakinarazi digute urtarrilaren 1etik 6ra bitartean igerilekua itxita egongo dela jende guztiarendako. Hala ere, egun horietan kiroldegiko beste zerbitzuak ez dituzte etengo.

Ixte horren arrazoia da egun horiek igerilekua garbitzeko eta desinfektatzeko lanak egiteko baliatuko dituztela, urtero moduan.

Bestela, Gabon jaietan bi egunetan bakarrik itxiko dituzte kirol instalazioak: abenduaren 25ean eta 31n, hain zuzen ere. Gainontzeko egunetan zabalik egongo dira instalazio guztiak egunero, 08:00etatik 21:00etara bitartean.



Jaiotza jartzeaz gain, bestelako ekitaldiak ere izango dira Gabonetan. ESKORIATZAKO UDALA

**GABONAK** > EKITALDIAK

# Gabonetarako egitarau zabala prestatu dute Udalak eta merkatariek

Aisialdirako, sariak jasotzeko, ohiturak berreskuratzeko eta ekintza asko egiteko aukera egongo da

**IKER BARANDIARAN**> ESKORIATZA
Udaleko Kultura eta Gazteria sailek Gabonei begira egitarau zabala antolatu dute, urtero egin ohi duten moduan.

Eguaztenean, hilaren 24an, Gabon egunean, umeak herriko plazan batuko dira Gabonetako kantuak abesteko. 12:30erako egin dute hitzordua.

Ordu berean, 12:30etik 13:30era bitartean, herriko plazan Olentzeroren laguntzaileak ibiliko dira herriko umeen gutunak jasotzen, gero Olentzerori emateko.

13:00etan, berriz, Trikitixa Eskolako ikasleek lagunduta, kalejira egongo da herriko kaletan zehar. Horrez guztiaz gain, gaztaina erre jana egingo dute plazan eguerdian.

**18:00ETAN, OLENTZERO**
Arratsaldean, berriz, umeek urte osoan itxarondako unea helduko da: Olentzero Apotzaga aldetik herrira jaitsiko da 18:00etan eta herrian zehar kalejira egingo du. Honako ibilbidea egingo du: Intxaurtxueta, Gaztañadui, Olazar, Dorleta, Aranburuzabala, Arana eta bukaeran, herriko plaza.

Udalak herritarrei gonbidapena egin die Gabon egunean euskal jantzi tradizionalak jantzita irteteko.

**URTE BERRIARI ONGIETORRIA**
Horrez gain, urte berriari merezi duen ongietorria egiteko, Gabon zahar gauean, 01:00etarako, urte hasierako kanpaikaden ostean herriko plazan presoen aldeko brindisa deitu dute hainbat herritarrek. Aspaldiko ohitura da hori.

**ERREGEEN KABALGATA**
Alboratu ezin den beste hitzordu bat urtarrilaren 5eko errege kabalgata da. 19:00etan egingo dute, eta Ekialdetik etorritako hiru erregeek kalean zain izango dituzten umeei arreta egingo diete.

**MERKATARIEN ZOZKETA**
Gabonekin lotuta, baita ere, herriko 25 saltoki eta negoziok urteroko zozketa abiatu dute. Euren bezeroen artean 35.000 txartel banatuko dituzte; eta Errege egunean zozketa egingo dute. Irabazleak 1.000 euro eta bi lagunendako afaria irabaziko ditu; eta hurrengo bostek 100 euroko sari bana; guztiak ere, negozio horietan gastatzeko.

UMEEN AISIALDIA

## Gabonetako parkea bost egunean izango da

Aurten Udaleko Gazteria Zerbitzuak hartu du Gabonetako parkea antolatzeko ardura. Hori ez da izango berrikuntza bakarra. Hain zuzen ere, hilaren 26an eta 27an uretako jokoak bakarrik egongo dira erabilgarri; eta 28an, 29an eta 30ean, kiroldegiko kantxako parke erraldoia.

Bost egunerako bonua hartzen duenak 10 euro ordaindu beharko ditu; eta eguneko sarrera eskuratzekotan, 4 euro.

Ordutegia honako hau izango da: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Bestalde, antolatzaileek gurasoei ohartarazi diete ahal duten neurrian taberna eta harmaila inguruan egoteko.

**INGURUMENA** > KULTURA ETXEKO GALDARA

# Hiru enpresa aurkeztu dira biomasako galdara jartzeko

Egunotan Udaleko ordezkariak galdara desberdinak aztertzen dabiltza`

**I.B.** > ESKORIATZA
Kultura etxean dauden udal zerbitzu guztiak berotzeko galdara zaharkituta gelditu da. Urte asko eman ditu galdara horrek eta dagoeneko ez dabil ondo. Arrazoi horregatik, Udal Gobernuak erabaki zuen galdara berria jartzea.

Gainera, bide batez, galdara mota ere aldatuko dute. Orain artekoa gasolioarekin elikatu dute, baina berria beste mota batekoa izango da: pelletarekin lan egingo du, hain zuzen ere. Pelleta egur hondakinez egina dago.

Ibarraundi museoko arduradunen esanetan, pelletak gasolioak baino kalte txikiagoa egingo dio ingurumenari, eta bitarteko bide aproposa dela uste dute.

**HIRU PROPOSAMEN**
Orain arte hiru proposamen jaso dituzte udaletxean galdarak jartzeko: Ermua, Legutio eta Aretxabaletako enpresak dira horiek.

Horren harira, azkenaldi honetan Udaleko ordezkariak enpresa horien instalazioak bisitatzen dabiltza, galdara bakoitzak zer-nolako ezaugarriak dituen ezagutzeko eta zein komeni zaien asmatzeko.

Bestalde, galdara berria jarri bitartean, behin-behineko gasolio biltegia jarri dute kultura etxean, zaharra hondatu samar zegoelako.



Kultura etxeko galdara zaharra (argazkian) laster ordezkatuko dute. I.B.

> UDAL ZERBITZUAK

## Udal bulegoak itxita dauden egunek tramiteen epeetan eragingo ez dutela jakinarazi dute

Gabon jaiegunak direla eta, egutegian zenbait aldaketa egin dituzte herritarrei arreta eginez lan egiten duten erakundeek. Eta horien artean, Udaleko zerbitzuak daude. Arrazoi horregatik, hilaren 26an, urtarrilaren 2an eta 5ean, hirurotan, udal bulegoak itxita egongo dira.

Horren harira, Udaletik ohartarazi dute Udalarekin lotutako jardueretako edozein epe, betekizun edo eskubideren epe-amaiera 2009ko urtarrilaren 7ra pasatuko dela.

> BERBALDIAK

## Elorrioko Eli Villarrek irabazi du Udal Bibliotekak antolatutako orri-puntuen lehiaketako saria

Udal Bibliotekak aurten bigarren aldiz antolatutako orri-puntuen lehiaketan Eli Villar elorriarra izan da irabazlea. Villarrek aurkeztutako lanak *Eskoitza* izena dauka, eta irudi hori Udal Bibliotekak erabiliko dituen orri-puntu guztietan ikusi ahal izango da.

Aurtengo lehiaketan 18 lan aurkeztu dituzte, herri eta mota askotakoak; eta irabazleak 300 euro eskuratu ditu sari moduan. Aurretik orri-puntuen irudia enkargatu egiten zen, baina azken urteotan lehiaketa deitzen dute.


Olentzero eta Mari Domingi idiek tiratutako gurdian ibiliko dira herrian barrena abenduaren 24an, iluntzean. GOIENKARIA

JAIAK > GABONAK

# Aisialdi ekintza ugari Gabonetan gozatzeko

Herriko koadrilek Gabon kantak abestuko dituzte parrokian abenduaren 27an, zapatua

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Gabon jaien harira hainbat ekintza antolatu dituzte datozen egunetarako. Abenduaren 22an erretiratuek hasiko dituzte ospakizunak: 17:00etarako txistorra jana iragarri dute Landatxopen eta ondoren kina egingo dute.

Gabonetan, ezin Olentzero falta, eta eskolako umeen eta gurasoen eskutik, goizean izango da Olentzeroren kalejira. Arratsaldean, 18:30ean, San Josetik jaitsiko dira Olentzero eta Mari Domingi argi-zuziz inguratuta idiek tiratutako gurdian. Herriko hainbat kale pasako dituzte herritarren kantuz lagunduta, eta kalejira amaituta, plazan egingo dute ekitaldia. Umeek, gazteek eta erretiratuek emanaldiak egingo dituzte. Ondoren luntxa egongo da, eta jasotzen den dirua presoen alde izango da.

**PAILAZOAK ETA KANTUA**

Umeak oporretan direla aprobetxatuz, abenduaren 26an, egubakoitzean, Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoen emanaldia izango da pilotalekuan, 18:00etan.

Umeen barre algarei kantuek hartuko diete lekua hilaren 27an. Anelkarrek, abesbatzak, dantzariek eta herriko koadrilek antolatuta, Gabon kanta jaialdia izango da 18:30ean parrokian. Brasilen lanean ibili ostean, aurten hil den Juan Antonio Lizarralde misiolariaren omenez izango da.

Urtea amaitzear dela, urtean egin diren ekintzen argazkiak ikusgai ipiniko dituzte Olaranen. Erakusketa izango da abenduaren 27an eta 28an eta urtarrilaren 3an eta 4an, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era.

Argazkiek izango dute beste txoko bat, bidaia argazkiek, hain zuzen ere. *Antzuolarrak Munduan* ekimenaren barruan, Kepa Igartzak Guatemalako argazkiak erakutsiko ditu abenduaren 29an, Olaran etxean, 18:30ean.

**PUZGARRIAK FRONTOIAN**

Gabonetako oporretan umeendako parkea ere izango da urtarrilaren 2an. Puzgarriak izango dituzte pilotalekuan 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara.

Aurtengo Gabonetan izango da aisialdia osatzeko ekintzarik herritik kanpora joan gabe ere.

KIROLA > FUTBOLA

# Partidua izango da urtarrilaren 3an, Barkeroren omenez

Bergarako eta Antzuolako futbolari ohiek jokatuko dute Eztalan; umeek areto futbolean jardungo dute frontoian

I.A. > ANTZUOLA

Bederatzigarren aldiz jokatuko dute aurten Xabier Barkeroren oroimenezko partidua Gabonetan. Aurtengo hitzordua urtarrilaren 3an, zapatua, izango da 16:00etan Eztalan.

Xabier Barkeroren taldekide izandakoek osatuko dute antzuolarren hamaikakoa, eta Bergarako futbolari ohiak izango dituzte aurrez aurre. Gaur egun futbola albo batera utzia duten jokalariak dira gehienak, baina partiduan gozatzea da euren helburua. "Gure asmoa da partiduan ondo pasatzea eta, bide batez, Xabier Barkero zenarekin gogoratzea. Jokalari zenean futbolarengatik dena emateko gertu egoten zen eta nahiko luke guk ere gauza bera egitea. Herritarrak ere animatu nahi ditugu partidua ikustera joateko eta berarekin akordatzeko", esan digu Igor Larrea egungo entrenatzaile eta Barkeroren taldekideak.

**ARETO FUTBOLA**

Ez da hori, ordea, Antzuola Kirol Elkarteak Gabonetarako antolatu duen ekitaldi bakarra. Izan ere, abenduaren 29rako eta 30erako Alfonso Castroren oroimenezko areto futbol txapelketa antolatu dute gaztetxoendako.

Pilotalekuan izango dira partiduak eta 8 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoek jokatuko dute. Partiduak goizez eta arratsaldez jokatuko dituzte 10:00etatik 13:00etara bitartean eta 16:00etatik 18:30era bitartean. Finala hilaren 30ean izango da, eguerdian.

> ELKARTASUNA

### Gabon saskiaren zozketarako txartelak salduko dituzte Anelkarreko kideek aste bukaeran

Anelkar taldeak Itzar liburu dendan ikusgai dagoen Gabon saskia zozketatuko du. Horretarako txartelak saltzen ibiliko dira herrian Anelkarreko kideak abenduaren 20an eta 21ean. Orain arte ia 1.700 txartel saldu dituzte eta euren helburua da 3.000 txartelera iristea. Jasotako diruarekin Anelkarrek Brasilen, Senegalen eta Kongon dituen proiektuak diruz lagunduko ditu.

> LEHIAKETA

### Trikitixa Egunerako logotipoak udaletxean aurkezteko azken eguna urtarrilaren 15a da

Datorren urteko Trikitixa Egunerako pegatina, kartel... egiteko logotipoa sortu nahi dute eta horretarako lehiaketa antolatu dute. Logotipoak irudi grafikoaz gain, esaldi hau izan behar du: *Deba Goieneko Trikitixa Eguna 2009, apirilak 25, Antzuola.* Lanak euskarri digitalean eta paperean Antzuolako udaletxeko Kultura Batzordera bidali edo eraman daitezke, 2009ko urtarrilaren15a baino lehen. Saria 200 euro izango da.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK
INDUSTRI MANTENIMENDUA
Jose Gomez Abad
Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

**Aser Lertxundi eta Mireia Berriozabal** > Jolasparkeko laguntzaileak

# "Umeek batera jolasteko tresnak eta elkarri jolasak erakusteko aukera izango dute parkean"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

**Abenduaren 29 eta 30erako jolas parkea antolatu dute. Aser Lertxundi eta Mireia Berriozabal umeekin ibiliko dira han eta eurek azaldu digute zer egingo duten ondo pasatzeko. Bi egunetarako 3 euroko bonoa eros daiteke, eta 29rako txartelak 1,5 euro balio du. Julianen kioskoan daude salgai.**



Aserrekin eta Mireiarekin, jolasak eta eskulanak egingo dituzte umeek. I.A.

**Zer aurkituko dute umeek jolasparkean?**

Aser: Hilaren 29an, 16:00etatik 19:00etara bitartean, frontoian hainbat gune ipiniko ditugu. 3 urte bitartekoendako txoko txiki bat egongo da lasai ibiltzeko. Gainontzekoek lehenengo ordu eta erdian jolas lasaiak egingo dituzte: adin bakoitzera egokitutako eskulanak, mahai jolasak... Teknologia berriekin ibiltzera ohitu dira eta erakutsi nahi diegu beste jolas batzuk badaudela ondo pasatzeko. Bigarren zatian, talde jolas arinagoak egingo ditugu, dantza eta musika nahastuz.

**Parkerako jolasak umeek aukeratu dituzte?**

Mireia: Puzgarriak egongo dira 30ean goizez eta arratsaldez, eta zein duten gustukoen galdetu genien umeei, horiek ekartzeko.

Aser: Beste jolasak guk gertatu ditugu, umeendako gustagarri zeintzuk izan diren ikusita.

Mireia: Gabonetan egin izan dira aurrez ere umeendako ekintzak, baina tailer erara.

**Ze erantzun espero duzue?**

Aser: Gertatu dugu jendea etor dadin, baina zaila da aurreikustea zenbat ume etorriko diren.

**"Jostailuak badituzte, baina opor egun asko ere bai, eta Elgetan, umeek kalean asko jolasten dute"**

**Umeekin zenbat lagun egongo zarete?**

Mireia: 10-15 heldu ibiliko gara umeekin. Gaztetxetik lau lagun etorriko dira, diaboloekin nola ibili umeei erakustera, eta gainontzekook, bakoitza gune edo jarduera batzuetaz arduratuko gara, umeak zainduz.

**Gabonetan ez al daukate nahikoa jostailu?**

Mireia: Jostailuak badituzte, baina opor egun asko ere bai. Gainera, Elgetan, umeek kalean asko jolasten dute.

Aser: Horrez gain, horrelako jarduerekin ematen zaizkie umeei elkarrekin jolasteko tresnak, eta batak besteari jolasak erakusteko aukera.

**Nola animatuko dituzue umeak jolasparkera joan daitezen?**

Aser: Telebista aurrean egotea baino plan hobea dela arratsaldea lagun artean pasatzeko.



ZEZILIO TOTORIKAGUENA

## Gabonetako merienda

Abenduaren 12an, barikuan, elkartu ziren Elgetako erretiratuak Ozkarbi elkartean, urteroko ohiturari jarraituz, Gabonetako merienda egiteko. Eguraldiak askorik lagundu ez arren, 50 lagunek egin zuten elkarterako buelta. Lehenengo, hamar opari zozketatu zituzten bazkideen artean, eta merienda ederra jan zuten gero. Esan digutenez, arratsalde polita pasa zuten Gabonen atarian ospakizunekin hasteko.

**UDALA** > HERRITARREN FOROA

# Inkesta betetzeko azken eguna 22a da

Udaletxeko buzoian botata edo Internet bidez bidalita iritsiko dira erantzunak arduradunen eskura

I.A. > ELGETA

*Elgeta danon artian* foroa ipini du Udalak abian, hainbat gairen gainean herritarrek dituzten iritziak jasotzeko eta ekarpenekin udal kudeaketaren irizpideak finkatzeko.

Ekimen horren barruan, Udalak inkestak banatu zituen etxez etxe, horien bitartez Udalak mahai gainean dituen zenbait gairi buruz elgetarren usteak jasotzeko.

Elgetarrek 68 galderako sorta betetzeko abenduaren 16a ipini zuten mugaegun, baina inkesta betetzeko asmoa duten herritarrei denbora tarte luzeagoa emateko, abenduaren 22ra arte luzatu dute epea. Inkestak udaletxeko buzoira eraman daitezke edo *www.elgeta.org/udala/elgeta-danon-artian* helbidean erantzun.

**EPE BARRUAN ERANTZUN**

Oraingoz 75 inkesta inguru jaso dituzte udaletxean. "Komeni da inkesta betetzeko asmoa daukatenek epeak betetzea, horrela inkestaren emaitzak lehenbailehen jakiteko", esan digu Oxel Erostarbe alkateak. Behin epea amaituta, egingo dute emaitzen balorazioa.

> MUSIKA

## Antonio Deogracias antzuolarrak ipiniko du musika abenduaren 27ko guatekean

Espaloian izango da musika eta dantza jaia abenduaren 27an 22:00etan hasita. Antolatzaileek animatu nahi dituzte guatekera joaten direnak 80ko hamarkadako jantziak soinean eramateko. Antzuolako Antonio Deogracias egongo da Espaloian musika jartzen. "Antzinako pop izar" moduan definitu du bere burua, eta lehengo garaiak gogoratuz, The Beatles, Abba... moduko taldeen musikarekin elgetarrak dantzan ipintzea da bere asmoa.

**Lau t'erdiko pilota txapelketa**

## Finalerdiak, gaur eta domekan

I.A. > ELGETA

Aste bukaeran jokatuko dituzte lau t'erdiko pilota txapelketako finalerdiak. Gaur, egubakoitza, 21:00etan hasita, Alex Arantzabalek eta Alberto Telleriak Asier Morales eta Fernando Zenitagoia izango dituzte aurrez aurre. Bigarren partiduan, Iñaki Ugarteburuk eta Jose Mari Zubiaurrek Angel Ibarluzearen eta Mikel Arkarazoren aurka jokatuko dute. Domekan, 12:00etan David Peñalverrek eta Txomin de Vegak Oxel Erostarberen eta Gorka Arizmendiarrietaren kontra jardungo dute; eta Unai Alkortak eta Etor Garatek, Oier Billa eta Enrike Elkororen aurka.

Bestalde, pilota txapelketa izango da eskolako neska-mutilendako abenduaren 26, 27 eta 28an, goizez. Finalak abenduaren 31n jokatuko dituzte. Mutilek eskuz jardungo dute eta neskek palaz. Umeendako bolo txapelketa, berriz, urtarrilaren 5ean izango da 11:00etan hasita.

| 40 URTETIK GORAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** Iñaki Ugarteburu - Jose Mari Zubiaurre | 8 | 7 | 1 |
| **2.** Alex Arantzabal - Alberto Telleria | 8 | 7 | 1 |
| **3.** Asier Morales - Fernando Zenitagoia | 8 | 6 | 2 |
| **4.** Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre | 8 | 4 | 4 |
| **5.** Luis Antonio Alkorta - Gorka Bolinaga | 8 | 4 | 4 |
| **6.** Koldo Goenaga - Roberto Basauri | 8 | 4 | 4 |
| **7.** Juan Carlos Errasti - Jesus Belamendia | 8 | 2 | 6 |
| **8.** Pello Larrea - Mikel Elkoro | 8 | 1 | 7 |
| **9.** Joseba Arbulu - Julio Calleja | 8 | 1 | 7 |

| 40 URTETIK BEHERAKOAK | J | I | G |
|---|---|---|---|
| **1.** David Peñalver - Txomin de Vega | 7 | 7 | 0 |
| **2.** Etor Garate - Unai Alkorta | 7 | 6 | 1 |
| **3.** Enrike Elkoro - Oier Billa | 7 | 5 | 2 |
| **4.** Gorka Arizmendiarrieta - Oxel Erostarbe | 7 | 3 | 4 |
| **5.** Mikel Ormaetxea - Iraitz Bolinaga | 7 | 3 | 4 |
| **6.** Samu Gorrotxategi - Asier Osoro | 7 | 3 | 4 |
| **7.** Igor Irazabal - Gaizka Bolinaga | 7 | 1 | 6 |
| **8.** Jose Monterroso - Satur Ramos | 7 | 0 | 7 |



Himalaiara egindako espedizioaren gaineko bideo emanaldia egingo dute gaur hiru gaztek. J. ZELAIETA

**KIROLA** > ORIXOL MENDI ELKARTEA

# Himalaiara egindako espedizio bat irudeitan

Orixolek antolatuta bideo emanaldia egongo da gaur gauean kultura etxean; Himalaiara egindako espedizio baten gaineko dokumentala da

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Javier Etxebarria (Berriz), Iñaki Aldama (Amurrio) eta Julen Zelaieta (Berriz) Pakistanen izan ziren 2007an; Himalaian dauden sei zortzimilakoetatik bat egiteko espedizioa egin zuten. Broad Peak mendia igo zuten, hain justu.

Orain, espedizio horretan bizi izandakoak kontatzera datoz Aramaiora. Gaur, barikua, 22:00etan bideo emanaldia egingo dute kultura etxean.

Izan ere, bidaia guztia iruditan jasota daukate, eta horiekin dokumental antzeko bat egin dute. "Ez da espedizioen inguruan egiten diren dokumentalen modukoa. Berezia da; izan ere, guk azaltzen duguna da eguneroko gure jarduna. Hau da, zer jaten genuen, nola lo egiten genuen, komunera ere nola joaten ginen jasotzen da iruditan", azaldu du Julen Zelaietak. Hain zuzen ere, 40 minutu inguruko bideo emanaldia da eta amaieran azalpenak emango dituzte eta ikusleen galderak erantzungo dituzte.

Azken hilabeteotan herririk herri ibili dira bideoa aurkezten, eta gaurkoan Aramaiora etorriko dira. "Eskoletan ere aurkeztu dugu bideoa, eta oso harrera ona izan du. Oso pozik gaude", adierazi du Zelaietak.

**ZAILTASUNAK**

Horrelako espedizio bat egiteko orduan aurkitzen diren zailtasun eta oztopoak ere jasotzen ditu dokumentalak. Dena dela, Zelaietak azaldu du dirua eta baimenak lortzea dela zailena: "Azkenengo egunean lortu genuen Pakistanera joan ahal izateko baimena. Denbora luzea kendu zigun horrek. Horrez gainera, dirua da beste zailtasuna: horrelako espedizio bat egitea oso garestia da, mendian ibiltzeko materiala oso garestia delako".

Mendia gustuko dutenek, horrenbestez, hitzordua daukate gaur hiru mendizale horiekin.

**GABONAK** > EGITARAUA

# Haur eta nagusiek izango dute zer egin Gabonetan

Olentzero bidean da eta abenduaren 24an 18:00etan iritsiko da Aramaioko plazara

**A.B.** > ARAMAIO

Egitarau bete-betea antolatu du Udalak Gabon jaietarako. Hilaren 21ean hasi eta urtarrilaren 3a bitartean ekintza ugari izango dira herrian. Zinemak pisu berezia dauka aurtengo egitarauan, ume eta nagusiendako zinema emanaldi asko egingo dira-eta. Horrez gainera, bertso saioak, umeendako puzgarriak eta haur dantzaldiak egongo dira, besteak beste.

## Gabonetako egitaraua, egunez egun

**Abenduak 20**
Debagoieneko Kirol sarien ospakizuna Arrasaten.

**Abenduak 21**
12:45ean: Maitasun elkartearen kontzertua meza ostean. Lortutako dirua Bosniako umezurztegi batera bidaliko dute.
17:00etan: Haurrentzako zinema emanaldia kultura etxean.

**Abenduak 24**
18:00etan: Olentzero herriko plazara etorriko da.

**Abenduak 25**
22:00etan: *WALL-E* filma kultura etxean.

**Abenduak 26**
17:00etan: Sun magoa kultura etxean.
22:00etan: *No es país para viejos* filma kultura etxean.

**Abenduak 28**
17:00etan: Haurrendako zinema emanaldia kultura etxean: *Lurralde lainotsurako bidaia*.

**Abenduak 29**
12:00etan: Haur dantzaldia kiroldegian.
19:00etan: Bertso saioa kultura etxean (Bertsozale Elkarteak antolatuta).

**Abenduak 30**
17:00etan: Doro ipuin kontalariaren saioa (2-6 urte bitarteko umeendako).
18:00etan: Doro ipuin kontalariaren saioa (7 urtetik aurrera).

**Abenduak 31**
00:30: Txin-txin herriko plazan.

**Urtarrilak 2**
17:00etan: Umeentzako tailerrak kultura etxean.
22:00etan: *Banderas de nuestros padres* filma kultura etxean.

**Urtarrilak 3**
11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara puzgarriak kiroldegian.

**Urtarrilak 4**
17:00etan: *Las cronicas de Narnia* filma kultura etxean.

**Urtarrilak 8**
17:00etan: Umeentzako *Zure izena arabieraz* tailerra.

**Urtarrilak 9**
17:00etan: Umeendako *Henna tatuajeak* tailerra.
22:00etan: *Cartas desde Iwo Jima* filma kultura etxean.

**Urtarrilak 10**
17:30ean: Ipuin kontalaria.

**Baita hauek ere:**
> 'HIRI MESTIZUA' ERAKUSKETA:
Abenduaren 26tik urtarrilaren 11ra, udaletxean.
> 'ARABAKO BUZTINGINTZA TRADIZIONALA' ERAKUSKETA:
Abenduaren 12tik urtarrilaren 4ra arte.
Abenduaren 19an, 19:00etan, buztingintzaren gaineko erakustaldia egingo dute osoko bilkuren aretoan.

**UDALA** > PLAN OROKORRA

# Planaren aurreproiektua ikusgai dago udaletxean

**A.B.** > ARAMAIO

Udalak jaso du dagoeneko Stoa enpresak landutako Plan Orokorraren aurreproiektua eta herritarren eskura ipini du; datozen hiru hilabeteetan osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai, eta baita udal webgunean ere.

Alkateak azaldu du iradokizunak egiteko momentua dela orain. Herritarrek euren proposamenak egiteko aukera izango dute. Agirrek azaldu du Udal Gobernua ez dagoela gustura Stoak aurkeztutako planarekin eta eurek ere iradokizunak egingo dizkiotela: "Ez gaude ados hor planteatzen diren zenbait punturekin eta geuk ere gure proposamenak egingo dizkiogu. Herritarrei esan nahi diet euren kexak ere kontuan hartu eta Stoari aurkeztuko dizkiogula, plana berraztertzeko eskatuz".

# Maite Franko liburutegian izan zen martitzenean

Joan zen martitzenean ipuin kontalari baten bisita izan zuten Aramaioko txikitxoek. Maite Franko hondarribiarrak kontu bitxi ugari kontatu zizkien eskolako umeei. Joan den asteko eguenean, berriz, Beatriz Egizabal eta Cesar Marcosek jardun zuten kontu kontari liburutegian. Argazkian ikusten denez, umeak gustura egon ziren.



OLGA JAUREGI

**MUSIKA** > ABESBATZA

# Bihar, haur abesbatzen saioa egongo da parrokian

Andramaixa jaietan plazan jarritako txosnan jasotako diruarekin antolatu dute ekitaldia; Gasteizko ia 100 ume etorriko dira abestera

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Gasteizko Olabide ikastolako neska-mutikoek osatutako abesbatzak izango dira bihar, abenduak 20, San Milixan parrokian (18:30). Hainbat eratako abestiak eskainiko dizkiete gatzagarrei.

**TXOSNAN JASOTAKO DIRUAREKIN**
Ekitaldia Txosna 2008 taldeak antolatu du. Irraileko Andramaixa jaietan San Migel plazan jarritako txosnan jasotako diruarekin antolatu dute. Diru horrekin zer egin erabakitzerakoan, abesbatza ekartzea bururatu zitzaien txosnan lanean jardundako herritarrei. Lehenengoz egingo dute halako ekimena jaietako txosnan jasotako diruarekin. Hala, ia 100 ume etorriko dira eta ordubete inguruko saioa eskainiko dute.

**HAINBAT ERATAKO ABESTIAK**
Gasteizko Olabide ikastolako bi abesbatza etorriko dira. Batetik, Abesbatza Txikia, 6 eta 10 urte arteko 49 neska-mutikok osatutakoa; eta bestetik, 11 eta 17 urte arteko 48 gaztetxoena. Abesbatzen zuzendaria Estitxu Txurruka da, eta hainbat eratako abestiak abestuko dituztela iragarri digu: "Lehenengo, txikienek abestuko dute, eta gero, nagusiek. Eta seguru asko, bukaeran biek batera abestuaz bukatuko dugu ekitaldia". Gabon kantuak eta Gabonetakoak ez direnak tartekatuko dituzte, eta euskaraz eta atzerriko hizkuntzatan abestuko dute: "Batzuk dantzagarriagoak dira, eta beste batzuk lasaiagoak", dio Txurrukak.

Urte askoko ibilbidea dute Olabideko abesbatzek, eta arrakasta handiarekin gainera, ia 100 ume dabiltza-eta: "Eskolaz kanpoko ekintza da eta gura duten umeak datoz, horregatik oso gustura hartzen dute parte. Gainera, hara eta hona ibiltzen gara abesten, bidaian, eta horrek ere asko motibatzen ditu umeak". Elkartrukeak ere egin izan dituzte beste abesbatza batzuekin, Girona eta Bartzelonako ikastetxe batzuetakoekin, esaterako. 10 urte daramatza Estitxu Txurrukak abesbatzako zuzendari lanetan eta oso gustura dabilela onartu digu.

Ordubete inguruko ekitaldi polita eskaini gura diete bihar gatzagarrei, eta parrokiako emanaldia ume, heldu zein nagusien gustukoa izatea da abesbatzako kideen nahia.


Neska-mutikoak eta gurasoak kantuan. GOIENKARIA

**GABONAK** > OSPAKIZUNAK

# Bihar apainduko du elizpea Gurelek eta 24an kantuan doaz

Olentzero eta Mari Domingi danbolinarekin gaztainak erretzen izango dira bihartik aurrera elizpean

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA
Bihartik aurrera Gabon girorik ez da faltako herrian. Gurel elkarteko guraso eta umeek elizpea apainduko dute urtero legez. Eta San Migel plazako zuhaitzetan ere egunotan jarriko ditu Gabonetako argiak Udalak, baita goiko plazako gorostian ere.

**OLENTZERO ETA MARI DOMINGI**
Azken urteotan aldatu egiten dituzte elizpeko apaingarriak eta aurten Olentzero eta Mari Domingi jarriko dituzte danbolina eskuartean dutela gaztainak erretzen. Gurasoek umeak izango dituzte lagun apaintze lanetan bihar (11:00) eta liburutegian egindako eskulantxoei ere egingo diete tokia. Lanak bukatutakoan txistorra jango dute elkartean.

**BASERRIZ BASERRI**
Gabon egunean, abenduak 24, goizean iritsiko da Olentzero herrira, eta ume eta gurasoekin batera kantuan joango da. Urtero legez autobusa hartzeko asmoa dute (09:00) eta Olaun aldeko baserrietara joko dute lehenengo. Handik Arabako mugaraino joango dira eta bidean dauden baserrietatik pasatu. Eta bukatzeko, Goierri auzoa eta inguruko baserrietara iritsiko dira. Baserri guztietatik pasatu ondoren herrian bertan ere abestuko dute kalez kale.

Zalantza barik, neka-neka eginda bukatuko dute guztiek eta merezitako saria jasoko dute eguerdian: bazkaria, Toki Eder elkartean. Goizean kantuan dabiltzan bitartean hainbat herritarrek gertatutako bazkaria jango dute Gabon giroan.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**FUTBOLA** > PRESIDENTEEKIN BERBETAN

# Presidenteek ez dute oso argi Badiola kentzeko proposamena

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Astelehenean irabazi zituen Juan Luis Larreak Gipuzkoako futbol federazioko presidente izateko hauteskundeak, eta biharko eguna erabakigarria izan daiteke Realaren etorkizunarendako, akziodunek batzar orokorrean erabakiko dutelako Badiolak jarraitu behar duen ala ez.

Kontu horien gainean berba egiteko ibarreko lau presidenterekin izan da GOIENKARIA.

**1.** Juan Luis Larreak jarraituko du Gipuzkoako futbol federazioko presidente. Pozik?

**2.** Iñaki Badiolak Reala gidatzen jarraitu behar duela uste duzu?

### Javier Azpiazu
ALOÑAKO PRESIDENTEA

**1.** Ni oso pozik nago, dakizuen moduan Larrearen taldean nagoelako. Orain Larreak Gipuzkoako futbola batzeko egin beharko du lan, talde guztiekin berba egin eta konponbideak aurkitu.

**2.** Biharko Realaren batzar orokorrean ez dakit zer gertatuko den. Batzuek Badiola dagoen lekutik kendu gura dute, baina nik zalantza handiak ditut. Lehenengo Badiolak zer dioen entzun behar da, izan ere, lehen egon zirenek ere ez zituzten kontuak argitu.

### Jokin Antxia
UDAKO PRESIDENTEA

**1.** Guk Barriusoren alde egin dugu, eta alde horretatik irabazleari zorionak ematea baino ez dago. Argi dagoena da Larreak lan handia egin duela talde txikien aldeko botoa eskuratzeko. Guretako atzera-pausoa da hau, Gipuzkoan futbolak banatuta jarraituko duelako.

**2.** Nire ustez logikoena da Badiola dagoen tokitik kentzea, eta guztion konfiantza izango duen talde batek Reala gidatzeko ardura hartzea. Gipuzkoa osoak bide berean egin behar du lan, proiektu bateratuan, eta gizon horrek dagoeneko konfiantza guztia galdu du.


Javier Azpiazu. GOIENKARIA


Jokin Antxia. GOIENKARIA


Jose Luis Azkarate. GOIENKARIA


Pedro Rico. GOIENKARIA

### Jose Luis Azkarate
MONDRAKO PRESIDENTEA

**1.** Guk Larrearen alde egin genuen, baina ez Barriusoren kontra gaudelako, laguna dut-eta. Baina bere taldeko ordezkari batzuk ez zitzaizkigun gustatzen. Horrekin batera, harrobia dela-eta UDArekin arazoren bat edo beste izan dugu, Arrasateko jokalariak hartzen dituztelako. Barriusok irabaziko balu Aretxabaleta izendatuko luke ibarreko ordezkari, eta guk ez genuen horrelakorik gura.

**2.** Reala dela-eta nik uste dut Badiolak jarraitu egin beharko lukeela. Badakit Gipuzkoako taldeei dirua zor digula, gauza asko ez dituela ondo egin, baina besteek zer egin dute bada? Plataforma bat azaldu da, baina inork ez du aurpegia eman. Guztiak ditu kontran, eta laguntza da behar duena.

### Pedro Rico
BERGARAKO PRESIDENTEA

**1.** Larrearekin Gipuzkoako futbolak banatuta jarraituko du. Orain, Barriusok esan du Larrearen alde egin dutenekin konbenioa hautsiko duela, eta hori ere ez dut ondo ikusten. Larrea kargu horretara itsatsita ikusten dut, eta hori ez da ona.

**2.** Ez nator bat Badiolak talde txikiekin egin duenarekin, zorretan dagoelako gurekin. Baina, alternatiba argirik ez badago nik ez nuke aldatuko, beste gauza asko ondo egin dituelako, besteak beste, lan gutxi egin eta ondo kobratzen zuten batzuk kalera bidali.

**ESKUBALOIA**

## Gabonetako txapelketa egingo dute urtarrilean

Mankomunitateak antolatu du txapelketa, eta baita teknifikazio saioa ere

**X.U.** > BERGARA

Urtarrilaren 2an eta 3an egingo dute Gabonetako infantil eta kadete mailako eskubaloi txapelketa, Oñatin eta Arrasaten. Txapelketa horretan Mankomunitate barruan dauden Arrasateko Bergarako eta Oñatiko eskubaloi taldeetako jokalariek jokatuko dute: "Selekzio moduko bat izango da, eta hautaketa egiteko lehentasuna eman diogu jokalariek urtean zehar ze jarrera izan duten, entrenatzera ze maiztasunekin etorri diren...", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Edu Orgazek

Ibarrekoekin batera Zarautz eta Pulpo taldeak gonbidatu dituzte txapelketara: "Lehenago entrenamendu saioak egingo ditugu, eta ondoren jokatuko ditugu norgehiagokak".

**TEKNIFIKAZIO SAIOAK**

Gabonetako txapelketarekin batera, Mankomunitateak antolatuta teknifikazio saioak egingo dituzte abenduaren 29an, 30ean eta 31n. Hala, teknifikazio saio horiek ibarreko infantil, kadete eta gazte mailako jokalariendako izango dira, eta Edu Orgazek zuzenduko ditu entrenamendu saio horiek. Baina, jokalariendako lan saioak egitearekin batera, entrenatzaileendako ere teknifikazio saioak egingo dituzte.

**SASKIBALOIA** > TXAPELKETA

# Gabonetan saskibaloia izango da Iturripen

Ointxek Gabonetarako antolatu duen saskibaloi txapelketarako sei talde gonbidatu dituzte

**X.U.** > ARRASATE

Abenduaren 26an, 27an eta 28an egingo du Ointxek Gabonetako gazte mailako lehen saskibaloi txapelketa. Eta txapelketa horretan etxeko taldeak jokatzearekin batera Gasteizko Marianistas, Donostiako Easo, Euskadiko kadete mailako selekzioa, Kantabriako AD Cantbasket eta Galiziako CB Peixefresko Marin taldeak gonbidatu dituzte. Hala, txapelketako lehenengo partidua MUk eta Marianistas taldeek jokatuko dute, hilaren 26an, 16:45ean. Eta, ondorengo bi egunetan saskibaloia izango da nagusi Iturripen, goiz eta arratsalde –sari banaketa hilaren 28an, 14:00etan.


Gazte mailako mutilek ordezkatuko dute MU. ITZIAR PEREZ

**JAURTIKETA BEROAK**

Txapelketa horrekin batera, *Hot shot* edo jaurtiketa beroen txapelketa ere egingo dute. Hor, talde bakoitzeko hirukote banak besteen kontra jokatuko dute, eta denbora jakin batean hainbat lekutatik jaurtiketak egin beharko dituzte.

> ESKUBALOIA

### Ford Mugarrik Romoren bisitarekin amaituko du urtea

Arrasateko Ford Mugarrik Bizkaiko Romoren bisitarekin amaituko du urtea, eta baita lehenengo itzulia ere (domeka, 11:30, Iturripe). Bizkaitarrek hiru puntu gehiago dituzte: "Baina irabazteko partidua da, ordua delako gurekin parean dauden taldeak menderatzen hasteko", adierazi du Orgazek.

**VERKOL ALOÑAK KANPOAN**

Verkol Aloñako neskek, berriz, Andoainen jokatuko dute Leizaranen kontra (Zapatua, 17:15). Joan den astean Oñatikoek 31-18 hartu zuten mendean Ereintza, eta bigarren dira sailkapenean.

KIROL JAIA > DEBAGOIENEKO KIROL SARIAK 08

# Debagoieneko Kirol Sariak emango dituzte bihar Aretxabaletako Arkupen

18:00etan hasiko den ekitaldian ibarreko puntako kirolari asko batuko dira

Eurekin batera, herri mailako kirolarien lana ere errekonozitzea da DKSren helburua


Jone Muxika dago emakumezko onenen artean. X.U.


Eskoriatzako saskibaloi taldea, Lauko Finalean. I.S.

GOIENKARIA > BERGARA

Debagoieneko kirolari asko batuko dira bihar, zapatua, Aretxabaletako Arkupe kultur etxean (18:00). Euretako asko aurpegi ezagunak izango dira, baina maila xumeagoan lehiatzen diren herriko kirolariak ere sarituko dituzte, eta baita ibarreko kirolaren alde horrenbeste lan egiten duten entrenatzaile, bolondres edota kirol babesleak ere.

Intentzio horrekin jaio dira Debagoieneko Kirol Sariak, eta biharkoa izango da lehen ekitaldia.

**PARTE-HARTZEAREKIN, POZIK**

DKS Sariak koordinatzen dabilen Artemaneko Gorka Etxabek adierazi du gustura daudela jendearen erantzunarekin. Izan ere, gainontzeko finalistak epaimahai bidez aukeratu badituzte ere, herritarren saria debagoiendarren esku utzi dute: "La Caixako bulegoetan jarri genituen kutxetan guztira 60 boto jaso ditugu, eta Internet bidez beste 240 lagunek eman dute botoa". Hain zuzen, bi sari eskuratzeko hautagai bakarra Arrasateko atleta Zuhaitz Ezpeleta da, herritarren sariarekin batera atleta onenaren saria ere jaso dezake-eta.

**UDALEN SARIAK ERE BAI**

Ondoko zutabean daude biharko ekitaldian saria jaso dezaketen finalistak, baina eurekin batera, kontutan izan DKSko antolatzaile diren Aretxabaletako, Eskoriatzako, Oñatiko, Leintz Gatzagako, Aramaioko eta Elgetako Udalek eurek aukeratutako herritar bat sarituko dutela.

Ekitaldiari dagokionez, Itxaro Zubillagak eta Xabier Urtzelaik egingo dituzte aurkezle lanak, eta Edu Muruamendiarazen Aukeran dantza taldeak esku hartuko du ekitaldian.

## Sarietarako finalistak

**Gizonezko kirolari onena**
- Zuhaitz Ezpeleta (atleta).
- Alberto Iñurrategi (mendizalea).
- Iban Velasco (ziklista).

**Emakumezko kirolari onena**
- Maider Unda (borrokalaria).
- Jone Muxika (ziklista).
- Marisol Ramos (atleta).

**Talde onenaren saria**
- MU-Ointxe! (Saskibaloia).
- Eskoriatza (Saskibaloia).
- Oñatiko Triatloi Taldea.

**Kirol babesle fidelaren saria**
- ULMA
- Soraluce Koop.
- Ford Mugarri.

**Kirolari anonimoaren saria**
- Maria Jose Gil (atleta).
- Bixente Pagaldai (atleta).
- Patxi Gorosabel (errugbia).

**Herritarren saria**
- Zuhaitz Ezpeleta.
- Maider Unda.
- Fernando Zufiria.
- Reyes Azkoitia.
- Joseba Iñurrategi.

**Kirol ibilbidearen saria**
- Biharko ekitaldian emango dute jakitera sarituaren izena.

**Entrenatzaile onenaren saria**
- Biharko ekitaldian emango dute jakitera sarituaren izena.



**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Aurreko postuetan daudenen arteko lehia zuzena izango da

Asteburuan dezente aldatu daiteke sailkapenaren aurrealdea, batez ere UDAk domekan liderra mendean hartzen badu



Aloñak Hernaniri 3-2 irabazi eta gero eskuratu du hirugarren postua. J.A.

**X.U.** > BERGARA

Aretxabaletak (25) Tolosaren (28) kontra jokatuko du domekan Ibarran (16:30), eta bigarren eta hirugarren dauden Hondarribiak (26) eta Aloña Mendik (25) interes handiarekin jarraituko dute norgehiagoka hori, Aretxabaletak liderra mendean hartzen badu gehiago estutuko delako aurrealdea. Noski, interesatu asko badaude ere Aretxabaleta da partidu hori irabaztea gehien komeni zaiona, abenduaren 27an jokatuko duten 2008ko azken jardunaldian –Mondraren kontrako derbia– lider jartzeko aukerak izango lituzkeelako.

**ALOÑAK ERE BESTE HORRENBESTE**

Zarata handirik atera barik Aloña ere sailkapenaren aurrealdera iritsi da –hirugarren–, eta badirudi Zubiaren mutilek etxeko lanak ondo eginda agurtu behar dutela urtea. Hala, Oñatikoak seigarren postuan dagoen eta kontrario zuzena den Trintxerperen zelaira joango dira bihar jokatzera (17:00).

Mondra (19) sailkapenean atzerago badago ere, hilaren 27ko derbia aukera paregabea da urtea zapore gozoarekin amaitzeko. Lehenago, baina, Andoainen jokatu behar, Euskaldunaren kontra (zapatua, 16:30).

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Salamanca
Zapatua. 17:00. Anoeta.

**Gazteen euskal liga**
Sestao River-Aretxabaleta
Zapatua. 18:00. Galindo.

Retuerto-Bergara
Zapatua. 11:30. Barakaldo.

**Preferente maila**
Trintxerpe-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Don Bosco.

Euskalduna-Mondra
Zapatua. 16:30. Allurralde.

Aretxabaleta-Tolosa
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehenengo erregionala**
Aretxabaleta-Tolosa
Zapatua. 16:30. Ibarra.

BTLS-Mondra
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Antzuola-Lazkao
Zapatua. 16:00. Estala.

Lagun Onak-Bergara
Zapatua. 15:30. Garmendipe.

**Bigarren erreg. Igoera**
Bergara-Allerru
Zapatua. 18:00. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Aloña Mendi-Billabona
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**Lehen mailako gazt. Igoera**
Mondra-Hernani
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**Ohorezko kadeteak, igoera**
Hondarribia-Bergara
Zapatua. 11:00. Ondartza.

Antiguoko-Aretx.Arizmendi
Zapatua. 12:00. Berio.

**Kadeteen ohorezko maila, jaitsiera fasea eta kopa**
Aloña-Zumaiako
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

Arrasate-Hernani
Zapatua. 11:00. Mojategi.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa, senior gizonezkoak**
Ford Mugarri-BM Romo
Domeka. 11:30. Iturripe.

**Euskadiko Txapelketa, senior emakumezkoak**
Leizaran-Verkol Aloña
Zapatua. 17:15. Andoain.

**Gipuzkoako lehen territorial maila**
Amenabar-Soraluce BKE
Domeka. 12:00. Zarautz.

**Gipuzkoako bigarren territorial maila**
Donibane-Arrasate
Zapatua. 16:00. Pasai Don.

Aloña Mendi-Leizaran
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Kadete maila, gizonezk.**
Bergara-Irurena
Zapatua. 18:00. Labegaraiet.

Irungo gaztiak-Bergara Txiki
Zapatua. 17:30. Irun.

**Kadete maila, emakume.**
Pulpo-Bergara
Zapatua. 17:30. Zumaia.

Citroen Chap.-Aiala
Domeka. 10:00. Iturripe.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila**
MU-Suelbat La Peña
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Senior gizonezkoak**
La Salle-MU
Zapatua. 20:00. Donostia.

Aloña Mendi-Kostkas
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

Soraluce BKE-Oiarso
Zapatua. 16:00. Labegaraie.

Aloña Mendi-Errotaundi
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**Senior emakumezkoak**
Kiosko Terraza-Eskoriatza
Zapatua. 16:00. Donostia.

**Gazteak gizonezkoak**
La Salle-MU
Zapatua. 18:00. Donostia.

Transbretaña BKE-Atletico
Zapatua. 12:30. Mariaren L.

Aloña Mendi-Zarautz
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Gazteak emakumezkoak**
Easo Loyola-Eskoriatza
Zapatua. 12:00. Donostia.

Soraluce BKE-Salletarrak
Zapatua. 18:00. Mariaren L.

**Kadete gizonezkoak**
MU-Kondepanaderokua BKE
Zapatua. 12:00. Musakola.

Aloña Mendi-Goierri
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Kadete emakumezkoak**
Aloña Mendi-Arizmendi Esk.
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**PIRAGUISMOA**

**Beti-Bustik antolatuta Kayak festa Bergaran**
18:00etan slalom txapelketa Bideberrin. Eta, Coloradoko kanoi jaitsieraren gaineko bideo emanaldia.





**> DANBAKA**
Gaur, egubakoitza, lehiaketako azken kontzertua izango da **> 42**



**> UNE TALDEA**
Argitaratu duten lan berriaz jardun dugu Oñatiko taldearekin **> 43**



**> KANTARI GALA**
Gabonen harira, 'Kantari Gala' ikusteko aukera hilaren 28an, GOITBn **> 43**

# Arrasateko iraganaren 500 lekuko ikusgai Kulturaten

Arrasateko 50 baserrik utzitako 500 tresna ikusteko aukera dago Kulturateko klaustroan

Santamas Komisiñue arduratu da urtarrilaren 9ra arte zabalik egongo den erakusketa antolatzeaz; denetariko tresnak jarri dituzte



**GOLDEA** Erakusketaren erdian jarri dute goldea, hazia erein aurretik lurra prestatu eta mugitzeko erabiltzen zen tresna. JOKIN BEREZIARTUA

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Museora kondenatuta, nolakoak ziren gogoratzeko. Bizitza osoa Bedoñako Bidasoro baserrian daroan Kontxita Berezibarrek baserriko bizimoduaren "egoera latza" aipatzen zuen orain gutxi elkarrizketa batean. Ukaezina da, iraganera pasa da baserria.

**IRAGANA ORAIN ERAKUTSI**
Hala, iragana gogoratzeko erakusketa bitxia zabaldu berri dute Kulturaten. Arrasateko iraganaren 500 lekuko daude ikusgai Santamas Komisiñuek antolatu duen baserrien tresnen erakusketan. Eguaztenean zabaldu zuten eta urtarrilaren 9ra arte bisitatu ahalko da, arratsaldez (17:30-20:30). Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an itxita egongo da; egun askorik ez, beraz.

Eta erakusten denak merezi du: Arrasateko 50 baserritako –guztira 150 inguru daude– denetariko 500 tresna bertatik bertara ikusi ahal dira; abeltzaintzako, arrantzako, nekazaritzako eta sukaldeko erremintak: besteak beste, erakusketaren bihotza den goldea –irudian–, ogia eta taloa egiteko tresnak, haria kardatzekoak, sagardo eta ardoak gordetzeko upelak, ura eramateko marmitak... Tresneria handiaz gain, erreminta txikiak ere badaude: artaziak, zerrak, aulkiak, kandelak, lapikoak, eta abar, eta abar. Erremintok euren eginbeharra eta funtzionamendua azaltzen duten informazioa dute ondoan.

**BASERRIA, KALERA EKARRI**
Santamasetako egitarauaren barruan antolatzen den erakusketa berezi horren helburua euskal ohiturak eta baserritarren bizimodua kalera ekartzea da. Gure arbasoen bizimodua, une batez bada ere, berreskuratzea, finean.

**MERITU HANDIKO ERAKUSKETA**
Kulturateko klaustroan sartzeaz bat konturatuko da bisitaria erakusketak duen merituaz. Komisiñoko kideak izan dira erakusketa hori posible egin dutenak, eta, beraz, borondatezko lan handiaren emaitza da. Izan ere, Komisiñuek jakinarazi duenez, "500 tresnok baserriz baserri katalogatzen ibiltzea ez da edonolako lana izan".

Orain dela zortzi urte inguru hasi ziren lanean. 2003an Udalaren esku utzi zuten ordura arte egindakoa, orduan jasotakoarekin birritan erakusketa antolatu ostean. Hala ere, urteotan Udalak ezer gutxi egin duenez, Komisiñokoak euren gain hartu dute ardura, hasierako lanari etekin handiagoa ateratzeko asmoz. Hala, Udalari dei egin diote lan hori aprobetxatzeko, "badago-eta liburu bat egiteko beste material".

## Astelehenean aurkeztu zuten Bedoñako 'Malbe'-ren bizitza kontatzen duen liburua

Alejandro Iturbe Arana *Malbe* (1888-1967) Arrasateko Bedoña auzoko baserritarraren bizitza kontatzen duen liburua aurkeztu zuten astelehenean, Kulturateko klaustroan –baserriko tresnen erakusketa dagoen leku berean–. Maixol Iparragirre eta Joseba Garitaonaindia dira liburuaren idazleak. Hala, Kulturaten aurkeztu aurretik Fresnesko kartzelan (Frantzia) aurkeztu zuten, Iparragirre preso dagoen lekuan. Arrasateko aurkezpenean preso politikoaren aita izan zen Garitaonaindiaren ondoan. Liburuan aurkezten den protagonistaren istorioa garai ilun haien isla da, pasarte barregarriak ere badiren arren. 36ko gerraren osteko garai gogorrak ziren eta gizartea erabat txikituta zegoen. Industrializazioa zela-eta baserritar askok lantokia aukeratu zuten baserrian jarraitzea baino. Baina *Malbe*-k ez zuen hala egin. Baserrian geratzea erabaki zuen, eta "ur eta zelai libreak" aldarrikatu. Izan ere, borrokalari amorratua zen.

Liburua Arrasateko Balanzategi kioskoan –*Tiburon*–, Musakola auzoko Otxoa eta Aretxabaletako Pagaldai pentsu dendetan eta Eskoriatzako Inkernu tabernan dago salgai. Santamasetan Biteri plazan jarriko dute. Liburuak Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako Udalen laguntza jaso du.



Santi Iparragirre –Marixolen aita– eta Joseba Garitaonaindia. IKER BARANDIARAN

Aitor Uriarte > UNE taldeko kidea

# "Abesterakoan, parte hartu dudan hiru taldeetan gozatu dut"

M. BIKUÑA / J. BEREZIARTUA > OÑATI

**Latzen eta Sen taldeek egin zuten ezagun Aitor Uriarte abeslari oñatiarra. Egun UNEn –Une Nare Eza– abeslari lanetan dabil. Bigarren diskoa atera dute, eta *Hegalik gabe hegan* bataiatu dute, lasaitasun unerik bizi ez dugun garaiotan "musikarekin hegalik gabe hegan gabiltzalako".**



Aitor Uriarte oñatiarrak –irudian, eskuman– bigarren diskoa atera du UNE taldearekin. GOIENKARIA

**Zer eskaintzen digu *Hegalik gabe hegan*-ek?**
Ilusio eta lan handia gordetzen dituen diskoa da. Lan honek, hasieratik bukaeraraino, paraje ezberdinetara garamatza; denetarik aurki daiteke. Lan osoa da, teknikoki oso zaindua.

**Gustura emaitzarekin?**
Oso. Lan handia egin dugu atzetik eta irrikan geunden azken emaitza, erabat amaituta, esku artean izateko.

**Nola sortzen dituzue zuen kantuak?**
Hitzak idazteaz ni arduratzen naiz normalean, eta musika denon artean konposatzen dugu. Lehenengo musika egiten dugu, kantuari norabidea emateko.

**12 kantu. Zer kontatzen dute?**
Kantu bakoitza mundu bat da, gai edo ideiaren bat sentiarazten digu. Norberarendako hain handiak izan daitezkeen gauza txikien gainean berba egiten dute batzuek, eta gai potoloagoez beste batzuek. Abesti bakoitza ezberdina da, musika eta hitzei dagokienez.

**Lehen diskoarekin alderatuz, zeintzuk dira aldaketak?**
Kontraste handiagoko diskoa da: kantu bortitzak eta lasaiak, azkarrak eta motelak, tristeak eta alaiak. Lan dinamikoagoa da, eta horrek entzuteko errazagoa egiten du. Estiloari dagokionez, disko berriko kantuek rock kutsu handiagoa dute. Dena den, metal eta pop ukituak baditu.

**"Kantu bakoitza mundu bat da; musika eta hitzei dagokienez ezberdinak dira elkarren artean"**

Profesional handiekin lan egiteko aukera izan dugu eta oso pozik gaude eurekin, gogotik egin dute-eta lan.

**"Ea lehenengo biran jarraitu gintuztenak eta ezagutzeke ditugunak gogobetetzeko gai garen"**

**Non eros dezakegu?**
Hori diskoetxearen ardura da, baina dagoeneko ohiko saltokietan egongo da. Internet bidez inolako arazo barik eros daiteke: *www.unekin.com* eta *www.myspace.com/unekin* helbideetan.

**Norengana heltzen da UNE?**
Gure kontzertuetan askotariko pertsonak ikusten ditugu. Batek daki; lehenengo biran jarraitu gaituztenak gogoz sumatzen ditugu, ea haiek eta ezagutzeke ditugunak gogobetetzeko gai garen.

**Gogorra izan da Latzen utzi eta UNEra bueltatzea?**
Egia esan, bai. Latzenen agurraren biran ginenean bi taldeak tartekatu ditut. Batetik, Latzenekin entsegu eta buruhauste asko, eta bestetik, Bilbo aldean disko honen konposaketa lanak.

**Abestean, non gusturago?**
UNEk askatasuna ematen dit erregistro ezberdinak egiteko, baina hiru taldeetan [Sen, Latzen eta UNE] gozatu dut abesterakoan.

OÑATI > 'KANTARI GALA' GAZTELEKUAN

# Sorpresaz betetako 'Kantari gala' GOITBn

## Urtea agurtzeko gala berezia abenduaren 28an izango da eta GOITBk Gabon zahar gauean emitituko du

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

2008ari agur esan eta 2009ari merezitako ongietorria emateko, Goiena Telebistak Gabon zahar jai berezia prestatu du, eta abenduaren 28an grabatuko da Oñatiko gaztelekuan, 18:00etan.

*Kantari gala* izenburu duen emanaldian, aurretik Kantariko saioetan parte hartu duten neska-mutikoek protagonismo berezia izango dute. Izan ere, horietatik guztietatik abenduaren 28ko grabazioan parte hartuko duten hamar neska-mutiko aukeratuko dira zozketa bidez.



*Kantari* saioko gaztetxoek protagonismo berezia izango dute galan. GOIENKARIA

**GALA IKUSGARRIA**

Denetariko emanaldiz jositako gala izango da. Kantari saioko gaztetxoez gain, Eskoriatzako Senzala taldeak capoeira erakustaldia egingo du, Aitor Murua gaztetxo aretxabaletarrak bizikletarekin egingo dituen jauziek aho zabalik utziko dute ikuslea, eta Alain Alcaraz 11 urteko bergararrak break-dance saioa eskainiko du. Eta horretaz gain, aurreratu ezin daitezkeen sorpresa asko, noski.

Onena hilaren 28an gaztelekura hurbiltzea, eta bestela, Gabon zahar gauean GOITBn ikustea.

> BERGARA

### Mahaster River-en 'Nahasterrekam' bihar aurkeztuko dute

Mikel Azkargorta, Fernando Laskurain eta Unai Azkaratek osatzen duten Mahaster River talde bergararrak *Nahasterrekam* izeneko lana kaleratu du, euren bigarrena. Apirila eta maiatza bitartean grabatu zuten, Andoaingo Garate estudioan. Taldeak berak ekoiztu eta argitaratutako lana da eta Durangoko azokan jarri zuten salgai.

Diskoaren aurkezpen ofiziala, baina, bihar izango da, Bergarako Etxagi tabernan. 18:00etan prentsaurrekoa eta gauean kontzertua eskainiko dute musikarekin harreman berezia duen jatetxean.

> OÑATI

### Amaia Zubiria Santa Anan eta euskal bossa gaztelekuan

Aste bukaera honetan musika emanaldi bereziak izango dira Oñatin. Gaur, 22:30ean, Zura eta Sabina Leoneren kontzertuak izango dira gaztelekuan; euskarazko bossanova eta sentimenduz betetako musikari suitzarraren saio hunkigarria.

Bihar, berriz, Amaia Zubiriaren ahotsa dastatu ahalko da Santa Ana antzokian, 19:30ean. *Nabil* izeneko disko berriarekin dator, errepertorio klasikoz jositako lana. Sarrerak 10 euro balioko du, eta leihatilak ordu erdi lehenago zabalduko dira.

> MUSIKA SARIAK

### Gose eta Belceblues, Euskarazko Kantu Onenarentzat hautagai

Espainiako Arte eta Musika Zientzien Akademiak urtero ematen dituen musika sarietarako –aurtengoa XIII. edizioa da– hautagaiak dira Bergarako Belceblues eta Arrasateko Gose taldeak.

Bergararren *Infer* eta arrasatearren *16 eskailera* Euskarazko Kantu Onena irabazteko aukeratu dituzte.

> BERGARA

### Killer Barbies eta Las Culebras bihar Jam aretoan

Rock emanaldi ikusgarria eskainiko dute bihar Killer Barbies talde galiziarrak eta Las Culebras iruindarrek. Ateak 22:00etan zabalduko dituzte; sarrerak 12 euro aurrez.

Bestalde, datorren zapatuan Soziedad Alkoholika talde ezaguna etorriko da Jam aretora. Ateak 21:30ean zabalduko dira.

**MUSIKA** > DANBAKA

# 77ko kutsua duen punk-rocka, power-pop indartsua eta saxoaren ñabardurak

Ibarreko bi talde, Durangaldeko bat eta Debabarreneko beste bat izango dira gaur, egubakoitza, Espaloiko agertoki gainean

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Heldu gara Danbakako kontzertuen zuzeneko fasearen bukaerara. Gaur, egubakoitza, agertoki gainera igoko dira Espaloian zuzenean aritzeko sailkatutako 24 taldeetatik falta diren lau azkenak. Are gehiago, datorren astelehenean jakingo dugu zeintzuk izango diren finalera joango diren hiru taldeak. Zorte on!

Bitxikeria batekin hasiko dugu gaua: hain zuzen ere, Arrasateko The Motherfuckers taldeak bi kontzertu ditu gau berean. Hala, aurtengo Danbakako seigarren gaua zabaldu ostean, alde egingo dute.

Horien ostean, aurtengo Eskoriatzako ordezkari bakarra: Barua Banda. Saxoak berezitasun handia ematen die euskaraz abestutako rock kantuei, eta ziur herrikide asko batuko dituztela.

Durangaldeko gaueko ordezkaria Tuesday Evenings taldea da. Power-popa, gitarra gogorrak, distortsioa eta melodia, guztiak batzen dituzte.

Gaueko azkeneko taldea Soraluzeko Revelphone izango da, *Danbaka.com* webgunean jarraitzaileen botoei esker sailkatu zen taldea. Punk-rocka eta doinu itsaskorrak batzen dituzte.

**KONTZERTUA**

Gaur, egubakoitza. 22:30.
Elgetako Espaloia.
5 euro (Gaztekutxa, 3 euro).

**> The Motherfuckers**
**> Barua Banda**
**> Tuesday Evenings**
**> Revelphone**



**THE MOTHERFUCKERS** I Arrasate

The Motherfuckers taldea 2006an jaio zen. Hasiera baten hainbat musikarik denbora-pasa moduan sortutako taldea da, baina tarteka kontzertuak egiten dituzte. Hodei Beitiak, Asier Salak, Asier Uribetxebarriak, Mikel Arriaranek eta Jon Alkortak osatzen dute, eta guztiak oi! eta street-punk taldeetan buru-belarri dabiltza. Proiektu horretan ingelesa eta gaztelania tartekatzen dituzte, eta 77ko punketik, punk-rocketik eta rock-and-rolletik hurbil dabiltza.



**BARUA BANDA** I Eskoriatza

Barua Banda 2007an sortu zuten Eskoriatzako hainbat lagunek, bizkaitar batek lagunduta. Orain arte hiru kontzertu eman dituzte, guztiak Eskoriatzan, eta aldaketa batzuk izan berri dituzte taldean. Gaur egun, Andoni Bengoak, Iñaki eta Garikoitz Kortazarrek, Iñaki Herrerak eta Txus Gutierrezek osatzen dute taldea. Euskarazko rocka egiten dute, oso estilo pertsonalarekin, eta emaitza asko aberasten dute saxoaren laguntzarekin. Talde gazte baina bitxia da Barua Banda.



**TUESDAY EVENINGS** I Durango

Beste proiektu batzuetatik etorritako bost lagunek sortu zuten taldea 2005ean, Durangon. Beñat Espinosak, Marcos Agirrek, Urko Lekeri-kak, Mikel Urrestik eta Iñaki Urrestik osatzen dute taldea. Ingelesez abestutako kantuetan hainbat estilo batzen dituzte. Taldekideek power-poparen eta rockaren artean kokatzen direla diote, baina askoz gehiago dagoela esan dezakegu: hala nola gitarra gogorrak, psikodelia eta baita, tarteka, noise-poparen aztarnak ere.



**REVELPHONE** I Soraluze

Soraluzeko talde hori 2005eko udan sortu zuten hainbat lagunek; euren esanetan, arratsalde aspergarriei irteera emateko. Gaur egungo taldekideak Josu Arriola, Gaizka Azkarate, Joanes Iñurrieta, Asier Iraeta eta Juan Fernandez dira. Bi maketa kaleratu dituzte, eta Soraluzen eta Debabarrenean batez ere hainbat kontzertu eman dituzte. Euskaraz abesten dute, eta rockaren eta punk-rockaren arteko kantuak egiten dituzte, amorrua eta melodia uztartuta.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

**Goiena.net**

**www.goiena.net/blogak**

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik
/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi
/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi
/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/otzeta
/optico
/pando
/perfipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernaberri
/udalatx
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.amgautoak.com**
**www.baster-aldejatetxea.com**
**www.ehmff.com**
**www.gelatzu.com**
**www.goikobenta.com**
**www.haurtxoa.com**
**www.kizkur.com**
**www.klorofila.com**
**www.landaluze.com**
**www.lilura.com**
**www.toldoslete.com**
**www.uxarte.net**
**www.biark.net**



# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 88 metro koadroko etxebizitza salgai. Balkoia, garajea, trastelekua eta igogailua. Etxeak 7 urte ditu. 250.000 euro. 697 78 07 29

**Aramaio.** Etxebizitza saldu edo errentan ematen da Ibargoian. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komuna. 620 59 86 55.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Beasain.** 55 m2ko etxebizitza guztiz eraberritua. 2 logela, sukalde-egongela eta komuna. Eguzkitsua, bi balkoirekin. Trastelekua. 615 73 59 18.

**Bergara.** Estreinatu gabeko etxebizitza berria. Martoko 42, 2. A. 77 metro koadro. 11 metro koadroko ganbara. Igogailua. Dena kanpoaldera begira. 218.000 euro gehi %7ko BEZa. 649 05 50 93.

**Bergara.** Atiko berria saldu edo errentan ematen da erdigunean. Logela bat. 70 metro koadroko terraza. Aire girotua eta kontsumo txikiko berogailuak. Igogailua. 616 87 29 65

**Bilbo.** Alde Zaharreko metrotik 7 minutura, ingurune lasaian. Guztiz berriztatuta. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m2. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trastelekua eta garaje plaza 1 (alokairuan). 94 415 67 49.

**Bilbo.** Santutxun, Basarrateko metro alboan 3 logelako etxebizitza igogailuarekin. Egongela, komuna, sukaldea jantzita, berogailuak gas naturalarekin eta despentsa. 37 milioi, 222.375 euro. Tel. 688 63 36 21.

**Ispaster.** Baserria salgai 15 hektareako lursailarekin. Bi etxebizitza egiteko aukera. 80 milioi pezeta, 480.810 euro. Tel. 688 63 36 21.

**Lakuntza.** 36 metro karratuko lokal komertziala salgai. Bizitza bihurtzeko aukera. ErmiÒeta kalean. Interesatuek hots egin 689 23 27 08 telefonora.

**Lekeitio.** Pisua salgai lekeition. Bi logela, ezkaratza, egongela, komuna eta sarreraduna. Berriztatuta eta jantzita. 688 69 63 36.

**Lekeitio.** Aukera paregabea! Txaleta salgai. Leku eder eta lasaian, lur eremua fruitondoekin, prezio interesgarria. 120 milioi pezeta. 721.215 euro. Tel. 688 63 36 21.

**Lekeitio.** Aukera ezinhobea! Lehen solairua, eguzkitsua. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoi eta ganbararekin. 30 milioi pezeta, 180.304 euro. 688 63 36 21.

**Mutriku.** Salgai Erdiko kalean, 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta despentsa. 140.000 euro. 680 53 72 89.

**Mutriku.** Salgai duplexa erdiko kalean, 5 gela, egongela, sukaldea, 2 komun eta despentsa. 210.000 euro. Tel. 680 53 72 98.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza salgai Bidebarrietan. Hiru logela, bi bainugela, ganbara (etxearekin bat eginda) eta garajea. 656 79 88 12.

### 102. EROSI

**Oñati.** Bikote batek 250.000 euro baino gehiago balio ez duen etxe bat erosiko luke. 659 25 72 84.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Oso egoera onean. Bikote batentzat egokia. 620 15 15 08.

**Arrasate.** Logela bateko etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Guztiz berritua eta berogailuarekin. Deitu 16:00etatik aurrera. 606 22 76 99.

**Jaca.** 3 logelako etxebizitza alokatzen dut. Asteka edo hilabeteka. 635 75 02 93.

**Oñati.** 110 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Lau logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Guztiz jantzia. 659 53 87 62.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Santa Marina plaza ondoan. Hiru logela, bi bainugela, garajea eta trastelekua. 652 71 74 33.

**Oñati.** Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Olakuan. Guztiz berritua eta jantzia. Garajea aukeran. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Etxebizitza txiki bat edo apartamentu bat errentan hartuko nuke Aretxabaletan. 619 46 43 66.

**Arrasate.** Bikote arduratsu eta garbiak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. 666 21 88 95 edo 943 77 07 01.

**Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan erdigunean. Bi edo hiru logela. Presazkoa. Deitu 636 25 56 68 telefonora.

**Idiazabal.** Bikote gazte batek Idiazabalen pisua alokairuan hartuko luke. 615 75 34 11.

**Lakuntza.** Inguruan pisu bat alokatu nahi nuke. 669 56 36 21.

**Zizurkil.** Zizurkil edo inguruko herri batean etxe bat hartuko nuke alokairuan. 35 urteko neska bat naiz eta lau urteko alaba dut. 654 99 18 32.

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Interesatuta egonez gero 608 57 97 70 telefonora hots egin.

**Altsasu.** Logela alokatu edo pisua konpartitzeko prest nago Altsasun. Deitu 690 70 61 72 telefono zenbakira.

**Antzuola.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. 607 59 18 49.

**Aretxabaleta.** Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. Deitu 639 28 53 50 zenbakira.

**Arrasate.** Irakasle batek logela bat behar dut aurtengo ikasturterako. Deitu 652 73 55 54 telefonora.

**Arrasate.** Kooperatibetan lanean dabilen mutil bat beste langile baten bila dago etxea konpartitzeko. 628 08 75 89.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu Arrasateko erdialdean dagoen etxebizitza osatzeko. Etxe handia, wi-fiarekin. 699 28 99 06 edo 678 76 28 22.

**Aretxabaleta.** Logela errentan ematen da, erosoa eta ekonomikoa. Deitu 639 28 53 50 telefonora.

**Eskoriatza.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Deitu 690 15 95 06 telefono zenbakira.

**Bergara.** Logela ematen da errentan Bolun, sukalderako eskubidearekin. Deitu 670 85 86 68 telefono zenbakira.

**Bergara.** Logela hartuko nuke errentan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Deitu 17:15etik aurrera 664 76 76 94 telefono zenbakira.

**Donostia.** Neska euskaldun bila gabiltza otsailetik aurrera etxebizitza osatzeko. Etxea Matia kale ondoan dago. Hondartzatik eta unibertsitatetatik gertu. Interesatuak deitu lasai edo bidali posta bat: ogerrikagoitia@begira.com. Deitu 645 72 58 41 telefono zenbakira.

---

**1. ETXEBIZITZAK**
101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

**2. GARAJEAK**
201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

**3. LOKALAK**
301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

**4. LANA**
401. ESKAINTZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

**5. IRAKASKUNTZA**
501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

**6. MOTORRA**
601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

**7. ANIMALIAK**
701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

**8. DENETARIK**
801. SALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. HARTU
805. TRUKATU
806. GALDU
807. AURKITU
808. BESTELAKOAK

**9. HARREMANAK**
901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

**10. RELAX**

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

# 943 25 05 05

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 22 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 30 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

---

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Elgoibar.** Marradun garajea salgai edo errentan Elgoibarren, udaletxearen ondoan. Auto ertain edo txiki batentzat. 615 78 78 57.

**Errenteria-Orereta.** Garaje itxia salgai Errenteria-Oreretako Tulle kalean. 615 72 66 00.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Ozaeta, Martoko edo Zubiaurren garajea hartuko nuke errentan. 644 47 92 91.

**Ormaiztegi.** Auto batentzako garajea alokatzen da Ormaiztegin. Deitu 609 41 18 11 telefonora.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Industria-nabea.** Altsasuko ondarria poligonoan. 140 metro karratu eta 2 sarbiderekin. 948 56 32 90 edo 659 62 32 71.

**Pabilioia Legution.** 1.600 m2, eraikin berria, oso altua, biltegi bezala erabiltzeko aproposa, kamioiak sartu eta irteteko prestatuta, N-240 errepidearen ondoan, Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Arrasaterekin lotura bikainak. Garraio zerbitzua ere eskaintzen dugu, bertan gorde nahi diren merkantziak banatzeko. 607 40 41 58.

### 303. ERRENTAN HARTU

**Txabola.** Azpeitia inguruan txabola edo borda bat alokatu nahi nuke animaliak jartzeko, txakurra, oiloak... Diruaz aparte beste tratu baterako ere prest egongo nintzateke, txabola konpondu, basoa garbituedo beste edozer gauza, Idatzi mezu bat e-postara: *artxulo@hotmail.com* edo 663 90 67 93.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Anoeta.** Emakume bat behar da etxeko garbiketetarako. Astean 2-3 egun eta goizez. 687 70 20 41.

**Aramaio.** Pertsona arduratsu eta euskalduna behar da umeak zaintzeko. 685 73 58 55.

**Azpeitia.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko, goizez edo arratsaldez. 687 41 59 43.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate**, Aretxabaleta edo Eskoriatza. Tituludun ile apaintzailea gertu etxean bertan orrazteko. 650 59 93 91.

**Arrasate.** Esperientzia handiko neska sukaldean lan egiteko gertu. Baita garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko ere. Nacira. 639 93 25 04.

**Arrasate.** Metalurgia, sukalde laguntzaile, zerbitzari edo edozein motatako lanak egingo nituzke. Jose Ingo. 639 93 25 04 edo 659 32 69 92.

**Arrasate Bergara.** Etxeko lanak egiten lan egingo nuke, etxean bertan bizi izaten edo orduka. 620 54 60 59

**Azpeitia.** Ingeniari teknikoa LH eta DBH mailako eskola partikularrak emateko prest. Informazio gehiago: 637 11 39 09.

**Bergara.** Emakume gaztea pertsona adinekoak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Paperekin eta esperientziarekin. 686 99 59 41.

**Debagoiena.** Neska espainiarra gertu garbiketa lanak egiteko edo ume zein nagusiak zaintzeko. Segituan hasteko prest. 667 28 83 21.

**Debagoiena.** Mutila gertu igeltsero lanak egiteko. 667 28 83 21.

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Etxean bertan bizi izateko prest nago. 680 67 69 88

**Debagoiena.** Debagoiena edo Debabarrena. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten, astelehenetik ostiralera. 628 40 58 27.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke gauetan. Esperientzia eta geriatria ikastaroa dauzkat. Erreferentziekin. 618 93 59 29.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Deitu 663 51 44 94 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak umeak edo nagusiak zainduko lituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. Deitu 680 30 24 64 telefonora.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu garbiketa, sukalde laguntzaile edo bestelako lanetarako. Deitu 638 61 85 10 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Basogintza lanak egingo nituzke: inausketa, garbiketa eta abar. Deitu 659 05 97 21 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko orduka edo etxean bertan bizi izaten. 686 45 72 56.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean bertan bizi izanda 659 57 93 89

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusiak zaintzeko. Etxean bertan lo eginda edo ez. Deitu 659 57 93 89 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, egun osoz eta etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Deitu 688 68 13 63 zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 14:00etatik aurrera. 618 12 07 44.

**Debagoiena.** Gidabaimena duen mutila lanerako gertu: banaketak, garbiketa edo tabernetan. Deitu 697 66 79 37 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat etxeko lanetan. 686 52 15 98.

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. 634 84 11 72.

**Debagoiena.** Paperak dituen mutil gaztea peoi moduan lan egiteko gertu. 626 17 60 57.

**Debagoiena.** 23 urteko mutila gertu garbiketa, sukaldaritza edo bestelako lanetarako. Nahiago Arrasaten bada. Deitu 943 05 79 13 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin edo nagusi zein umeak zaintzeko. 697 93 73 32.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. 667 28 83 21.

**Debagoiena.** Emakume boliviarra, legezko paperak dituena, nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Deitu 636 91 93 81 zenbakira.

**Eibar.** Bateria jotzen dut eta talde bila nabil, edo jendea talde berri bat sortzeko. Rock estiloa, influentziak: Soundgarden, Foo Fighters, Bad Religion, Berri Txarrak, God is an Astronaut, Kuraia, QOTSA... Deitu 659 38 58 64ra edo idatzi pizarro*108@hotmail.com* postara.

**Elgoibar.** Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Goizez eta arratsaldez. Deitu 943 74 32 51 telefono zenbakira.

**Elgoibar.** Emakume euskalduna, nagusiak zaintzeko prest esperientziarekin. Autoa dauka. 626 43 82 48.

**Goierri.** Lan bila nabilen neska araduratsua naiz. Garbitzen, umeak edo adinekoak zaintzen lan egingo nuke. 628487175.

**Lasarte-Oria.** Neska bat eskaintzen da haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko, edota garbiketarako. Interna moduan edo orduka. 620 03 68 88.

**Lasarte-Oria.** Neska arduratsua eta lanerako gogoarekin eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, garbiketarako eta haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka. 690 30 46 83.

**Tolosaldea.** Neska gazte euskalduna lanerako prest. Goi mailako delineatzaile titulua daukat, baina edozertan lan egingo nuke. 627 65 34 33.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Alemaneko** eskola partikularrak hartuko nituzke, DZ maila. 630 18 11 99.

**Altsasu.** Pertsona bat behar da DBH 2. mailako neska bati eskola partikularrak emateko. Interesatuek deitu 650 47 17 13 telefonora.

**Arrasate.** DBHko lehenengo mailarako eskola partikularrak emateko gertu dagoen norbait behar da. 669 61 52 99.

**Donostia.** Ingelesa azkar ikasi beharra duen neska naiz, klaseen ordez mintzapraktika egitea erabaki dut. Niri arratsalderen bat eskaini ahal izango bazenit eskertuko nizuke. Maila ez da oso altua baina, moldatzeko lain ikasi nahiko nuke. Interesik baduzu deitu (655 70 73 94) edota idatzi mesedez *mirariastigarraga@gmail.com*.

### 502. EMAN

**Bergara.** Aranerrekan. Ingeles eskolak ematen ditut. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntzarako. 616 12 56 29.

**Donostia.** Lehen eta Bigarren Hezkuntzan zein batxilergo edo ingeniaritza mailan eskolak ematen ditut. Bost urteko esperientzia lehen eta bigarren mailan eta bi urtez ingeniaritza eta heziketa zikloetan eskolak ematen. 645 72 58 41.

**Ingeles** irakasle ezaguna berriro eskolak emateko gertu. Eskola laguntza edo azterketak gertatzeko. Bolu. 616 12 56 29.

**Bergara.** Kimika lizentziatu batek fisika, kimika, natur zientziak, marrazketa tekniko, geologia eta teknologiako klase partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Tel. 648 06 79 85.

**Etxarri Aranatz.** Etxarri Aranazko Kultur Etxean txalaparta ikastaroa hasiko da abenduaren 18an, ostegunean, 20:00etatik aurrera. Izena emateko edo informazioa eskatzeko jo 610 61 05 75 telefonora.

**Lasarte-Oria.** Neska euskalduna lehen hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia. 659 73 01 33.

**Lasarte Oria.** Matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia, 646 71 76 76.

**Leioa.** Lehen hezkuntzako ikasleei eskola partikularrak emateko prest nago. Ostiral arratsaldetan 15:00etatik 18:00etara bitartean. Ordua 10€. 629 86 64 03.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Motorra salgai.** Suzuki SV 650 S motorra salgai. 3 urtekoa. 15.000 km eta gurpil berriekin. Deitu: 675 71 47 12.

### 604. BESTELAKOAK

**Motoarentzat.** 2002-03-04 eta 2005 urteko Yamaha WR 450-F motoentzako Pro Circuit TI4 markako eskape osoa eta pieza asko. Dena 600 eurotan. Deitu 667 41 88 75 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Kanario horiak.** Arrasaten kanarioak salgai. Horiak. Isabela eta Agata arrazakoak. Mikel. 635 75 54 53.

**Txakurkumeak salgai.** Salgai txakurkume ederrak. Artzaintza lanerako edo konpainiarako. Moduzko prezioan. 652 71 95 24.

### 703. EMAN

**Katuak** opari egiten ditut. Zurixkak eta begi urdindunak. 943 78 23 91.

**Txakurkumea** oparitzen da. Euskal artzain txakurra. 626 11 38 69.

**Artzain-txakurrak.** Artzain txakurkume politak oparitzen ditugu, bi ar eta eme bat. Deitu: 943 81 58 45

### 704. BESTELAKOAK

**Setter** arrazako txakur emea galdu zen azaroaren 16an Bolibar inguruan. 12 urte ditu, Zuri izenekoa, eta plaka dauka lepokoan. Guretzat balio sentimental handia dauka. 943 79 96 55.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Baserritar arropa.** Baserritar alkandora eta abarkak salgai. Bost urtetik aurrerako umeentzat. Galtzerdiak opari. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

**Bizikleta.** Bigarren eskuko bizikleta salgai. Polita eta egoera onean. 90 euro. 679 74 00 61.

**Bikiendako karroa.** Bikiak paseatzeko karroa salgai. Kapazoak oparitzen ditugu. 943 79 41 15 edo 675 00 56 17.

**Eskiatzeko botak.** 41 42 zenbakiko eskiatzeko botak salgai. Behin erabiliak. 90 euro. 669 83 60 53.

**Game Boy.** Game Boy Advance kontsola zazpi jokorekin (*Super Mario, Pokemon, Mario Kart, Donkey Kong...*) salgai. 50 euro. 665 72 44 36.

**Gameboy Advancerako bi joko.** *Moto GP* eta *Ratonpolis*. Biak hartuz gero: 15 euro. Banaka: 9 euro. 679 74 00 61.

**Altzariak.** Logela. Haritz egurrezko armairua, 90eko bi ohe eta gau-mahaia salgai. Prezio interesgarria. 677 44 20 81.

**Kateak salgai.** Autoarendako elurretarako kateak salgai. 215-75/16 neurrikoak. Mikel. 638 46 62 72.

**Lur saila salgai.** Goierri: 3.500m2-ko lur saila salgai etxea egiteko aukerarekin. Aralar magalean. 300m2 edifikatuak. Esplotazio baterako leku egokia. 629 48 78 68.

**Ordenagailuko jokoak.** Jatorrizko lau cd joko: *Scooby Doo, Jurasic Park, La leyenda del dragÛn* eta *Spell Force*. Dibertigarriak eta buruko estrategia lantzen dutenak. Egoera ezin hobean. Bakoitzak 6 euro eta denak 20 euro. Interesatuak dei dezala 679 74 00 61 telefonora.

**Pago egurra salgai.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Deitu 615 75 57 62 telefono zenbakira

**VHS bideoak salgai.** Umeentzako VHS bideoak salgai. 656 78 64 64.

### 802. EROSI

**Bizikleta erosiko nuke.** Hamar urteko neska batentzako, bizikleta bat erosiko nuke. Deitu 943 36 63 59 telefonora. Maite.

**Disko gogorra.** Pentium III 800 MHz-rako IDE disko gogor bila nabil. Deitu 675 92 93 06 telefonora.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan, autoa aparkatzeko lekua daukana. 656 77 85 91.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Motxila urdina utzi nuen azaroaren 20an bidegorriko iturriaren aldamenean. Kirol materiala dauka barruan. Aurkitu duenak eraman dezala Udaltzaingora edo dei diezadala. Sarituko da. 943 53 31 68 edo 636 62 15 04.


KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

**Bergara:**
- Zabalotegi 80 $m^2$. Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Ibargarai 74 $m^2$. Ondo. Garajea aukeran.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 $m^2$. Oso ondo.
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Artekale 62 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Ibargarai 40 $m^2$. Estreinatzeko.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Etxe berriak 178 $m^2$. Duplexak eta adosatuak.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Oñati:**
- Kale Zaharra. 62 $m^2$. Terrazarekin. Ortua.
- Moyua. 75 $m^2$. Oso aukera ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 70 $m^2$, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Zubiaurre, 82 $m^2$ + 42 $m^2$, ondo.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Simon Arrieta 80 $m^2$, berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^a$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

GARAJE ETXE-AZPI
CITROËN
Citroen autoen aukera zabala!
• **Berriena!** Goi mailako gamako **Citroen C5a! Berlina eta Tourer familia autoa,** hainbat motorizazio.
• **Citroen C4 Sedan, Citroen C4 Picasso, Citroen C6** eta **Citroen C8** monobolumen **berriak!**
• Eta gainera, **Citroen C1**a, 4 eserlekuko **Citroen C2**a, **Citroen C3**a eta **Citroen C4**a.
bigarren eskuko autoak ere baditugu!
943-88 10 61
Beasain bidea z/g, 49.km
20216 **ORMAIZTEGI** (Gipuzkoa)

**Euskarazko komunikazio enpresa batek KOMERTZIALA behar du Bilbo aldean**
Eskaintzen da:
• Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
• Laneko kontratua izatea, gizarte segurantzarekin.
• Soldata interesgarria jasotzea: finkoa eta komisioak.
Eskatzen da:
• Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
• Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
• Autoa izatea.
Kontuan hartuko da:
• Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.
• Bilbon bertan edo inguruan bizitzea.
• Bilboko inguruak ongi ezagutzea.
Curriculum vitae zehatza bidali 2008-IKB erreferentzia zehaztuz, gizabaliabideak@jarduna.net POSTA ELEKTRONIKORA.

HITZA lanpostua
irutxuloko HITZAk
KAZETARIA BEHAR DU
Eskatzen da:
• Euskarazko kazetaritzan eskarmentua izatea.
• Donostia ezagutzea baloratuko da
Curriculum Vitae zehatza bidali **donostia@irutxulokohitza.info** edo deitu **943-46 72 36** telefono zenbakira

Jarduna
administrazio zerbitzuak
KONTABILITATEA • ZERGAK • NOMINAK • KOBRANTZAK
**Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen du Jardunak.**
Zerbitzu guztiak **euskaraz** betetzea bermatzen dizugu
bai euskarari
Zure enpresarentzat administrazio zerbitzu profesionala eta euskalduna nahi baduzu, **jarri harremanetan gurekin**
**Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN**
**Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net**
**www.jarduna.net**

**Arrasate.** Erdigunean urrezko belarritakoa galdu nuen azaroaren 14an, egubakoitza. Deitu 943 79 38 29 edo 629 48 03 13 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Gutun-azal zuria galdu nuen, diruarekin, abenduaren 9an Seber Altube plazan. Sarituko da. Deitu 619 34 88 52 telefono zenbakira.

**Argazki kamera bila.** Aurtengo Amasako jaietan, larunbatez, Casio argazki kamera digitala galdu nuen Amasako frontoian. Bilatu duenak deitu dezala 943 69 29 88 telefonora. Eskertuko da.

**Autoko giltzak galdu.** Autoko giltzak galdu ziren Etxarri Aranatzen abenduaren 12an. Deitu 686 92 23 33 telefonora.

**Mendiko zamarra galdu nuen Iruran.** Grifone markako mendiko zamarra beltza galdu nuen 2008ko urriaren 6an Iruran. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu: 620 20 14 29.

**Bizikleta bila Zarautzen.** Norbaitek aurkitu ote...? Bizikleta BH Over X (neskarena, berri-berria eta Ibaiondo darama jarrita). Kolorea: gris-horixka. Egaña kalean utzi genuen. Norbaitek aurkitu badu, mesedez utzi dezala Ibaiondo dendan, edo deitu dezala 653 70 15 65 telefonora. Mila esker!

## 807. AURKITU

**Betaurrekoak.** Oñatin betaurreko batzuk galdu ditut Arantzazutik Gomiztegira doan bidean. Ikusteko betaurrekoak dira. Txikiak eta zuriak. Aurkitu duenak dei dezala mesedez 627 64 91 89 telefono zenbakira. Mila esker!

**Bizikleta txiki bat Etxarri Aranatzen.** Udan bizikleta txiki bat topatu zen Etxarri Aranazko Arzabal kalean. Jabea pasa dadila jasotzera Sakana elektrizitate dendatik.

**Telefono mugikorra.** Azaroaren 10ean, telefono mugikorra aurkitu nuen Murugain eta Izurieta arteko mendibidean. 620 063592

## 808. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Abenduaren 11n kolpea eman zidaten autoan, BM supermerkatu parean aparkatuta zegoela. Auto granatea da. Inork ezer ikusi badu, dei dezala mesedez 943 77 10 20 edo 676 78 22 35 telefono zenbakietara.

# 9/ HARREMANAK

## 902. HARREMANAK

**Bateria-jolea talde bila.** Bateria jotzen dut eta talde bila nabil, edo jendea talde berri bat sortzeko. Rock estiloa. Deitu 659-385864ra edo idatzi *pizarro108@hotmail.com* postara.

**Gesalibartik Arrasatera** "dedo" gelditu ninduzuna. Gipuzkeraz hitz egiten dudan losintxa bota zenidan zerorri. Konplizitate gehiegi "kaixo, bostekoa, agur" batean soilik gelditzeko. Lagun onak egitea hain zaila den gizarte honetan, nik diodanagatik, deitu arren. Badakizu non aurkitu.

**46 urteko mutil bizkaitarra.** 45-53 urte bitarteko neska baten bila dabil, harreman serio, eta aldi berean dibertigarri bat hasteko. Momentu honetan ez dut autorik. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 619 38 99 82.

**Adiskide berrien bila.** Donostialdeako emakume lesbiana naiz, 53 urtekoa, eta lagun berriak egin nahi nituzke. Neska txiki baten ama naiz. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: *lainope@gmail.com*

**Lagun bila.** 45 urteko gizonezkoa 25-50 urte arteko lagun gayen bila, konpromisorik gabeko harremanetarako. Topaleku lasaia daukat. Idatzi mezu bat: *alulaga@yahoo.es.*

**Mutil** bat naiz, Arrasatekoa, 38 urtekoa, eta beste mutil batekin, ahal bada ni baino gazteagoa, harremanak izan nahi nituzke. Deitu 665 75 58 74 telefonora.

## 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan lanera sartu eta 17:00etan irteten gara. Deitu 635 20 33 14 telefono zenbakira.

**Azpeitia-Donostia.** Azpeitian bizi naiz eta Donostian egiten dut lan. Autoa konpartitu nahiko nuke gastuak gutxitze aldera (auto propioa dut). Nire ordutegia goizeko 08:00-08:30etik 17:30-18:00etara da. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 675 70 81 81.

**Donostia, alde zaharreko joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. *aldezaharrekojoaldunak@gmai.com*

**Sasi-musika - ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat.** Ezohiko musika sorkuntzarako elkarlan gune bat: inprobisazioa oinarrizko adierazpide eta sorbide bezala. Teknika maila eskakizunik ez. Adin mugarik ez. Instrumentuak: ideien eta soinuaren edozein bitarteko. Informazio gehiago: *sasi-musika. blogspot.com.*

---

**E.I.U. Inmobiliaria**
ENTORNOS EIU INMOBILIARIOS URBANÍSTICOS
Patxiku kalea, 5
20800 Zarautz
Tel.: 943-13 27 27

**GETARIA.** Etxe atxikia. 4 urteko etxe atxikia. 200 m2 lau solairutan. 4 logela, 4 bainugela, sukaldea eta egongela, 2 terraza, txokoa eta garaje bikoitza. Oso eguzkitsua eta bista ederrak ditu. Aukera polita.

**ZARAUTZ.** Euromar. 60 m2-ko etxebizitza itsasorako bistekin. 2 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Zona komunitarioan igerilekua, frontoia eta tenisa ditu.

**ORIO.** Eraiki berriak, 70 m2 eta 80 m2, trastelekua eta garaje itxia. 270.455 €-tik aurrera.

---

**LAZKAO INMOBILIARIA**
API 365
Jose Lasa, 4-behea - 20210 Lazkao
943-88 37 39



**LAZKAO**
Azken etxebizitzak,
Orobione, San Prudentzio
180.000 €-tik hasita
www.lamylazkao.com

---

**ARAMBURU**
Administración de Fincas y Gestión inmobiliaria
Etxe Administrakotak eta higiezinen gestioa
943-651713
677-460916

**SALGAI. Etxe handia lur sailarekin,** 4.000 m2, guztiz berritua, Alkizan.

**SALGAI.** Etxebizitza, SOLDADU kalean, sartzeko moduan, Tolosan (231.400€ / 38,5 MIL).

**SALGAI. Etxebizitza,** KALE NAGUSIAn, 1 igogailuarekin sartzeko moduan, eta bestea berritzeko eta igogailurik gabe, Tolosan (193.000€ / 32 MIL. NEGOZIA DAITEZKE)

**SALGAI. Etxebizitza,** MARTIN JOSE IRAOLA kalean Tolosan.

**SALGAI. Etxebizitza,** SAN IGNAZIO auzoan, sartzeko moduan, Ibarran (211.000€ / 35 MIL).

**SALGAI. Etxebizitza,** IZASKUN AUZOAN, Tolosa (234.400€ / 39 MIL).

**SALGAI. Etxebizitza,** guztiz berritua, Amasan.

**SALGAI. Etxebizitza,** berritzeko, Legorretan.

**SALGAI. Lokala,** Euskal Herria kalean, Ibarran.

**SALGAI. Garajeak,** San Frantzisko eta Amarotzen Tolosan, eta Idoiagan Ibarran.

**SALTZEKO EDO ALOKATZEKO. Lokala,** tximiniarekin, erdialdean Lasarten.

**ALOKATZEKO. Etxebizitza,** Iurre auzoan, eta San Franziskon.

**ALOKATZEKO. Garajeak,** San Frantzisko, Araba etorbidean eta Batxiler Zaldibian.

**ALOKATZEKO.** Pabiloi industriala, Leaburuko bidean, Ibarran.

---

**OKADOS** inmobiliaria
Zumardi pas. 3 behea - Tel.: 943-39 46 77
San Martin 62 behea - Tel.: 943-44 44 80
www.buscacasas.com

**AIETE.** Oso polita eta eguzkitsua. Balkoiak eta garajea. 450.800 €.

**AIETE.** 3 logelako etxebizitza. 2 bainugela, egongela eta erabilpen anitzeko gunea. Terraza. Bista ederrak. 871.000 €.

**ERDIALDEA.** Kanpoaldera. Eraikin eraberritua. 90 m2. Egongela, 3 logela, 2 bainugela. Igogailua. 931.200 €.

**INTXAURRONDO.** 75 m2. Oso polita eta eguzkitsua. Egongela handia. Sukalde eta balkoia. 3 logela. Bainugela. Bistak. 359.000€.

**INTXAURRONDO-MARRUTXIPI.** 75 m2. Egongela. Sukaldea. Bainugela eta 3 logela. Terraza handia. Bistak. 360.600€.

**BIDEBIETA-GAIZTARRO.** Dena kanpoaldera, terrazetara. Egongela, 4 logela, 2 bainugela. Igogailua.

**HERRERA.** Eraikin berria, 3 logela, 2 bainugela. Altu eta argitsua. Bistak. Igogailua. Aparkaleku komunitarioa. 435.500 €.

**PASAI SAN PEDRO-TORRE-ATZE.** Etxebizitza berriak, garajearkin. Kaiaren parean.

**HERNANI.** Apartamentu berria. 40 m2. Egongela, logela 1, bainugela eta sukaldea. 192.325 €.

**RIAS BAIXAS.** San Vicente do Grove. Harrizko etxe berritua, lur sailekin. Hondartzaz inguraturik. Garajea bi autorentzat.

**HENDAIA-URRUÑA.** Inguru bikaina. 300 m2-ko txaleta. 4,7 hektareako terrenoa.

---

**ANZABAL** etxe agentzia
Santiago, 15 - behea
ELIZONDO (BAZTAN)
Tel.: 948- 58 08 04
Faxa: 948 581459
anzabal@anzabal.com

**BAZTAN-ORONOZ MUGAIRI:** Etxe bifamiliakoak lur eremuarekin.
**BAZTAN-ANIZ:** 2.000 m2-ko lur eraikigarria.
**BAZTAN-ELIZONDO:** Bigarren eskuko etxebizitza eta apartamentuak.
**BAZTAN-ELIZONDO:** Etxe familiabakarrak bere jardinarekin.
**BAZTAN-ELBETE:** Eraikin berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai.
**BAZTAN-ARIZKUN:** Etxe familiabakarrak bere lur eremuarekin.
**BAZTAN-ARRAIOZ:** Eraiki berriko etxebizitza eta apartamentuak salgai
**BAZTAN:** Bordak berritzeko salgai.
**ZUGARRAMURDI:** Baserria 50.000 m2-ko lurrarekin.
**IGANTZI:** Eraikin berriko etxea eta lurra.
**SUNBILLA:** Baserri berritua 7.000 m2-rekin.
**ZUBIETA:** Hiru solairuko baserria, berritzeko.
**DONIBANE GARAZI:** 3 kilometrora baserria, bi borda eta lurra.
**BAIGORRI:** Etxea bere lurrarekin.

---

**itesa**
SERVICIOS INMOBILIARIOS
ERRENTERIA - LEZO
Altzate Berri
ETXEBIZITZA ONENAK IBAI ONDOAN
KALITATE BEREZIA
INBERTSIO GARRANTSITSUA ABALAKIN
ERRAZTASUN HANDIENAK
Hasiera 2008ko udan



Informazioa eta salmenta:
SAN MARTZIAL, 8 - 1.a • DONOSTIA
943 423 600
www.itesa.es

---

**Kortajarena**
etxe agentzia

*Zure konfidantzazko etxe agentzia*

- Errenterian Biteri kalean eraiki berria
- Pasaian Gure Zumardian eraiki berria

Bizkaia pasealekua 24
(baleazaleak izk.)
Tel.: 943-47 17 67

API:274

www.kortajarena.com

---

inmobiliaria **Etxebila**
Felipe IV etorbidea 4. DONOSTIA
Tel.: 943 44 61 66

**ALOKAIRUAN**

**PASAI DONIBANE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. 680 €.

**SALMENTAN**

**ANTIGUA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 46.950.000.

**HIRIGUNEA.** Autonomia kalea. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoiak. Igogailua. 49.000.000.

**AMARA.** Felipe IV.aren etorbidea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Eguzkitsua. 36.200.000.

**AMARA.** 70m2. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Ikuspegi ederrak. 53.990.000.

**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza (60m2). Berritua. 45.400.000.

**AMARA.** 70m2. Igogailua. Terraza. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. 46.500.000.

**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Balkoia. Ordaintzeko erraztasunak. 56.800.000.

**AMARA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Dena kanpora begira. Trastelekua. 40.990.000.

**AMARA.** Atikoa. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. 41.500.000.

**ALDE ZAHARRA.** Abuztuaren 31ko kalea. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Trastelekua. 45.990.000.

**GROS.** Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Sartzeko moduan. Igogailua. 41.500.000.

**GROS.** Txofre. Goi solairuko apartamentua. Balkoia. Trastelekua. 35.900.000.

**GROS.** Kolon pasealekua. Logela, egongela, sukaldea, bainugela. Igogailua. Sartzeko moduan. 35.000.000.

**BUENAVISTA.** 65m2. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Polita. 34.900.000.

**LARRATXO.** 80m2. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela. Terraza. 38.500.000.

**EGIA.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Berritua. Lorategia. 35.990.000.

**MARTUTENE.** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Kanpora begira. Sartzeko moduan. 29.500.000.

**ALTZA.** Loretegia. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Txokoa. 36.400.000.

**LOIOLA.** Atikoa, terrazarekin. Eguzkitsua. Berritua. 28.500.000.

**ASTIGARRAGA.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Terraza. Polita. 39.500.000.

**PASAI DONIBANE.** Itsasora begira. Terraza. 3 logela, egongela handia, sukaldea, bainugela. 44.950.000.

**LEZO.** Baserri etxea. 4 logela. Lursailak. Txokoa. 46.800.000.

**LASARTE.** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela. Balkoia. Igogailua. 37.500.000.

---

**Saltide**
Higiezinen zerbitzua
Bizkaia kalea, 6 - 20800 ZARAUTZ
Tel.: 943-01 07 00 / 665-718 596

**ZARAUTZ.** Ekialdea. 4 logela eta trastelekua. Gela guztiak kanpora begira. Eguzkitsua. 52.000.000 pezeta.

**ZARAUTZ.** Erdialdean. Hondartzatik hurbil. 3 logela, bainugela eta komuna. Egoera onean. 54.000.000 pezeta.

**ZARAUTZ.** Zelai Ondon. 3 logela eta trastelekua. Igogailua du. Eguzkitsua. 53.000.000 pezeta.

**ZARAUTZ.** Garaje irekia salgai udaletxeko enparantzan.

**ZUMAIA.** Jadarre auzoan. 2 logela. Oso egoera onean. Sartzeko moduan. Ordaintzeko erraztasunak. 36.600.000 pezeta.

**BERGARA.** San Lorentzo auzoan. Eraikin berria. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 220.000 €-tik aurrera.

---

**EGUZKI**
G. INMOBILIARIA
Tel.: 943-86 22 65 - ZUMAIA

**ZUMAIA**
3 logela, 2 bainugela eta igogailua.
52.000.000 pezeta.

**ZUMAIA**
3 logela eta bainugela. Berritua.
43.000.000 pezeta.

**ZUMAIA**
2 logela. Oso polita. 38.000.000 pezeta.


GABON ZORIONTSUAK ETA
URTE BERRI ON
MONDRAGON
UNIBERTSITATEA
ENPRESA
ZIENTZIEN
FAKULTATEA
FACULTAD DE
CIENCIAS
EMPRESARIALES

# Debagoieneko GREMIOAK



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

**ARETXARGI**
Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

**BELLIDO ELEKTRIZITATEA**
Oñati
• Erreformak orokorrean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoen konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

**RELE**
Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## IGELTSEROAK

**DE LA TORRE IGELTSEROTZA**
Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

## ITURGINTZA

**ARETXABALETA ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behea
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**J.J. IRURE ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Ura
• Gasa
• Kalefakzioa
Mitarte 15
T: 943 793 187
F: 943 793 187

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## KONPONKETAK

**MULTIARREGLOS**
Arrasate
• Konponketak: Altzariak, zoruak, zokaloak, entxufeak...
• Instalazioak; Geletan antenak, telefoneonkableak...
• Jartzeak: Koadroak, lanparak gordiank...
• Ahokadurak: Telebistak, bideoak, musika ekipoak...
Tel: 699 60 97 08

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIC**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**LEIHATEK**
Arrasate
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
Okendo 1 - behea
T: 943 79 69 91
ventanasleihatek@hotmail.com

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**DAVILA MARGOAK**
Aretxabaleta
• Margoak orokorrean
San Migel 7, 3d.
Tel.: 646 22 41 09

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Debagoieneko Kirol sarien ekitaldia, osorik GOITBn

Bihar banatuko dira Debagoieneko Kirol sariak, eta ekitaldia osorik eskainiko dute

**GOIENKARIA** > BERGARA
Maider Unda olinpiar borrokalaria, Zuhaitz Ezpeleta eta Marixol Ramos korrikalariak eta Alberto Iñurrategi izango dira, beste askoren artean, biharko Debagoieneko Kirol sarien ekitaldian. Xabi Urtzelaik aurkeztuko duen ekitaldia Aretxabaletako Arkupe kultura etxean izango da eta oso-osorik ikusi ahal izango duzue astelehenean *Harmailatik* kirol saioan.

Ekitaldiaren helburua da ibarreko kirolariak eta kirol jarduerak aurrera ateratzen lan egiten duten lagun eta elkarteak (prestatzaileak, zuzendariak, babesleak...) saritzea. Guztira 14 sari banatuko dituzte, horien artean 2008ko emakumezko eta gizonezko kirolari onenen sariak.

**GOITB, 'Harmailatik'**
> Astelehena, 22:15
> Martitzena, 18:05

2008ko Debagoieneko Kirol sariak izango dira bihar Aretxabaletan. GOIENKARIA

## telebegi

**Aitor Arregi**
> aitor_arregi@huhezi.edu

### Ttio... jarri popoió

Nere iloba txikia ikusteko desiratzen egoten naiz. 2 urteko poztasun-bolatxo bat da. Bere keinu edo hitz berri batek sendi osoa adurra dariola uzten du.

Ni berarentzat osaba teknologikoa naiz. Berak *youtube*-n ikustea nahi duen hori ahalbidetzen duen tipoa. Ni ikusi ahalaz bat "ttio... jarri Popoió" (*Pocoyó*) esaten dit. Esan eta egin. Denbora batera nekatu egiten da eta Jeili (*Heidi*) ikusi nahi duela dio eta gero Xinxon (*Simpsons*).

Hauxe da iritsi berri den telebista. Norberak ikusi dezala nahi duena, komeni zaion momentuan. Teknologia eta komunikazioaren aro ezin erakargarriagoa bizi dugu. Baina pena ematen dit indibidualtasunaren gehitzeak talde sentimendua zapaltzea.

Telebista aurrean jarri eta une horretan, milaka lagun zuk dauzkazun sentsazio berdinak edukitzen ari direla jakiteak badu xarma. *Enfin*, ze bigun eta nostalgiko jartzen naizen Gabonetan.

## Eva Argiñano eta beste

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Gabonetan gaudela kontuan hartuta, irratiko lankideek opari bereziak eskaini gura dizkiete entzuleei. Batetik, Eva Argiñanoren *Hoy cocinas tú* liburua zozkatuko dute. Baita ere Doris Lessing-en *Belarra kantari* liburuak eta Joxe Mari Anduagaren *Gutunak dantzan* CDak osatutako paketea. Eta beste pakete bat ere bai, lau CDrekin: *Katamalo, Abykem, Ostolaza eta Pujana* eta *Hotsak dantzan*.

**Arrasate Irratia, "Igo Autobusera'**
> Martitzena (abenduaren 23a), 11:30etik 12:00ak bitartean



GOIENKARIA

## Saio bereziak eskainiko ditu datorren astean

Goiena Telebistako *Goiena magazinea*-k saio bereziak prestatu ditu hilaren 22rako eta 24rako. Abenduaren 22a Santamas eguna da Arrasaten, eta egun horretako barazki, fruta eta animalien azoka, artisauen azoka eta herri kirolak ekarriko ditu GOITBra. Gabon egunean, berriz, gonbidatu berezi bat izango da *magazinea*-n: Olentzero, hain justu; elkarrizketa egingo diote, eta beste hainbat kontu ere landuko dituzte.

**GOITB, 'Magazinea'**
> Egunero, 19:45

## arrasate irratia

**FM 107.7**

### Zapatua
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

### Domeka
**10:00** Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## astea GOITBn

### Egubakoitza, 19
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Gure saltsan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Danbaka:
Flipin folk
Rock Privado.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Zapatua, 20
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Danbaka.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

### Domeka, 21
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Gure saltsan.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Danbaka.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

### Astelehena, 22
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Erlo klip.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Abesbatzak.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Danbaka:
Flipin folk
Rock Privado.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Golb tb.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 23
**13:15** Marrazki bizidunak: Foofur.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa:
Bakailu laminak.
**14:45** Berriak.
**15:10** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Erloklip.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka:
The Wet Band
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean:
Jaime Otamendi
**23:00** Ikuskizuna.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 24
**13:15** Marrazki bizidunak: Muka Muka.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Gure saltsan
**14:45** Goiena Magazinea.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Goiena Magazinea.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Goiena Magazinea.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**22:45** Filma: Olentzero eta Subilaren lapurketa.
**23:45** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**00:45** Goiena Magazinea
**01:45** Danbaka 08
**02:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 25
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Eltze beroa.
**13:00** Goiena Magazinea.
**14:00** Trikitraka trikitron.
**15:00** Olentzero eta Subilaren lapurketa.
**16:00** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Debagoieneko Kirol Sariak 08.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Danbaka:
Turboshit
**21:15** Ikusten.
**21:45** Ilunpean.
**22:30** Solaskide.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Danbaka: The Wet Band eta Turboshit.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Nahian
Altzoa
Funtsa
* Irudiko fruitua
Afrikako estatua
Sobera
Ehun zati hamar
Inguru
Berriketa
Galga
Biziki
Pl., gurdi mota
Potasioa
Marka
Pinu mota
Eraikuntza makinak
Bokala
Interjekzioa
Jupiterren satelitea
Bokala
Jainko egiptoarra
Multinazional ezaguna
Bizkaieraz, gabe, barik
$H_2O$
Röntgen
Ez emea

GOIENKARIA

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | | 3 | | 9 | | | |
| | | 3 | | | 2 | | | 9 |
| | 9 | | 5 | | 7 | | | 6 |
| | 4 | 7 | | | | | 8 | |
| | | | | | | | | |
| | 1 | | | | | 4 | 3 | |
| 2 | | | 4 | | 8 | | 5 | |
| 4 | | | 2 | | | 6 | | |
| | | | 1 | | 6 | | 2 | |

## hieroglifoa

Nola iritsi ziren korrikalariak?



## hizki salda

Euskal Herriko 5 abeslariren izenak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | O | T | S | I | R | A | V | E |
| N | R | A | I | C | H | K | M | L |
| E | E | G | A | A | A | O | R | K |
| D | T | A | A | T | N | O | I | A |
| L | I | D | Y | O | E | E | N | M |
| A | N | K | L | A | B | E | O | O |
| H | O | G | E | N | I | A | R | H |
| U | S | M | T | O | T | O | L | A |
| D | D | I | E | U | T | F | D | M |

## soluzioak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | O | T | S | I | R | A | V | E |
| N | R | A | I | C | H | K | M | L |
| E | E | G | A | A | A | O | R | K |
| D | T | A | A | T | N | O | I | A |
| L | I | D | Y | O | E | E | N | M |
| A | N | K | L | A | B | E | O | O |
| H | O | G | E | N | I | A | R | H |
| U | S | M | T | O | T | O | L | A |
| D | D | I | E | U | T | F | D | M |

**Jeroglifikoa:** Bigarrena gaizki.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 6 | 4 | 3 | 1 | 9 | 8 | 7 | 2 |
| 7 | 8 | 3 | 6 | 4 | 2 | 5 | 1 | 9 |
| 1 | 9 | 2 | 5 | 8 | 7 | 3 | 4 | 6 |
| 3 | 4 | 7 | 9 | 6 | 1 | 2 | 8 | 5 |
| 8 | 2 | 5 | 7 | 3 | 4 | 9 | 6 | 1 |
| 6 | 1 | 9 | 8 | 2 | 5 | 4 | 3 | 7 |
| 2 | 7 | 6 | 4 | 9 | 8 | 1 | 5 | 3 |
| 4 | 5 | 1 | 2 | 7 | 3 | 6 | 9 | 8 |
| 9 | 3 | 8 | 1 | 5 | 6 | 7 | 2 | 4 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | N | ■ | M | ■ | M |
| | | | M | A | G | A | L | A |
| | | | ■ | H | A | M | A | R |
| ■ | K | ■ | B | I | Z | I | R | O |
| B | A | L | A | Z | T | A | ■ | K |
| ■ | L | E | R | ■ | A | ■ | I | O |
| G | A | R | A | B | I | A | K | ■ |
| ■ | K | A | N | O | N | ■ | U | R |
| B | A | K | O | ■ | A | R | R | A |



## bono fotoa



**Argazkian ageri den mendiak Kurtzebarri du izena. Zein urtetan jaso zuten tontorreko gurutzea?**

**Argazkia eta galdera** > Jose Felix Diaz de Tuesta

Garmendia Ardoak

Larchago

Garmendia Ardoek emandako

**ardo botila packa***

zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ......................................................

......................................................

IZEN-DEITURAK ......................................................

......................................................

TELEFONOA......................................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

Bergarakoko **Ana Txurruka**endako izan da Super Amarako erosketa-txartela. Zorionak!
**Galderaren erantzun zuzena: Antzuola**

URTEURRENA

## Antonio Elorza Ruiz de Azua



Lehen urteurreneko meza
domekan, abenduaren 21ean,
12:00etan
Aramaioko San Martin parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko emazte, seme-alaba eta suinaren izenean.

URTEURRENA

## Lorea Astondoa Altuna



Hamargarren urteurreneko meza eguenean,
abenduaren 25ean, 13:00etan Aramaioko Barajuen
auzoko Andre Mari parrokian.

—

*Gu beti zurekin,*
*Zu betirako gurekin.*
*Maite zaitugu.*
*Zure etxekoak*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Angel Maria Zubia Telleria



Lehen urteurreneko meza zapatuan,
abenduaren 20an,
19:00etan
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Felisa Gonzalez Garro



Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 21ean,
11:30ean
Aretxabaletako Andre Mariaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Maria Etxezarreta Alberdi

Ramon Arruabarrenaren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 21ean,
12:30ean
Bergarako San Pedro elizan

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Francisca Suinaga Larrañaga



Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 21ean,
11:00etan
Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean

URTEURRENA

## Visitación Sogorb Lopez de Gauna



*Gure ondotik joan zara,*
*baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Zure familia.
Arrasaten, 2008ko abenduaren 19an.

URTEURRENA

## Juan Murillo Cruz



Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 21ean, 12:30ean Arrasateko
San Juan Bataiatzailea parrokian.

—

*Betiko gurekin.*

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Rosario Iñurritegi Ortiz de Zarate

Modesto Larrañagaren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 21ean,
12:30ean
Bergarako San Pedro parrokian

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Genaro Manso Jauregi



Lehen urteurreneko meza domekan,
abenduaren 28an,
11:00etan
Antzuolako Errukizko Amaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Javier Moyua Elorza

'Tokillo'

Oñatin hil zen 2008ko abenduaren 13an, 61 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2008ko abenduaren 19an.

ESKER ONA

## Mercedes Posada Posada

Roke Unzurrunzagaren alarguna

## Maite Unzurrunzaga Posada



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko abenduaren 19an.

ESKER ONA

## Nicolasa Aldazabal Salegui

Benito Agirreren alarguna

Oñatin hil zen 2008ko abenduaren 15ean, 89 urte zituela.



Hileta-elizkizunera etorritakoei eta
samin-agurrak bidali dizkiguzuenei,
eskerrik asko sendikoen izenean.

—

Ondra meza zapatuan, abenduaren 20an,
19:30ean Oñatiko Agustinotan izango da.

Oñatin, 2008ko abenduaren 19an.

ESKER ONA

## Joaquin Ceciaga Arenaza

2008ko abenduaren 15ean hil zen, 77 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2008ko abenduaren 19an.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Abenduak 19-25

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Musika



OÑATI
**> Ganbarako talde guztien kontzertuan, Ganbara Gazte aurkeztuko dute etzi**
Ganbara Kantu Eskolako talde guztiek kontzertua egingo dute etzi, domeka; talde berria, Ganbara Gazte, ere aurkeztuko dute. Santa Ana antzokian izango da, 19:00etan. *Munduari begiratzeko* diskoa astelehenean salgai ipiniko da.

## Azoka



BERGARA
**> Gabonetako II. Artisau Azoka irekiko dute gaur, egubakoitza**
Gabonetako artisau azoka irekiko dute gaur, Munibe plazan, 18:00etan, eta hilaren 24a arte egongo da zabalik. 12 postu ipiniko dituzte; 11 Bergarako artisauenak izango dira, eta egunero gonbidatu desberdin bat izango dute.

## Musika




BERGARA
**> Killer Barbies taldearen kontzertua izango da bihar, zapatua**
Silvia Superstar-en Killer Barbies taldeak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. Las Culebras taldeak ere joko du. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan 12 eurotan; egunean bertan, 15 eurotan.

## Ospakizunak

ESKORIATZA
**> Txistorra-jana izango dute erretiratuek gaur**
Txistorra jateko aukera izango dute gaur, egubakoitza, Olazar etxeko erretiratuek.
Gaur, egubakoitza, Olazar erretiratuen etxean, 18:00etan.

OÑATI
**> Gabon kantu kalejira eta salda-jana, ikastolakoek**
Gabon kantu kalejira egingo dute Txantxiku ikastolakoek Gabon egunean. 12:00etan irtengo dira ikastolatik. 13:30 inguruan, Foruen plazan, salda-jana izango da gura duten herritar guztiondako.
Abenduaren 24an, Gabon eguna, 12:00etan; salda-jana, 13:30ean plazan.

ARRASATE
**> Txistorra-jana egingo dute erretiratuen elkartekoek**
Txistorra-jan eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza, Abaroa elkarteko erretiratuek.
Gaur, abenduak 19, Abaroan, 18:00etan.

BERGARA
**> Gaztaina erreak jateko aukera, Jardunen eskutik**
Gaztaina erre-jana antolatu du Jardun euskara elkarteak. Danbolinean erreko dituzte gaztainok Herriko Plazan.
Gaur, egubakoitza, plazan, 18:30ean.

## Antzerkia

OÑATI
**> Pake Lekuko antzerki taldearen lan berria gaur ikusgai**
Erretiratu elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak *Zenbat urte dako amamak?* antzezlana egingo du, gaztelaniaz.
Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 20:00etan.

OÑATI
**> Hipo eta Tomax pailazoen emanaldia izango da**
Hipo eta Tomax pailazoek emanaldia egingo dute herriko ume guztiendako, Errekalde Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta. Sarrera doan da.
Bihar, zapatua, institutuan, 17:00etan.

## Musika

OÑATI
**> Sabina Leone bakarlaria eta Zura taldea, kontzertuan**
Sabina Leone Suitzan bizi den bakarlariak *Mancare* diskoa aurkeztuko du. Gitarrak, celloak, sokazko baxuak, pianoak eta berak jotako perkusioak babestuko dute. Sentimenduez abesten du.
Zura taldeak *Kiribil* diskoa aurkeztuko du, euskal bossa estilokoa. Eñaut Elorrieta (Ken Zazpi), Ines Osinaga (Gose), Anari eta Sorkun izan dira kolaboratzaileetako batzuk.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 22:30ean.

ELGETA
**> Danbaka musika lehiaketako azkeneko kontzertua**
Danbaka lehiaketako azken kontzertua egingo dute Barua Bandak (Eskoriatza), Tuesday Evenings-ek (Durango), The Motherfuckersek (Arrasate) eta Revelphonek (Soraluze).
Gaur, egubakoitza, Espaloian, 22:30ean.

OÑATI
**> Gabonetako kontzertua egingo du Oñati Abesbatzak**
Oñati Abesbatzak Gabonetako emanaldi berezia egingo du. Loli Ordokik zuzenduko du taldea.
Bihar, zapatua, agustindarren elizan, 20:15ean (meza ondoren).

OÑATI
**> Matanza Civil taldearen punk kontzertua izango da**
Salamancako Matanza Civil punk-hardcore azkar estiloko taldeak emanaldia egingo du.
Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:30ean.

OÑATI
**> Amaia Zubiriak 'Nabil' diskoa aurkeztuko du kontzertuan**
Amaia Zubiria bakarlariak *Nabil* lana aurkeztuko du gaur, egubakoitza. Sarrerak salgai daude kultura etxean, 8 eurotan; leihatilan, 10 eurotan.
Gaur, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

BERGARA
**> 'Nahasterrekan' aurkeztuko du Mahaster Riverrek**
Mahaster River taldeak *Nahasterrekan* delako diskoa aurkeztuko du. Prentsaurrekoa eta kontzertua egingo dituzte.
Bihar, Etxagi tabernan, 18:00etan.

PROPOSAMENA

ARRASATE
### > Baserritar giroaz gozatzeko aukera Santamasetan

Santamas eguna ospatuko dute astelehenean, hilak 22. Herriko hainbat lekutan izango dira azokak eta ekitaldiak; besteak beste, ganadu feria, Laubide plazan; hegaztiena, Biteri etorbidean; fruta eta barazkiena, Seber Altuben; artisauena, Jokin Zaitegin; Aramaioko sagardo-dastatzea, Herriko Plazan; herri kirolak, Zaldibarren; eta dantza emanaldiak, Herriko Plazan.
Hilaren 22an, astelehena; azokak 10:00etan hasiko dira.



ARRASATE
**> Gospel emanaldia egingo du Tye Tribbett & G.A. taldeak**
AEBetako New Jersey estatuko Tye Tribbett gospel musikariak eta Greater Anointing (G.A.) taldeak kontzertua egingo dute.
Sarrerak salgai daude 20 eurotan.
Abenduaren 23an, martitzena, Amaia antzokian, 20:00etan.

ARRASATE
**> Bad.co project taldeak kontzertua egingo du gaur**
Bad.co project (from the ashes of Oxymoron) taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza. The Motherfuckers eta Bad Bloods taldeek ere joko dute. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan, 10 eurotan; leihatilan, 12 eurotan.
Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean.

ARRASATE, ESKORIATZA
**> Benito Lertxundik kontzertuak egingo ditu bi herritan**
Benito Lertxundik *Itsas ulu zolia* delako disko berria aurkeztuko du bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian, baina sarrerak bukatu dira. Urtarrilaren 30ean, ordea, Eskoriatzan joko du, eta sarrerak urtarrilean jarriko dituzte salgai.
Bihar, Amaia antzokian, 20:00etan.

## Erakusketak

BERGARA
**> Azurren erakusketa dago Artekale pizzerian**
Azur bergarararren hainbat lan daude ikusgai Artekale pizzerian; Euskal Txokoak postal bildumako jatorrizko argazkiak dira. Orain arte hantxe zituen argazkiek ere ikusgai jarraitzen dute.
Artekale pizzerian.

OÑATI
**> 'Mendia eta natura' lehiaketako argazkiak, erakusketan**
Aloña Mendi elkarteak antolatzen duen *Mendia eta natura* lehiaketako aurtengo edizioan jasotako eta sarituta-ko argazkien erakusketa izango da gaur, egubakoitza, hasi eta urtarrilaren 3a arte. Itxita egongo da abenduaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean.
Kultura etxean, egunero, 18:30-20:30.

BERGARA
**> Mikel Araiztegi bergararraren margo erakusketa**
Mikel Araiztegi Uribesalgok (Bergara, 1955) erakusketa du Nahikari tabernan. 19 lan dira, eta dira paper gaineko akrilikoak, estilo figuratibo-espresionista baten.
Abendu osoan.

BERGARA
**> Epiren margolan batzuk, ikusgai Zer Nahi tabernan**

Epi margolari bergararraren zazpi bat margolan daude erakusketan Zer Nahi tabernan. Hiri-paisaiak, marinak, natura hilak, loreak... dira gaiak. Lan batzuk uda eta udazkenean egindakoak dira, eta beste batzuk, lehenagokoak.

Zer Nahi tabernan.

## Lehiaketak

ARRASATE
**> Aratusteetako kartela aukeratzeko lehiaketa deialdia**

Arrasateko Udalak Aratusteetako kartela aukeratzeko lehiaketaren deialdia egin du. Edozeinek parte har dezake, 50 x 70 zentimetroko lanekin. Derrigorrez agertu beharko da *2009 Inauteriak Arrasate* delako testua. Era berean, irudiak Aratusteen ezaugarriren bat adierazi beharko du.

Lanok urtarrilaren 30a baino lehen entregatu behar dira BAZen. Irabazleak 400 euro jasoko ditu.

Oinarriak ikusgai daude udaletxeko iragartokian eta *www.arrasate-mondragon.org* webgunean.

## Bestelakoak

OÑATI
**> Txinako Sanxia Troupe taldeak akrobaziak egingo ditu**

Txinatik etorritako Sanxia Troupe akrobata taldeak emanaldia egingo du.

Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

BERGARA
**> Napar Feria egingo dute bihar, zapatua, San Antonion**

Nafarroako produktuak bultzatzeko, Napar Feria egingo dute Napar Bideak eta Nafarroako Artisau Elikagaien Elkarteak. Azoka 10:30ean irekiko dute. Goizean zehar, txistulariak, meza, Angie DJa, jaiotzen eta postalen lehiaketetako sari banaketak, Alai taldearen emanaldia, poniak, zezentxoak eta jolasak, eta bazkaria izango dira.

Bihar, zapatua, San Antonioko plazatxoan, 10:30-15:00.

ARETXABALETA
**> Bidezko merkataritzako azoka izango da bihar, zapatua**

Bidezko merkataritzako produktuak saltzeko denda ipiniko dute Hiruatx Gobernuz Kanpoko Erakundekoek bihar, zapatua. Hainbat herrialdeko produktuak salduko dituzte, eta bidezko merkataritza zer den azalduko dute.

Udaletxe zaharrean, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

ARETXABALETA
**> 'Shesheren herrian' delako diapositiba emanaldia**

*Shesheren herrian* izenburua duen diapositiba emanaldia egingo du Felipe Uriartek.

Hilaren 23an, martitzena, kultura etxean, 19:30ean.

# Zinema



## My blueberry nights ***

**Zuzendaria:** Wong Kar-Wai.
**Aktoreak:** Norah Jones, Jude Law, David Strathairn, Rachel Weisz.
Hong Kong-Txina-Frantzia, 2008.
111 min. 13 urtetik gorakoendako.

*My blueberry nights* 2007ko Canneseko Zinemaldian estreinatu bazen ere, urte eta erdi baino gehiago pasa eta gero heldu da gure pantailetara. Wong Kar-Waik ingelesez filmatu du eta kontatzen dizkigun istorioak AEBetan kokatzen dira; New York, Memphis eta Las Vegasen, hain zuzen ere. Zuzendariak mantendu egiten du bere estiloa: musikak garrantzi handia izaten jarraitzen du, soul eta bluesera jotzen du, eta *Deseando amar*-en musika ere agertzen da, Ameriketako instrumentuekin jota; argazkiak, koloreak eta kamera geldoaren erabilerak bere zigilua dute, eta ez zaigu kostatzen bere erritmoan sartzea. Osagai horiekin eta erakusten dizkigun pertsonaia eta inguruneekin –amodioak kolpatutako pertsonaiak, taberna bateko barra topaketa gune bezala, horietan sortzen den atmosfera berezia– ematen du dena prest dagoela Kar-Wairen beste film zoragarri bat ikusteko, baina *My blueberry nights*-ek ez du *Deseando amar*-en malenkonia eta lirismoa, ezta *2046* filmak zuen alde misteriotsua ere.

Norah Jones-ek egiten duen pertsonaiak desamodio bat izan ondoren New Yorketik alde egitea erabakitzen du. Horrela, istorioak *road-movie* baten egitura hartzen du; hau da, pertsonaiak beste pertsonaia batzuk ezagutuko ditu eta beste istorio txikietako partaide izango da. Normalean, bidaiak pertsonaiari ikasteko balio dio, eta, ondorioz, bere ikuspuntuak aldatu egiten dira. Izango dituen istorioak ez daude gaizki, baina ez dute hasierako istorioa aberasten. Ez da batuketa dramatikorik gertatzen indar handiko osotasun bat lortzeko. Estetika eta mundu ezagun bat ikusten dugu, momentu askotan gustura sentitzen gara, baina ez dugu Wong Kar-Wairen beste filmek zuten ahalmen magikoa eta indar liluragarria sentitzen.

**Antonio Zabala**

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**Che, el argentino**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.

**Papá por sorpresa**
Domeka: 17:00.

### BERGARA

**ZABALOTEGI**

**En el valle de Elah**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Kung Fu panda**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GAZTETXEA**

**Donnie Darko**
Domeka: 18:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Transsiberian**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Space chimps**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**UNZAGA**

**Di que sí**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.

### GASTEIZ

**GURIDI**

**Crepúsculo**
17:30, 20:00, 22:30.

**Ultimátum a la Tierra**
Egubakoitza: 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:15, 22:30.

**El intercambio**
17:00, 19:45, 22:30.

**El valiente Despereaux**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Win X club**
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30.

**Di que sí**
Egubakoitza: 17:30.
Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.

**Como en casa, en ningún sitio**
Egubakoitza: 18:00, 20:15, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**007: quantum of solace**
22:30.

**Madagascar 2**
Egubakoitza: 18:00.
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:20.

**FLORIDA-GURIDI**

**Mongol**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:20, 22:40.

**My blueberry nights**
17:30, 20:00, 22:30.

**Gomorra**
17:00, 19:45, 22:30.

**Como los demás**
18:30, 20:30, 22:30.

**Estómago**
18:00, 20:15, 22:30.

**Bolt**
Egubakoitza: 18:00, 20:15.
Zapatua eta domeka: 16:45, 18:30.

**La ola**
17:30, 20:00, 20:15.

**Olentzero eta oparien ordua**
17:00.

**El gran día para ellas**
18:00, 20:15, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**El intercambio**
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

**High School Musical 3**
12:15.

**007: quantum of solace**
21:30, 23:45.

**Appaloosa**
20:05, 22:15, 00:25.

**Madagascar 2**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Outlander**
20:25, 22:35, 00:45.

**Bolt**
12:15, 15:30, 17:30, 19:30.

**Crepúsculo**
12:15, 17:00, 18:00, 19:15, 20:15, 21:30, 22:30, 23:45, 00:45.

**Di que sí**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**Red de mentiras**
21:45, 00:10.

**El valiente Desperaux**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Como en casa, en ningún sitio**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Protegidos por su enemigo**
16:25, 18:30, 20:35, 22:40, 00:45.

**La ola**
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

**Ultimátum a la Tierra**
12:15, 15:40, 17:50, 20:00, 22:10, 00:20.

**Santa Clausen kondaira**
12:15.

**La leyenda de Santa Claus**
17:00.

**Olentzero eta oparien ordua**
12:15, 16:35.

**El reino de los chiflados**
12:15, 16:25, 18:25.

**Perez sagutxoa 2**
12:15.

**Pérez, el ratoncito de tus sueños 2**
16:15, 18:15.

**My blueberry nights**
12:15, 15:45, 17:45, 19:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

**ÁBACO BOULEVARD**

**Crepúsculo**
17:00, 19:30, 22:00, 22:30, 00:45.

**Pérez, el ratoncito de tus sueños**
16:20, 18:15.

**Ultimátum a la Tierra**
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 01:00.

**Bolt**
16:15, 18:20, 20:30, 22:40.

**Appaloosa**
20:00, 22:25.

**007: quantum of solace**
20:10, 22:30, 00:45.

**Como en casa, en ningún sitio**
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

**Winx, el secreto del reino perdido**
16:00, 18:05, 20:10.

**El reino de los chiflados**
16:05, 18:15, 20:20.

**Outlander**
22:15, 00:45.

**Madagascar 2**
16:30, 18:30, 20:30, 22:25.

**El valiente Desperaux**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Di que sí**
16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.

**El intercambio**
16:00, 19:00, 22:00, 00:45.

**La leyenda de Santa Claus**
16:15, 18:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.



**En el valle de Elah** ***
AEB, 2007. Zuzendaria: Paul Haggis. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Charlize Theron, Frances Fisher, Susan Sarandon. 107 min. 18 urtetik gorakoendako.
Hank Deerfield AEBetako gerra beteranoak Mike semearen desagerpena ikertu behar du. Irakera bidali zuten Mike, eta batbatean ezer esan gabe desagertu egin zen. Emazteak eta Emily Sanders ikertzaileak lagunduko diote.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Il divo** ****
Italia, 2008. Zuzendaria: Paolo Sorrentino. Aktoreak: Toni Servillo, Anna Bonaiuto.
Italiako presidente polemiko izan zen Giulio Andreottiren gaineko filma da, Erroman, denak lo zeuden bitartean, esna egoten zen gizona.

**La ola** ***
Alemania, 2008. Zuzendaria: Dennis Gansel.
Irakasle batek esperimentu bat egiten du: bere ikasleengan diziplina zorrotzeko erregimena ezarri, nazismoa zelan jaio zen azaltzeko.

**Ultimátum a la Tierra** ***
AEB, 2008. Zuzendaria: Scott Derrickson. Aktoreak: Keanu Reeves, Jennifer Connelly.
Klaatu estralurtarra Lurrera etorri da, mundu mailako krisi batez ohartaraztera. Helen Benson zientzialari ospetsua bakarrik konturatzen da horretaz.

**Appaloosa** **
AEB, 2008. Zuzendaria: Ed Harris. Aktoreak: Ed Harris, Viggo Mortensen.
New Mexico estatuan girotuta dago, 1882. urtean. Virgil Cole polizia federala eta Everett Hitch haren laguntzailea dira protagonistak.

**My blueberry nights** ***
Hong Kong-Txina-Frantzia, 2008. Zuzendaria: Wong Kar-Wai. Aktoreak: Norah Jones, Jude Law.
Elizabeth gaztea Ameriketara doa benetako maitasunaren bila. Bere bidean, hainbat pertsonaia misteriotsu aurkituko ditu.

**Madagascar 2** ***
AEB, 2008. Zuzendariak: Eric Darnell eta Tom McGrath. Madagascar filmeko lagunak herrialde horretako hondartzetan abandonatuta daude.

**Gomorra** ***
Italia, 2008. Zuzendaria: Matteo Garrone. Aktoreak: Toni Servillo, Gianfelice Imparato.
Napolesko mafiaren gaineko kontakizuna da, bost pertsonaiaren istorioaren bidez.

**Como los demás**
Frantzia, 2008. Zuzendaria: Vincent Garenq. Aktoreak: Lambert Wilson, Pilar López de Ayala.
Manuk aita izan nahi du, baina bikotekide Philippe ez dago horrekin ados. Manuk aurrera egingo du.

**nire aukera**



Mikel Aranburu
Banketxeko langilea
Oñati

## "Lan egitea egokitu zait"

Astean zehar nahikoa lan izaten dut eta asteburuak lasai pasatzea gustatzen zait. Zapatu eta domekero saiatzen naiz tartetxo bat hartzen kirola egiteko; paseatzera, edo mendira joateko... Neskalagunarekin eta lagunekin ere zapatuetan afaritxo bat egitea gustatzen zait, eta gero... gero gerokoak. Parranda ateratzen bada, ba aurrera, eta bestela domeka aprobetxatzera; domeketan zinemara ere maiz joaten naiz. Beste batzuetan, astean zehar lan handiarekin ibili behar badut, saiatzen naiz asteburuetan denboratxo bat hartzen astekoa antolatzeko.

**Zaren saltseroa izanik, ez dut sinisten asteburuetan kanpora joaten ez zarenik.**
Egia. Orain hasi da eski denboraldia eta ihesaldi ugari egingo ditugu hemendik eta martxora arte Pirinio aldera. Eskiatzea benetan maite dut, eta Frantziako Pirinioetara joateko joera dut, gehienbat. Hori bai, ezin urtea pasatu pare batean-edo Andorra edo Baqueira aldera joateke.

**Eta Gabonetarako zein plan?**
Bankuan ez dugu oporrik. 25a eta 31a bakarrik izango ditugu jai, eta, beraz, lana egitea egokitu zait oraingoan. Hori bai, urtarrilaren 1etik Errege egunera arte-edo eskiatzera joango gara Luz Ardidenera.

**Abenduaren 25a jai duzula esan duzu, baina Oñati Irratian egongo zara...**
Bai, Gabonetako saio berezia egingo dugu 25eko goizean. Umore onean, saio betea prestatuko dugu egun horretarako. Lanean dauden oñatiarrekin bat egingo dugu, eta baita Gabonak herrian zein kanpoan igarotzen dituztenekin ere. Gainera, opari mordoa dugu egun horretan banatzeko.

**Gabon eta Urtezahar egunak etxean pasatuko dituzu?**
Bai, bai, oñatiarrak Oñatin. Eguberri eguna etxean, familia giroan pasatuko dut, eta 31 aprobetxatuko du kaletik bueltatxo bat emateko.

EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com


# Beti-Bustikoak egutegian

**EGUTEGIA** Piragua elkarteko gazteek elkartearen egutegia egiteko posatu egin dute

**KAYAK FESTA** Bihar kayak festa egingo dute Bergarako Bideberrin; egutegiak salgai egongo dira han

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Gabon egunak gainean ditugun honetan, Bergarako Beti-Busti piragua elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen eguneTarako. 2009ko egutegia egin eta salgai jartzea horietako bat izan da. Modu dibertigarrian, kanoa eta kayakaren inguruko kirola sustatu gura izan dute elkarteko kideek; eta, era berean, elkartearentzat aurrera egiteko baliagarria izango den diru pixka bat atera gura dute.

Egutegia bihar, abenduaren 20an, egingo duten festan jarriko dute salgai, 5 eurotan.

**HOTZA ETA ELURRA**
Argazkiak joan den asteko eguaztenean atera zituzten, abenduaren 10ean. Elkarteko kideek gogoratzen dute egun "xelebrea" tokatu zitzaiela. "Ez zen batere egun ona izan argazkiak ateratzeko. 2 graduko tenperatura egiten zuen, euria eta elurra zen; eta, hala ere, umore eta giro beroa izan genuen argazkien inguruan", azaldu digute.

Argazkian agertzen diren bost mutilak Beti-busti elkarteko kideak dira. *Txutxi*, Patxi, *Pini*, Josu eta Beñat bergararrak dira; 13 eta 16 urte bitarteko gazteak.

**GUSTURA, EGINDAKO LANAREKIN**
Inork eskatu gabe, eurak animatu ziren argazkietan parte hartzera. "Elkarteak aurrera egiteko dirua lortzea zen asmoa, eta mutilak prest agertu ziren edozer egiteko", diote elkartek kideek. Gaztetxoak izanda, lotsa pixka bat izango zutela uste arren, ondo baino hobeto moldatu ziren bergararrak kameraren aurrean, Bilboko suhiltzaileen gisa.

**BIDEBERRIN FESTA**
Elkarteak bihar jarriko ditu egutegiak salgai, bost eurotan. Bideberrin egingo du Beti-busti elkarteak kayak festa; hain zuzen, eslalom zirkuitua prestatu dute. "Ezohiko ekintza izango da; iluntzean, 18:00etatik 24:00etara egingo dugu. Horretarako, 18.000 watteko argiztapena eta DJ musika izango dugu", diote.

Festa girotzeko taberna jarriko dute; gerturatutako guztiek pintxoak eta taloak dastatzeko aukera izango dute. Eta, ez aspertzeko bideo ikuskizuna jarriko dute; hain zuzen, Coloradoko kanoi handiaren jaitsiera. Saski eder bat ere zozketatuko dute eta Errioxako ardoa salgai jarriko dute. Ekintzen helburua kanoaren inguruko kirola sustatzea eta Beti-busti diruz laguntzea izango da.



**EGUTEGIAK** 5 eurotan egongo dira salgai. BETI-BUSTI

## ahobero

### "Nire alaben umeak nire bilobak izango dira; nire semearenak, ostera, izan daitezke edo ez"

**Tita Cervera** > Baronesa
Arrazoirik ez zaio falta Thyssen *baronesari*. Baina hori horrela esatea, jendaurrean, bere errainarekiko konfiantza falta izugarria da. Aitatasun froga egiteko eskatu dio Cerverak Borja semeari; eta hark onartu egin du. Emaztearengan kofiantzarik ez duen seinale izango da.

## iturri onetik

### 'Giltzagune' programa aitzindaria jarriko dute abian urtarrilean Oñatiko kaleetan

Hori baieztatu du Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak. Datorren urtarrilean egingo dute aurkezpena eta orduan jarriko dute abian. *Giltzagune* proiektuak larrialdietako zerbitzuak hobetu gura ditu. Helburua da oinezkoendako diren kaleetan autoz sartu ahal izateko giltza jartzea. Suhiltzaile eta larrialdi zerbitzuek izango dute, kale hasieran egoten diren piboteak modu samurrean jaisteko.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### 65 ordu

Bat-batean ez digute ba esklabutza asmatu Europako lan ministroek! Zer eta astean 65 ordu lan egiteko aukera oparitu nahi ziguten krisiari aurre egiteko! Hau da, sei lan egun eta egunean 11 lan ordu! Eskerrak europarlamentariek atzera bota duten.

Egia da gure enpresek munduan lehiatu behar dutela lan jarduna guk halako bi eta soldata gurea baino bost edo hamar aldiz txikiagoa onartzen duten langiledun enpresekin. Alde itzel horrek azaltzen du zergatik gure hazkundeak haienen heren edo laurdenera ez diren iritsi azken urteotan.

Baina ezin da esklabutza izan giltza berriro lehiakor izan gaitezen. Latigoa eta egurra baino planteamendu osoagoak eta serioagoak beharko dira ganorazko zerbait egingo bada. 65 ordu astean, okurridu be!

## ai, ene!



### Umeen kotxeak uzteko aparkalekuak kalean

Ibarrean ere horrelako aparkalekuak jartzen hasi beharko dute, kalean umeen kotxeak besterik ez dira ikusten-eta.

www.sarda.es

